

Euskal lankidetzaren eta gizarte-mugimenduak

Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa implementatzeko gidaliburua

Hegoa -Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerako buruzko Ikasketen Institutua- bitariko izaera duen erakundea da, unibertsitate institutua eta elkarte zibila, aldi berean, eta honakoa du egiteko nagusia: giza garapenerako eta lankidetzaren eraldatzaileko esparru teorikoak, prozesuak eta estrategia alternatiboak eraikitzea, proposatzea eta aplikatzea, pentsamendu kritikotik abiatuta, betiere. Hegoa Institutuak esparru hauetan garatzen du bere jarduna: irakaskuntza eta ikerketa, hezkuntza emantzipatzailea, laguntza teknikoa eta aholkularitza. Gainera, gai horietan espezializaturiko dokumentazio zentro bat ere badu, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bidez sarbidea eskaintzen duena..

Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate

Euskal lankidetzaren eta gizarte-mugimenduak

Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa implementatzeko gidaliburua



Lan hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes ekonomikoari esker argitaratu da,
Gizarte-mugimenduak indartzea helburu duen lankidetzaren eraldatzaileko agendarako gakoak (2013) izeneko ikerketa proiektuaren barruan.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Politikako Departamentua

Euskal lankidetzaren eta gizarte-mugimenduak. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa inplementatzeko gidaliburua

Egilea: Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate

Koordinazioa: Amaia del Río Martínez

2015eko martxoa

Argitaratzailea::



www.hegoa.ehu.es

hegoa@ehu.es

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre etorbidea 81 • 48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako campuseko liburutegia

Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64 • Faxa: 94 601 70 40

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Labayru Ikastegia

Lege zenbakia: BI-311-2015

ISBN: 978-84-16257-03-4



Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Baimenduta dago obra hau kopiatzea, banatzea eta jendaurrean hedatzea, betiere, baldin eta haren egiletza aitortzen bada eta xede komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ez dago obra hau aldatzerik, eraldatzerik edo hartatik eratorritako beste obra bat sortzerik.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Sarrera 7

I. kapitulua: Abiapuntua 15

1. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa 17

1.1. Nazioarteko lankidetzaren krisia 17

1.2. Gizarte-mugimenduak, apustu alternatibo gisa 19

1.3. Lankidetzeta eta gizarte-mugimenduak: bat ez etortzearen logikak 21

1.4. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa:
indar-ideia nagusiak 24

2. Euskal lankidetzeta deszentralizatuaren aldeko apustua 35

2.1. Lankidetzeta deszentralizatua: diagnostikoa eta erreferentzia
esparru kritikoa 35

2.2. Lankidetzeta deszentralizatuaren esparru kritikoa eta elkartasun
internazionalistaren agenda alternatiboa: korrelazio positiboa 40

2.3. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa eta euskal
lankidetzeta: eredu komunak eta ezaugarri espezifikokoak 44

II. kapitulua: Proposamena 51

1. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa inplementatzea:
eredu orokorrak 54

1.1. Eraldaketa nagusia: ikuspegi klasikotik subjektuen ikuspegira 55

1.2. Hiru etapa, gero eta intentsitate handiagokoak 67

2. Hiru euskal administrazioetarako proposamenak 83

2.1. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia: trantsizio
proposamena 86

2.1.1. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren
diagnostikoa 86

2.1.2. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarako
proposamena 96

2.1.2.1. I. urratsa: Lurra modu integralean jorratzea 97

2.1.2.2. II. urratsa: Konplizitateak ereitea eta berreskuratzea	102
2.2. Gipuzkoako Foru Aldundia: trantsizio proposamena	106
2.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren diagnostikoa	107
2.2.2. Gipuzkoako Foru Aldundirako proposamena	114
2.2.2.1. I. urratsa: Konplizitateak ereitea eta sendotzea	115
2.2.2.2. II. urratsa: Ereindako aliantzak ernatzea	118
2.3. Donostiako Udala: trantsizio proposamena	122
2.3.1. Donostiako Udalaren diagnostikoa	122
2.3.2. Donostiako Udalerako proposamena	129
2.3.2.1. I. Urratsa: Lurra jorratzea eta <i>zer</i> eta <i>nork</i> aldagaiak uztartzea	129
2.3.2.2. II. urratsa: Konplizitateak ereitea eta sendotzea	132
Bibliografia	137
Glosarioa	145
Eranskinak	153
I. eranskina. Lan ildoen ikuspegiaren baremaziorako taularen eredia (lankidetzeta nahiz hezkuntzarako)	155
II. eranskina. Subjektuen ikuspegiaren baremaziorako taularen eredia	160
Irudien aurkibidea	
1. irudia. Nazioarteko lankidetzaren krisi integrala	18
2. irudia. Giza Garapen Iraunkorrera bideratutako Lankidetzeta (GGIL) eta gizarte-mugimenduak: arbuio inplizitua	23
3. irudia. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboaren bi indar-ideiak	25
4. irudia. Emantzipazio subjektuen ahalmenak sendotzea	28
5. irudia. Askotarikoen arteko aliantza	32
6. irudia. Lankidetzeta deszentralizatuaren erreferentzia esparru kritikoa	40
7. irudia. Eraldaketa nagusia	55
8. irudia. Subjektua, lehentasun gisa	63

9. irudia. Trantsizio prozesuaren hiru etapak	68
10. irudia. Lurra jorratzea	71
11. irudia. Konplizitateak ereitea	75
12. irudia. Konplizitateak ereitea. Arloak	77
13. irudia. Aliantzak ernatzea	80

Koadroen aurkibidea

1. koadroa. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboaren proposamenen laburpena	34
2. koadroa. Lankidetzaren deszentralizatuaren diagnostiko kritikoa	38
3. koadroa. Gizarte-mugimenduen eta lankidetzaren deszentralizatuaren diagnostikoa	44
4. koadroa. Euskal lankidetzaren analisi esparru kritikoa	48
5. koadroa. Ikuspegi klasikoaren analisi kategoriak	56
6. koadroa. Ikuspegi klasikoaren ezaugarriak	60
7. koadroa. Subjektuen ikuspegiaren analisi kategoriak	62
8. koadroa. Subjektuen ikuspegiaren ezaugarriak	66
9. koadroa. Trantsiziorako helburuak	70
10. koadroa. Lurra jorratzea. Helburuak	74
11. koadroa. Konplizitateak ereitea. Helburuak	79
12. koadroa. Aliantzak ernatzea. Helburuak	82
13. koadroa. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diagnostikoaren sintesia	89
14. koadroa. I. urratsa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarako proposamena	98
15. koadroa. II. urratsa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarako proposamena	103
16. koadroa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren diagnostikoaren sintesia	109
17. koadroa. I. urratsa: Gipuzkoako Foru Aldundirako proposamena	115
18. koadroa. II. urratsa: Gipuzkoako Foru Aldundirako proposamena	119
19. koadroa. Donostiako Udalaren diagnostikoaren sintesia	124
20. koadroa. I. urratsa: Donostiako Udalerako proposamena	130
21. koadroa. II. urratsa: Donostiako Udalerako proposamena	133

A dense crowd of people is depicted in a simple, line-art style. The figures are drawn with clean, black outlines on a white background. The crowd is packed closely together, filling the entire frame. Many individuals have their arms raised, suggesting a line for a service or a public gathering. The drawing uses varying line weights to create a sense of depth and movement. A dark grey horizontal bar is positioned across the middle of the image, containing the text 'Sarrera' in white. The overall composition is busy and conveys a sense of a large-scale event or a busy public space.

Sarrera

Gidaliburu honek jarraibide batzuk proposatzen ditu, euskal lankidetzan modu praktikoan aplikatzeko *Nazioarteko lankidetzeta eta gizarte-mugimendu emantzipatzaileak: beharrezko topaketa baterako oinarriak* lanean bildutako proposamenak (Fernández, Piris eta Ramiro, 2013b).

Bi argitalpenek jarraipena eman nahi diote Hegoa Institutuaren *Lankidetzeta kritikoa eta gizarte-mugimenduak* taldeak 2010. urteaz geroztik dinamizatu duen ikerketa prozesuari¹, zeinaren helburu nagusia izan baita nazioarteko lankidetzaren azterketa kritikoa egitea eta hari ahalmen emantzipatzaile nabarmenagoa atxikitzea², gizarte-mugimenduekiko aliantzetan sakonduz.

Premisa hori abiapuntu hartuta, lehen fasean (2010-2013) bi ikerketa ildo osagarri zabaldu ziren. Alde batetik, aztertu zen gaur egungo gizarte globalean ekintza kolektiborako molde gisa gizarte-mugimenduek duten garrantzia. Ildo horretan, ondorioztatu zen, gaur egun bizi dugun zibilizazio krisian, gizarte-mugimenduak eragile estrategikoak direla krisi horri emantzipazioaren³ ikuspegitik aurre egitera bideratutako agendak, espazioak eta ekimenak asmatzeko, proposatzeko eta garatzeko. Hortik aurrera, zedarritu nahi izan zen –ez definitu– zer ulertzen dugun gizarte-mugimendu gisa⁴, baita hauteman ere zerk sendotu edo/eta ahuldu lezakeen haien ahalmen emantzipatzailea, esentzialismo orotatik at. Gogoeta horiek Hegoak argitaratutako bi lan koadernotan bildu ziren⁵.

Aldi berean, bestalde, gizarte-mugimenduen eta nazioarteko lankidetzaren arteko erlazioa aztertu zen. Hala, azken hogeita bost urteetako lankidetzeta agenda eta dinamikak aztertu ondoren, ondorioztatu dugu batasunik eza dela, gure ustez, erlazio hori hobekien azaltzen duen esapidea. Zehazki, nazioarteko lankidetzak gizarte-mugimenduen partaidetza aktiboa eta naturala modu

1 *Lankidetzeta kritikoa eta gizarte-mugimenduak* ikerketa taldearen baitan, Hegoako kide eta irakasleek ez ezik, honako erakunde eta eragile hauetako kideek ere parte hartzen dute: La Vía Campesina, Emakumeen Mundu Martxa (EMM), Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL), *Lankidetzeta eta gizarte-mugimenduak* plataforma (honako hauek osatua: Mugarik Gabe, Bizilur, Herriarte-Entrepobles, VSF-Herrien Bidezko Elikadura, Bakea eta Duintasuna eta Mundubat), eta *Emantzipaziorako tresnak* taldea, gizarte-mugimenduetako, GGKEetako, erakundeetako eta aholkularitzako adituek osatua.

2 *Nazioarteko lankidetzeta* esapidea adiera hertsian erabiltzen dugu, Garapenerako Laguntza Ofizialaren baliokide gisa (GLO), ikerketaren xedeak politika publikoak baititu ardatz, eta ez nazioarteko elkartasuna, zentzu zabalean.

3 Ikus emantzipazioaren definizioa, glosarioan.

4 Ikus gizarte-mugimenduari buruzko oharra, glosarioan.

5 Martínez, Casado eta Ibarra (2012), eta Martínez eta Casado (2013).

esplizituan edo inplizituan zergatik arbuiazen duen azaltzeko arrazoi batzuk aurkitu genituen.

Eta diagnostiko horretatik abiatuta, hain zuzen ere, hamaika oinarri finkatu genituen, lankidetzaren eta gizarte-mugimenduen arteko aliantza ahalbidetzeko, eta, oinarri horiekin, elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa (EIAA) osatu zen –lehen kapituluan azalduko dugu sakonago zertan datzan–. Ikerketa ildo horren baitan landutako eztabaidak, analisiak eta ekarpenak lehen aipatutako liburuan jaso ziren (Fernández, Piris eta Ramiro, 2013b). Hala, dokumentu horrek behin betiko uztartu zituen bi ikerketa ildoak –gizarte-mugimenduen garrantzia, identitateak eta ahalmenak, alde batetik; eta nazioarteko lankidetzaren ahultasun eta potentzialitateen azterketa, bestetik–, eta ikerketa prozesuaren lehen mugarrira markatu zuen, lehen esan bezala.

2013an, ikerketaren bigarren fasea hasi zen, eta honako erronka hau planteatu zuen: EIAA agenda hiru euskal administrazioetako politika publikoetara eramatea; hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA), Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) eta Donostiako Udalaren (DU) politiketara eramatea. Hauxe zen xedea, beraz: agenda alternatiboaren hamaika oinarriak proposamen zehatz eta espezifiko bihurtzea euskal lankidetzeta deszentralizatuaren hiru eskuduntza mailetan (erkidegoa, probintzia eta udala), mailakako trantsizio prozesuen bidez, gaur egungo bateratasun ezetik hasi, eta nazioarteko lankidetzaren eta gizarte-mugimenduen artean aliantza natural eta iraunkorraren logikara iritsi arte.

Ikerketa prozesuaren bigarren fasea ongi ulertzeko, funtsezko premisa batzuk ematea komeni da, horietan aurrerago sakonduko badugu ere. Lehenik eta behin, lankidetzeta deszentralizatu aukeratu dugu, horixe delako gizarte-mugimenduekiko hurbiltasun potentzial handiena duen tipologia, tipologia horren identitateak eta historiak herritarrekin eta gizarte zibil antolatuekin lotura estuagoa duen neurrian. Bigarrenik, politika publikoetan eragitea lehenetsi da, nazioarteko lankidetzako eragileen multzoan duten biderkatze efektuagatik, eta pentsaturik administrazioetatik ere sustatu edo/eta lagun litezkeela dinamika emantzipatzaileak. Azkenik, hirugarrenik, hiru erakunde aukeratu dira, gaur egun edo beren historian modu esplizituan adierazi dutenak nazioarteko lankidetzeta eta gizarte-mugimenduak elkarri lotzeko borondate politikoa –eta, beraz, horretan esperientzia dutenak– eta, horrekin batera, beren gain hartu dutenak borondate hori gauzatzeko eta borondate horri kontrajarri ohi zaizkion inertiak gainditzeko erronka.

Premisa horietatik abiatuta, diagnostiko bat formulatu genuen (Piris eta del Río, 2014)⁶, bost dokumentu osagarri dituena. Lehenengo hiru dokumentuetan, aukeratutako hiru administrazioen nazioarteko lankidetzaren politiken azterketa xehea egiten da. Laugarrenak, berriz, *Lankidetzaren eta Gizarte-mugimenduak* plataformako kide diren GGKE-en gogoetak eta ekarpenak biltzen ditu; izan ere, erakunde horiek lan esperientzia zabala dute euskal lankidetzaren arloan eta askotariko gizarte-mugimenduekiko aliantzan, eta, hori kontuan harturik, estrategikotzat jo da diagnostikoa lantzean horien ekarpenak jasotzea. Azkenik, bosgarren dokumentuan lankidetzaren inplementatzeko tresna alternatiboei buruzko azterlan egin da (alegia, plangintza, formulazio eta ebaluazio faseei eta abarri aurre egiteko beste formula batzuk bilatu dira, esparru logikoaren ikuspegitik harago), kontuan harturik tresna horiek lagungarriak izan daitezkeela, halaber, gizarte-mugimenduen logikekiko koherenteagoa izango den lankidetzaren jardura bat bideratzeko.

Faktore horiek guztiak eskura genituela, erkatze lana⁷ egin genuen, eta abian jarri genuen dokumentu hau, *Euskal lankidetzaren eta gizarte-mugimenduak. Elkartasun internazionalistaren euskal agenda inplementatzeko gidaliburua*, eraikitze prozesua.

Gidaliburuak bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, mailakako ibilbide bat proposatzen du EIAA agenda inplementatzeko borondatea duten administrazioetarako. Bestetik, EIAA agendan eragiteko nahia duten mugimendu, GGKE, unibertitate eta bestelako gizarte-erakunde batzuen zerbitzura ere jarri nahi du, baliabideak eskaintzeko agenda emantzipatzaile, inklusibo eta praktikoa bat eraiki dezaten, lankidetzaren deszentralizatuaren esparruan.

Helburu bietan –EIAA agenda sustatzera erabakita dauden erakundeentzako zuzeneko aplikazioan nahiz gizarte zibil antolatuen bidez eraginez agenda ezartzekoan–, azpimarratu beharra dago honako hau ez dela erabakimen osoa dutenei soilik begirako apustu bat; alegia, ez dela gizarte-mugimenduak modu estrategikoan lehenesten dituztenei begirakoa soilik. Jakina, gizarte-

6 Piris, Silvia eta del Río, Amaia (2014), *Diagnóstico de la cooperación para el desarrollo vasca y oportunidades para la alianza con movimientos sociales*, honako honetan eskuragarri: <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/324>>.

7 Erkaketarako bilerak egin ziren Gipuzkoako Aldundiaren *Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzarekin* (2014ko irailak 16); Donostiako Udalaren *Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzaren, Berdintasuna eta Giza Eskubideen Arloarekin* (2014ko urriak 16); Eusko Jaurlaritzaren *Garapen Lankidetzaren Euskal Agentziarekin* (2014ko azaroak 3); *Lankidetzaren eta gizarte-mugimenduak* plataformarekin (2014ko urriak 2 eta azaroak 25); Hegoa Institutuan (21); eta *Plataforma 2015* y + plataformako talde teknikoarekin (2014ko urriak 30).

mugimenduei garrantzia aitortzen dien orok proposamenak inplementatzeko edo eraikitzeko agenda oso bat aurkituko du hemen.

Baina Gidaliburuak harago iritsi nahi du. Ildo horretatik, lankidetzaren ahalmen emantzipatzailea sendotzeko xedez gizarte-mugimenduetatik lankidetzara oro har egindako begirada bat da EIAA agenda. Hori dela eta, lan honen interesa gizarte-mugimenduekiko zuzeneko lanaz harago doa, eta balizko toki komunetara proiektatzen da; hain zuzen ere, lankidetzeta deszentralizatuaren gaur egungo agendan eraldaketak egiteko premia –adibidez, politiken koherentzian; garapenerako hezkuntzaren (GH) pisu politikoa eta aurrekontuan duen pisuan; formulazio eta jarraipen sistemen malgutasunean, edo plangintza, ebaluazio, sistematizazio eta kontu ematearen dimentsio politikoaren garapenean– ikusten duten beste batzuekin partekatutako espazioetara.

Aldi berean, euskal lankidetzarako analisi eta proposamen bat izan arren, baliagarria izan daiteke, gure ustez, ikuspegi eta jarduera eredu berak partekatzen dituzten beste lankidetzeta batzuentzat ere, adibidez, Estatuako lankidetzeta deszentralizatuarentzat.

Helburu bikoitz eta espiritu inklusibo horiek jomuga harturik, bi ataletan banatu dugu Gidaliburuak. Lehenean, abiapuntua azaltzen da: elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboaren (EIAA) indar-ideia nagusiak, hain zuzen; agenda baita ikerketaren oinarriko erreferentzia esparrua. Era berean, lankidetzeta deszentralizatuaren aldeko apustua azaltzen da, lankidetzeta molde hori hartzen baitugu EIAA agenda inplementatzeko tipologia espezifiko egokientzat; izan ere, gure ustez, lankidetzak une honetan bizi duen identitate krisia dela eta, urrats estrategikoa da haren izaera eraldatzailea eta gizarte zibil antolatuairekiko lotura sendotzea eta berritzea.

Bigarren kapituluaren oinarriak finkatuta, hura euskal lankidetzan inplementatzeko proposamen espezifikoak aditzera ematen da. Lehenik eta behin, EIAA agendaren postulatuak pixkanaka gauatzeko trantsizio prozesua izendatu dugunaren eredu orokorrak ematen dira. Prozesu horrek hiru etapa ditu, intentsitate desberdinekoak, eta esparru politikotik nazioarteko lankidetzako ekimenen praktikara bitarteko esparrua hartzen duten sei helburu biltzen dituzte. Eredu orokorrak formulatzeko garaian, lehen esan dugunez, kontuan hartu da baliagarriak izatea euskal lankidetzarako ez ezik lankidetzeta deszentralizatu osorako ere –beste esperientzia eta tipologia posible batzuen artean–. Azkenik, kapituluaren bigarren atalean, aukeratutako hiru politika publikoetako bakoitzerako proposamen espezifikoak azaltzen dira.

Gidaliburuaren estiloari dagokionez, kontuan hartzekoa da ekintza plana izan nahi duela. Hortaz, lankidetzaren dinamika emantzipatzaileetan posizionatuko duten agenda politikoak eratzeko baliabide gisa ulertu behar da, eta, beraz, ez da mugatzen analisi teoriko eta kontzeptualera. Dokumentu pedagogikoa izateko borondatea du, beraz, eta, hala, argitasuna, soiltasuna eta sintesia ditu erreferentziazko printzipioak.

Azkenik, atal hau hasitako toki berean bukatzearen, adierazi nahi dugu Gidaliburua ikerketa prozesuaren jarraipena ere badela. Alde batetik, amaitu gabeko prozesu bat da: ateak irekitzen ditu, baina ez itxi. Ildo horretatik, ikuspegi berriei eta inplementazio tresna eta sistemei dagokienez batik bat (deialdiak, formulazioak, baremazioak, jarraipena, ebaluazioa eta kontu ematea), bide jakin batzuk markatu dira, baina bide horiek eraikitzen eta sakon aztertzen jarraitu beharko dira hemendik aurrera. Bestalde, jarraipena da, bokazio politikoa duelako, eztabaida sustatu eta maximoen eta minimoen aliantzak bultzatu nahi dituelako beste eragile batzuekin, emantzipazio dinamika eta subjektuen zerbitzurako lankidetzaren planteatzen duten beste proposamen batzuekin. Beraz, hirugarren fasea hasi besterik ez da egin –zabaltasuna, elkarrizketa, artikulazioa eta eragina oinarri dituela–, euskal lankidetzaren zehazki, eta 2015 ondoko garapenaren agenda globala, oro har, berriro definitzen ari diren une berezi honetan.

Amaitzeko, hauxe aipatzea besterik ez zaigu gelditzen: gidaliburu hau, banakoek sinatua bada ere, talde laneko ariketa sakon baten emaitza da, eta horregatik mintzo gara lehen pertsonako pluralean testuan zehar. Hain zuzen ere, hainbat eztabaida sakonen ondorioa da, zeinetan parte hartu baitute modu aktiboan *Lankidetzaren kritikoa eta gizarte-mugimenduak* taldearen bidez artikulatutako pertsona eta espazio multzoak, *Gizarte-mugimenduak* eta lankidetzaren plataformak, *Emantzipazioarako tresnak* taldeak, eta aliatu multzo zabal batek, prozesuaren parte direla guztiak ere. Eskerrak eman nahi dizkiegu horiei guztiak, zeregin horretan jarritako irrikagatik eta beren ekarpen, gogoeta eta proposamen bikainengatik.



I. Kapituluwa

Abiapuntua

Lehen kapituluan, Gidaliburuaren bi abiapuntuak azalduko ditugu, gero egingo dugun proposamenaren oinarriak ulertzen lagunduko baitigute. Hain zuzen ere, hasierako atalean, elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboaren (EIAA) indar-idea nagusien berri emango dugu. Gero, bigarren atalean, lankidetzaren deszentralizatuaren –eta, bereziki, euskal lankidetzaren– pertinentziaz eta egokitasunaz jardungo dugu, EIAA agenda inplementatzeko lankidetzaren tipologia egokiena dela azaltzeko. Bi kasuetan, funtsezko elementua da, ezinbestean aintzat hartu beharrekoa, nazioarteko lankidetzaren gaur egungo krisia –zeinaren baitan txertatzen baita lankidetzaren deszentralizatuaren identitate krisi espezifikoak–.

1. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa

EIAA agenda nazioarteko lankidetzaren krisiaren testuinguruan sortu da. Krisi horretatik eratorri da egiteko gizarte-mugimenduak gaur egungo egoerari aurre egiteko subjektu estrategikotzat hartzearen aldeko apustu espezifikoak, eta, ikuspegi horretatik eraiki da gure agenda alternatiboaren espiritua eta nortasuna, lankidetzaren eta gizarte-mugimenduen arteko bat ez etortzearen azterketa abiapuntu hartuta.

1.1. Nazioarteko lankidetzaren krisia


Gaur egungo zibilizazio krisiaren ondorio nagusietako bat da kolokan jarri dituela historikoki gizarte globalaren eredu hegemonikoa ezaugarritu duten baliokak, lehentasunak, egiturak, eragileak eta dinamikak. Gero eta gehiago, eta gero eta indar handiagoz, pobrezia, berdintasunik ez gero eta larriagoaren eta zaugarritasun sistemikoaren arazoaren parte jotzen dira –eta ez konponbidearen parte– garapenaren neurritzat hazkunde ekonomiko kapitalista hartzea eta ordezkari bidezko demokraziak herri partaidetzarako uzten duen bide estua. Garai batean sakon errotuta zegoen hori kolokan dago orain. Errealitatea konplexua, da aldakorra, eta dena pasatzen da zalantzen iragazkitik, kritikaren iragazkitik.

Nazioarteko lankidetzaren ez dago, noski, dena zalantzan jartzeko logika horren eraginpetik at, ezta gutxiago ere; are gehiago, kontuan harturik justizia, ongizatea, berdintasuna eta iraunkortasuna helburu dituen politika publiko bat dela. Ildo horretatik, bereziki garatu beharrekoa iruditzen zaigu nazioarteko lankidetzaren espiritu kritiko eta autokritikoa, deskribatu berri dugun egoeran batik bat. Jakina, pobrezia, berdintasunik eza eta zaugarritasun sistemikoa ez

dira nazioarteko lankidetzaren erantzukizun eskusibo eta zuzenekoak. Baina ebaluatu beharra dago ea nazioarteko lankidetzeta gai izan den testuinguru gero eta konplexuago horretara egokitzeko eta hartan eragiteko; ea egiturazko arazo horri aurre egiteko behar adinako ahalegina egiten ari den, alderdi politiko eta ekonomikotik; ea nazioarteko lankidetzeta sustatzen duten eragileak koherenteak diren beren jardueretan, nazioarteko lankidetzaren politika ofizialei atxikitako jardueretatik harago; eta ea, halaber, irtenbiderik eskaintzen ari den edo, aitzitik, arazo global larriak sakontzeko bidea egiten ari den.

Zalantza horiek bultzatuta, krisi existentzial modura definitu da nazioarteko lankidetzaren krisia (Sobhan, 2006), baita identitate krisi modura (Domínguez, 2011; Unceta eta Gutiérrez, 2012) eta zilegitasun krisi modura ere (Zimmermann eta Smith, 2011). Horrek agerian uzten du krisia ez dela baliabide ekonomikoei soilik dagokien kontu bat, baizik eta fenomeno integral bat, zuzenean eragiten diona nazioarteko lankidetzaren muinari: azken buruko helburuak, lehentasunezko eragileak eta bitarteko estrategikoak.

1. irudia. Nazioarteko lankidetzaren krisi integrala



Iturria: Lan honen egileek sortua.

Ildo horretatik, kolokan gelditzen da garapena xede gisa jartzen duen ideia bera. Haren doktrinak ez du gaitasunik gaur egungo krisi dimentsio anitzari aurre egiteko, baina ez hori bakarrik: gaitasunik ere ez du Iparra-Hegoa eta mundu garatua-garatzeko bidean dagoen mundua sailkapen dikotomiko klasikoak hausten dituzten garapen arazo deritzenen konfigurazioan dinamikak, politikek, eragileek eta lurraldeek duten elkarrekiko mendekotasun estua

ulertzeko (Martínez, 2014:12). Horrela, nazioarteko lankidetzak errealitate globalaren aniztasunarekin eta konplexutasunarekin gero eta talka handiagoa egiten duten usteetan oinarritu izan da, eta oinarritzen da oraindik, eta horrek zilegitasuna kentzen die garapenari eta haren tresna ofizialei –nazioarteko lankidetzari, besteak beste–, gehiengo sozial handien aldeko erreferente gisa.

Baina, gainera, nazioarteko lankidetzak krisi sakona bizi du bere lehentasunezko eragileen definizioari dagokionez. Gaur egun, eragile klasikoei gaina hartzen ari zaizkie beste eragile berri batzuk, nazioarteko lankidetzan logika propioaz diharduten eragileak –hala nola, BRICS⁸ deritzenak–. Aldi berean, enpresa transnazionalak (ETN) eta gizarte-mugimenduak garrantzia hartzen ari dira jolas eremu globalean, premisa antagonikoetatik, jakina. Nazioarteko lankidetzak ez du asmatu eragileen magma horretara egokitzeko irizpide argi, koherente eta planifikatuak finkatzeko garaian, are gutxiago ikuspegi emantzipatzailetik.

Azkenik, nazioarteko lankidetzak bera, bitarteko gisa, zilegitasuna galtzen ari da, nazioarteko finantzaketarako beste iturri indartsuago batzuk agertu izanaren ondorioz (immigranteen igorpenak, atzerriko inbertsio zuzena, etab.) nahiz ohiko bitartekoen eraginkortasunik ezaren ondorioz (proiektuak, aurrekontu laguntza, pobrezia murrizteko estrategiak, etab.).

Azken batean, nazioarteko lankidetzak gaur egungo erronka globalei aurre egiteko krisi integrala duela ikusten ari gara. “Egoera horretan, lankidetzak bi bide nagusi hauek ditu aurrez aurre: indarra galdu, protagonismo are gehiago galduz; edo bere burua berrasmatu, beste helburu batzuk, bitarteko berriak eta bestelako eragileak planteatuta” (Unceta, 2013b:26). Ezinbestekoa da berrasmatze ariketa hori egitea, alderdi positiboak indartuz, positiboa izan ez dena hobetuz, eta, betiere, ikuspegi emantzipatzailetik jardunez, argi eta garbi.

1.2. Gizarte-mugimenduak, apustu alternatibo gisa

Gizarte-mugimenduekiko aliantza da nazioarteko lankidetzak ikuspegi emantzipatzailetik berrasmatzeko premiari erantzuteko bideetako bat (Cabanas, 2011; Martínez Osés, 2011; González, 2012; Fernández, Piris, Ramiro, 2013; Martí, 2013; Unceta, 2013; del Río, Dema, Gandarias, 2014). Ildo horretatik, sarreran adierazi dugunez, gizarte-mugimenduak dira ekintza kolektiborako

8 Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika (herrialde horien ingelesezko izenen laburdura).

molde estrategikoenetako bat demokrazia zabaltzeko eta gaur egungo statu quoaren iruditeria, agenda eta proposamen alternatiboak finkatzeko. Eta nazioarteko lankidetzak, eraldaketa sustatu nahi duen politika publiko orok bezala, aintzat hartu behar luke errealitate hori.

Izan ere, ezinbesteko apustua dela esan liteke, ezin uler baliteke nazioarteko irtebide emantzipatzaile bat gizarte-mugimenduen partaidetza aktibo eta kalitatezkorik gabe. Nolanahi ere, ez da irtebide bakarra, eta ez du hala izan nahi ere. Hain zuzen ere, alternatibak formulatzea dagokigun une honetan, gizarte-mugimenduen begiradek eta proposamenek elkarrizketa egin eta artikulazioa bilatu behar dute beste eragile eta beste ikuspegi batzuetatik eratorrietakoekin, elkar aberasteko eta, hala, agenda emantzipatzaile ireki, inklusibo eta erradikal bat osatzeko. Gizarte-mugimenduak, beraz, beharrezko baldintza dira nazioarteko lankidetzan, baina ez baldintza nahikoa.

Edonola ere, agendak uztartzeko ikuspegia bat dator EIAA agendarekin, gizarte-mugimenduak lehentasunezko eragile modura hartze soiletik harago doan heinean. Ildo horretatik, gizarte-mugimenduen aldeko apustuak zera adierazten du: gizarte-mugimenduetatik nazioarteko lankidetzeta osoari egiten zaion begirada; eta, hortaz, EIAA agendak nazioarteko lankidetzeta osotasunean ulertzeko modu alternatibo bat atxikitzen du, lankidetzaren krisiaren alderdi guztiei heltzen baitie –helburuak, eragileak, bitartekoak–, eta ez soilik *nork* aldagaiari.

Horrela, jokoan sartzen da gizarte-mugimenduekiko aliantza, eta, lehenik eta behin, alternatibak eskaintzen ditu nazioarteko lankidetzaren helburu klasikoentzako. Bide horretan, ekintza kolektiborako molde horiek kritika gogorra egiten diote garapenaren kontzeptuari, besteak beste honako ikuspegi eta balio alternatibo hauetatik: bizimodu ona, bizitzaren iraunkortasuna, aniztasunaren artikulazioa, kolektiboaren eta komunitatearen defentsa, partaidetzan oinarrituriko demokrazia, egunerokotasunaren politizazioa, eta printzipio, perspektiba eta proposamenen konfrontazio dinamika, besteak beste (Fernández, Piris, Ramiro, 2013b).

Gainera, gizarte-mugimenduek Iparra-Hegoa dikotomia gainditzeko bidean sakontzen dute, beren jarduera politiko internazionalistaren bidez, zeinetan nabarmentzen baitira analisi eta aliantza globalak. Hain zuzen ere, logika global horrek berdefinitzen du solidaritatea, ez garatua-garatzeko bidean dagoena binomioan oinarrituta, baizik eta mendekotasun eta asimetria global handiak gainditzeko mundu mailako artikulazioan oinarrituta. Horrela, mendekotasun eta asimetria horiek gainditzeko korapilo nagusiak non aurkitu, hantxe jartzen

du arreta eta hantxe eragiten du estrategikoki –Iparra izan nahiz Hegoa izan–, ikuspegi globala zuzenean lotuz lurraldeetako askotariko borrokekin.

Era berean, bigarrenik, gizarte-mugimenduek desberdinen arteko aliantzak josteko erronka jotzen diote nazioarteko lankidetzari. Eragileei dagokien lehenespen klasikoa oinarri demokratiko eta herritarragoetatik berraztertzea eskatzen du horrek; baita askotariko subjektuen artean erlazio sistema berriak eraikitzea ere (del Río, Dema, Gandarias, 2014).

Azkenik, hirugarrenik, gizarte-mugimenduek kolokan jartzen dituzte nazioarteko elkartasuna inplementatzeko bitartekoak, haien inpaktu edo eragin politikoaren azterketa kritikoa eginez eta ohartaraziz koherenteak izan beharko luketela prozesu emantzipatzaileei atxikitako elementuekin, hala nola, konplexutasunarekin, elkarrekiko mendekotasunarekin, ziurgabetasunarekin, dibertsitatearekin, dimentsio aniztasunarekin, prozesu izaerarekin, etab.

Labur esanda, nazioarteko lankidetzaren eta gizarte-mugimenduen aliantzaren aldeko apustuak nazioarteko lankidetzari ikuspegi integraletik begiratzea dakar, eta, hala, planteatzen du goitik behera berraztertzea haren erreferentzia esparruak (zertarako), lehentasunak (zer eta nork), eta inplementazio dinamikak (nola). Era berean, esan dugunez, proposamen honek ez du asmo hegemonikorik inola ere; gehiago bilatzen du beste begirada alternatibo eta emantzipatzaile batzuekiko elkarriketa eta artikulazioa, nazioarteko elkartasuna politika publikoetatik berrasmatzeko oinarri komunak bilatuz.

1.3. Lankidetzeta eta gizarte-mugimenduak: bat ez etortzearen logikak

Aurreko atalean adierazitako gizarte-mugimenduen aldeko apustuak aurrez aurre gaur egun duen errealitatea, ordea, hauxe da: bat ez etortzea. Horixe ondorioztatu genuen ikerketaren lehen fasetik, nahiz eta bi maila bereizi genituen bat ez etortze horren sakontasuna eta arrazoiak aztertze.

Lehen azterketa maila lankidetzeta hegemonikoa deritzogunean definitu genuen, hau da, nazioarteko lankidetzaren agenda ofizialaren (NLAO) parametroak bere gain hartzen dituen horretsan. Sakon aztertuta (Fernández, Piris, Ramiro, 2013b:87-118), ondorioztatu genuen mende honetan, nazioarteko politika publiko gisa, garatzeko bidean dauden herrialdeen pobrezari Washingonteko Kontsentsuaz geroko ikuspegiari lehentasuna emanez aurre egin nahi izan dion

eta nahi dion politika bat izan dela, nagusiki⁹. Hortaz, Hegoaldeko herrialdeetan hazkunde ekonomikoa eta ordezkariak bidezko demokrazia liberala –gutxi asko formala– sustatzea eta muturreko zaurgarritasun egoerak deuseztatzea izan dira funtsezko estrategiak pobrezia kontrako borrokan, jakina, Iparrak fenomeno horrekin duen lotura sistematikorik edo erantzukizunik zehaztu gabe.

Modu horretan, nazioarteko lankidetzaren zer eta zertarako galderei erantzunda, nola galderari loturiko bi alderdi hauei lehentasuna eman zien NLAOk: batetik, laguntzaren finantzaketa, estrategia hori ahalegin nazionala osagarritzeko baliabideez hornitzeko, emaitza nahiko mamitsuak eman baititu; eta, bestetik, laguntzaren eraginkortasuna, Parisko Adierazpeneko bost printzipioetan oinarrituta (jabetzea, lerrokatzea, harmonizazioa, emaitzei begirako kudeaketa, elkarrekiko erantzukizuna), zeinak ahalbidetu baitu, onenean ere, baliabideen erabilera eraginkorragoa baina ekarri baitu, praktikan, bigarren mailako arazo tekniko bat: eraginkortasunaren arazoa, nazioarteko lankidetzaren krisi integralari loturiko koherentziaren eta inpaktuaren erronka askoz ere garrantzizkoagoen kaltean.

Lankidetzeta hegemoniko horrek berariazko arbuioak ezaugarrituriko erlazio bat sortzen du gizarte-mugimenduekiko, haren izaerak ihes egiten baitio gizarte-mugimenduen estrategia eta ekinbide politikoari. Ildo horretatik, Ipar Globalaren ikuskera eta interesetatik sortua da NLAO; baztertu egiten ditu pobrezia eta asimetria globalen azterketa sistemiko eta integralak; saihestu egiten du erantzukizun partekatua, eta oparoaldi ekonomikoko garaietako grazia modura planteatzen du lankidetzeta, ez konpromiso modura; emaitza ikusgarriak berehala lortzearekin parekatzen du eraginkortasuna, egiturazko eraldaketekin parekatu ordez; alde zuzenetik finkatutako partaidetzeta xede jakin batzuk lortzeko moduan instrumentalizatzen du partaidetzeta; eta eragile ez-inkonformistak lehenesten ditu, demokraziaren gaitetik eraginkortasuna jarriz. Ez dago, beraz, gizarte-mugimenduekiko gutxieneko bat etortzerik.

Baina nazioarteko lankidetzaren analisiaren beste maila bat ere nabarmendu ugu, giza garapen iraunkorra erreferentzia duena, hain zuzen ere (GGIL). Lankidetzeta askotariko erreferentzia esparruen arteko lehia bada, GGIL lankidetzeta da naturaltasun handienaz hartzen duena garapena hazkunde ekonomikoa hutsa baino gehiago dela, eta ongizate, iraunkortasun, ahalmen, jabetasuna, partaidetzeta eta ekitatearen kontzeptuek definitzen dute, teorikoki,

9 *Washingtonen Kontsentsuaren* proposamen neoliberal berak ditu oinarri (merkataritzeta zabalkundea, liberalizazioa, pribatizazioa, pribatizazioa eta desregulazioa), baina Estatuaren berreskuratu garapenerako eragile aktibo gisa, merkatuekin batera, eta ez haien kontra.

behintzat. Azpimarratu beharra dago ez dela nazioarteko lankidetzaren tipologia espezifiko bat (alderdi anitzekoa, Estatukoa edo deszentralizaturikoa), baizik eta nazioarteko lankidetzaren ikuspegi eraldatzaileagoa garatzearen aldeko borondate politiko bat, arestian aipatutako hiru tipologietako bakoitzaren baldintzak gainditu ere egin ditzakeena. Dena dela, lankidetzaren deszentralizaturikoa litzateke GGILren esparru egokiena, herritarrekiko harreman hurbilagoak markatzen baitu haren identitatea, baita baldintzatzaile ahulagoek ere, teorikoki, interes geopolitiko eta ekonomikoen alderditik.

Maila honetan, gizarte-mugimenduen eta GGILren arteko erlazioa ezin daiteke ezaugarritu NLAren kasuan bezala, kasu honetan elkarlaneko eta aliantza bidezko esperientzia eta ekimen arrakastatsu ugari baitaude. Hala ere, ondorioztatu dugu erlazioa nahiko ahula dela oraindik, zeharkakoa eta ez-naturala, eta, kasu honetan, GGILren arbuio implizitua dagoela esan liteke. Hau da, ez dira berez apustu antagonikoak, ez dago topaguneak aurkitzeko interes falta espezifiko bat, baina badaude arrazoi batzuk praktikan gizarte-mugimenduak giza garapen iraunkorarekin lotura estuagoa duen lankidetzaren honetatik urruntzen dituztenak (Fernández, Piris, Ramiro, 2013:122-137).

2. irudia. Giza Garapen Iraunkorrera bideratutako Lankidetzaren (GGIL) eta gizarte-mugimenduak: arbuio implizitua



Iturria: Lan honen egileek sortua.

Arbuio inplizitu hori azaltzeko bi arrazoi nagusi eman daitezke. Lehenik eta behin, GGILk praktikan aplikatzen duen garapenaren ikuspegia aldendu egiten da prozesu emantzipatzaileen logiketatik (konplexutasuna, elkarrekiko mendekotasuna, ziurgabetasuna, dibertsitatea, dimentsio aniztasuna, prozesu izaera, etab.), eta, hortaz, baita lehen aipatutako giza garapen iraunkorraren oinarriko ardatzetatik ere. Ildo horretatik, GGILk kategorikoki bereizten ditu Ipar eta Hego globalen erantzukizunak eta jarduerak; mugatu egiten du garapenaren integritasuna, lehentasuna emanez dimentsio ekonomikoari eta sozialari, dimentsio politikoaren eta kulturalaren gainetik; egia eta ziurtasuna ditu xede, konplexutasunaren eta dimentsio aniztasunaren aurrez aurre; eta itzuri egiten die funtsezko eztabaidei, hala nola, eragile eta subjektuen gainekoari, zeinak balioesten baititu eraginkortasunaren neurrian, ahalmen eta potentzialitate emantzipatzailearen neurrian baino gehiago.

Horri gehitu behar zaio, bigarrenik, dinamika horietan sakontzen duen nazioarteko lankidetzaren inplementazio logika bat, eragile eraginkorrenak lehenesten dituen. Bereziki aintzat hartzen dira epe laburrera begira emaitza ikusgarriak lortzeko modua duten proiektuen logikari egokitzeko gaitasuna duten eragileak; dinamika endogamikoak erreproduzitzen dituzten eta alderdi administratiboan eta teknikoan sakontzen duten proposamenak barematzeko sistemetara egokitzeko gaitasuna dutenak; mesfidantzatik eta fiskalizatzeko borondatek sortutako jarraipen eta ebaluazio metodoetara egokitzeko gaitasuna dutenak; eta sistema norabide bakarreko eta finantza-administrazioaren gaineko kontu ematera egokitzeko gaitasuna dutenak.

Horrek guztiak erlazio latza eta konplexua sortzen du, eta erlazio horri buelta eman beharko litzaioke, baldin eta helburua bada nazioarteko lankidetzan gizarte-mugimenduen partaidetza aktibo, natural eta kalitatezkoaren eta aliantzen logikak ahalbidetzea. Asmo horrekintxe sortu zen, hain zuzen, EIAA agenda, eta horixe da jarraian azalduko duguna.


1.4. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa: indar-ideia nagusiak

Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboaren (EIAA) abiapuntua nazioarteko lankidetzaren eta gizarte-mugimenduen arteko bat ez etortzea agerian utzi duen diagnostikoa da, aurreko atalean aztertu duguna. Ildo horretatik, lankidetzak gizarte-mugimenduen ekintza kolektiborako molde espezifikoari ezarri dizkion oztopoak gainditzeak definitzen du, hain zuzen ere, EIAA agen-

daren izana, eta ezaugarri horretatik eratortzen dira agendaren hamaika oinarriak (Fernández, Piris, Ramiro, 2013:245-272).

Oinarriak, dena den, bi indar-ideia nagusitan labur daitezke: batetik, EIAA agendak proposatzen du nazioarteko lankidetzak emantzipazio subjektuen ahalmenak sendotzea ardatz hartzea –subjektu horien artean eragile estrategikoenak lehenetsiz–, eta gizarte-mugimenduen garrantzia nabarmentzen du, beste aukera batzuen artean; bestetik, bereziki azpimarratzen du nazioarteko lankidetzak askotariko eragileen arteko aliantzen logika erraztu eta sustatu behar duela (gizarte-mugimenduak, GGKEak, unibertsitateak, bestelako gizarte-mugimendu batzuk, erakundeak, etab.), agenda emantzipatzaile komunak gauzatzeari begira.

3. irudia. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboaren bi indar-ideiak



Iturria: Lan honen egileek sortua.

Bi indar-ideia horien edukiak eta inplikazioak garatzen hasi aurretik, aurretiko lau ohar egin nahi ditugu, EIAA agenda zer den eta agenda horrek zer aldarrikatzen duen hobeto kokatzen lagunduko digutelakoan.

Lehenik eta behin, izenak dioen moduan, EIAA agenda bat da, eta, hala, nazioarteko lankidetzak eraldatzeko proposamen oinarritzko eta integral bat hartzen du bere baitan, hasi premisa politiko eta ikuspegietatik, eta inplementazio dinamika espezifikoenetara. Osoatasunaren gaineko begirada bat eskaintzen

du, hortaz: garatu eta esperientzia espezifiko eta tipologia jakin bakoitzari egokitu beharreko begirada orokor bat. Gainera, alternatiboa da, hegemonikoez bestelako oinarri, arretagune eta lehentasun berri batzuk proposatzen dituen heinean ahalmen emantzipatzaile handiagoa izango duen esparru bat eraikitzeari begira, nahiz eta lankidetzan subjektuak eta aliantzak sendotzeko gaur egun gauzatzen diren jardunbide egokiak darabiltzan. Azkenik, berariaz azpimarratzen du elkartasun internazionalista printzipio sendo eta estrategiko modura, mendekotasun eta asimetria globalei aurre egiteko.

Bigarrenik, EIAA agendak sendotu egiten du emantzipazio prozesuetan subjektuak duen zeregina eta, beraz, nazioarteko lankidetzako prozesuetan duena. Ildo horretatik, subjektu zabal, plural eta askotarikoaren aldeko apustua egiten da, askotariko subjektuak artikulatuz elkarrekin agenda bat gauza dezaten, gaur egungo zibilizazio krisiari aurre egiteko bide nagusi gisa. Askotariko subjektu horien artean, –lurraldean nahiz nazioartean– ahalmen emantzipatzaile handiena duten eragileak sendotzearen eta horien arteko aliantzak eratzearen alde egiten du EIAA agendak. EIAA agendaren muineko ideia, azken batean, hauxe da: subjektu sendo eta artikulatuagoak gai izango dira agenda, prozesu eta ekimen emantzipatzaileei espazioak zabaltzeko.

EIAA agendak, beraz, nork galderan jartzen du arreta, ez soilik zer galderan, nazioarteko lankidetzan ohikoa denez. Nazioarteko lankidetzak lehentasunezko lan ildo batzuk sustatu ohi ditu, garapenaren ikuskera jakin bati jarraituz, zeinak lehenesten baititu ekimenak aurretik finkatutako moduan egikaritzeko gaitasuna duten eragileak. Egoera horretan, lehen esan dugunez, berehalakotasuna, epe laburra, ziurtasuna eta eraginkortasuna lehenetsi ohi dira, emantzipazio prozesuek atxikita izaten dituzten konplexutasunaren, elkarrekiko mendekotasunaren, ziurgabetasunaren, dibertsitatearen, dimentsio aniztasunaren, prozesu izaeraren eta abarren ordez.

Horrela, lan ildoak lehenestea gehi garapenaren ikuspegi miopea ekuazioaren emaitzak eragile eraginkorrenak lehenestea izaten du emaitza, eta ez potentzialki ahalmen emantzipatzaile handiena duten eragileak lehenestea.

Edonola ere, gure ekuazioaren bigarren aldagaia aldatu eta garapenaren ikuspegi zabal eta errealistagoa gure egingo bagenu ere, nork galderaren gainetik zer galdera ezarri gero ez da eragozten eragileen eta subjektuen izaera instrumentala; saihestu egiten du haien pertinentziaren eta egokitasunaren gaineko ezinbesteko eztabaida; eta azpiratu egiten ditu sendotze eta aliantza esperientzia egiturazkoagoak, zeinak baitira estrategikoak agenda alternatiboarentzat.

Horregatik, hain zuzen ere, EIAA agenda onartzeak nazioarteko lankidetzaren lehentasunak iraultzea dakar, “egitea, *nork* eta *norekin* galderen erantzuna edozein dela ere”, “ahalmena duten horiek sendotzea, eta gero proposatzea zer eta nola, aliantzaren ikuspegitik”.

Modu horretan, EIAA agendak nazioarteko lankidetzako dinamikak subjektu eta eragile estrategikoetara egokitzearen aldeko apustua egiten du, eta ez alderantziz, gaur egun gertatzen den moduan. Bide horretatik, saihestu egin nahi da nazioarteko lankidetzaren berariazko eragile jakin batzuk sustatzea –haien egokitasunaren analisi politikorik egin gabe–, litekeena baita eragile horiek ez ibili izana beti ibilbide historiko oparoagoko eta, agian, zilegitasun handiagoko beste eragile batzuen alboan, edo, are gehiago, haien paraleloan, haiengandik aldentuta edo haien aurrez aurre ibili izana.

Hirugarrenik, EIAA agendak proposatzen duen ikuspegiaren arabera, subjektu zabal, plural eta askotariko baten alde egiten duen apustuarekin bat etorrira, subjektu eta eragile anitz biltzen ditu bere baitan, eta ez soilik gizarte-mugimenduak. Hala, *nork* aldagaiak garrantzia hartzen du, ahalmen emantzipatzailea izan lezaketan eragile askori erreferentzia egiten dien heinean (lurraldeak, gobernuak, eskualde eta nazioarteko artikulazio egiturak, unibertsitatek eta ezagutza sortzeko eta transmititzeko zentroak, bestelako gizarte-erakunde batzuk, etab.), baina, betiere, gizarte-mugimenduen aldeko apustu ezinbestekoa nabarmenduz.


Horri jarraituz, honela uler liteke EIAA agenda: nazioarteko lankidetzaren agendako puntu nagusiak –helburuak, eragileak, bitartekoak– modu integralean aztertzeko ekintza kolektiborako molde estrategiko honetatik –gizarte-mugimenduetatik– egindako begirada, proposatutako helburuak betetzeko askotarikoen artikulazioa planteatzen duena, eta, hala, beste ikuspegi batzuekin alderatuta, ikuspegi inklusiboa bere egiten duena.

Azkenik, gaur egun nazioarteko lankidetzak modura hartzen denaren esparru estua zabaltzea dakar EIAA agendak. Gizarte-mugimenduei dagokienez, haien ahalmenak eta aliantzak sendotzen dituen orok dakar zabaltze hori. Hau da, haien agendak, estrategiak eta antolaketa kulturak sendotzea dakarren orok: definizio estrategikorako ahalmenak; proposamenak sortzeko ahalmenak –diagnostikoa, ikerketa, prestakuntza, etab.–; alternatiba emantzipatzaile zehatzak sustatzeko ahalmenak; komunikazio ahalmenak; gizartean eta politikan eragiteko ahalmenak; artikulazio ahalmenak; mobilizazio ahalmenak; erresilientzia ahalmenak; demokratizazioari, berdintasunik eza gainditzeari,

ebaluazioari eta abarri dagozkien antolaketa ahalmenak. Esan dugunez, ez dira nazioarteko lankidetzatik bereizitako alderdiak gaur egun, baina ez dira oso ohikoak ere gaur egungo esparru orokorrean, zeinak ez baitu ez errazten ez sustatzen subjektuari nagusitasuna ematea, ezta bere gain hartzen ere emantzipazio prozesuen logikak ere.

Aurretiko lau ohar horietatik abiatuta, EIAA agendaren bi indar-idea nagusiak (subjektuak sendotzea eta askotarikoen arteko aliantza) bere gain hartzeak nazioarteko lankidetzari dakartzkion inplikazioak aditzera emango ditugu jarraian. Lehenari dagokionez –subjektuak sendotzea–, EIAA agendak logika emantzipatzaile batetik ahalmenak sendotzearen zenbait alderdi espezifikori balio berezia ematen dioten *dimentsio* batzuk nabarmentzen ditu, eta agenda alternatibo horren funtsezko elementu bihurtzen ditu horrela. Lau *dimentsio* hauek, hain zuzen ere: politikoa, interseksionala, internazionalista eta herritarra.

4. irudia. Emantzipazio subjektuen ahalmenak sendotzea



Iturria: Lan honen egileek sortua.

Lehenik eta behin, *dimentsio politikoak* adierazten du nazioarteko lankidetzeta auzi politikoa dela, helburu politikoak dituela eta eragile politikoek bultzatzen dutela. Ildo horretatik, iruditeriak, ideiak, proposamenak, interesak eta subjektuak ere espazio politikoetan mugitzen dira, eta, beraz, ahalmen eta

botere desberdin, asimetrico eta dinamikoak sartzen dira jokoan lankidetzan –eraldaketa tresna orotan bezala–.

Kontrako bidea hartzen saiatzea –alegia, garapena, pobrezia edo iraunkortasunik eza, adibidez, ikuspegi teknikitik hartzea eta nazioarteko lankidetzak profil horri lehentasuna eman diezaion bilatzea– ameskeria hutsa litzateke, onenean, edo dimentsio politikoa zeharka aintzat hartu arren statu quo defendatzea. Ukaezina da, beraz, nazioarteko lankidetzak izaera politikoa duela.

Izaera politiko hori naturaltasunez onartuta, eta nazioarteko lankidetzaren emantzipatzaile baten aldeko apustua abiapuntu harturik, EIAA agendak funtsezko eraldaketa sorta bat proposatzen dio nazioarteko lankidetzari ikuskera eta helburu nagusietan:

1. Nazioarteko lankidetzaren helburu nagusia mendekotasun eta asimetria globalak gainditzea litzateke, eta ez pobrezia kontrako borroka. Izan ere, oso esparru estua da hori, bereziki ulertuz gero, ohi den bezala, pobrezia uneko fenomeno bat dela, estatikoa, partziala eta esparru nazionalen kokatua. Pobrezia, ikuspegi horretatik hartuta, negatiboan formulatutako helburua da, ez da proiektatzen desiragarria den horretara, eta, gainera, mugatu egiten du jardura eremua, gaur egungoaren moduko errealitate konplexu batean bestela beharko litzatekeen arren. Ikuspegi irekiago batetik hartuta ere, pobrezia gehiago garamatza ondorioak ikustera, kausak ikustera baino; eta egoeraren analisiak eta analisi partzialak egitera, analisi sistemikoak egitera baino gehiago. EIAA agendak erronka jotzen digu begirada zabalagoa egin dezagun eta eragiten saia gaitzen logika globaletatik abiatzen diren eta maila lokal, nazional eta eskualdekoan elkarreraginean diharduten izakien, botereen eta jakintzen arteko asimetrien egiturazko arazoietan. Erronka konplexu eta handinahi horrek bultzatuta, lehentasunak eta eragileak hautatzeko garaian bestelako perspektiba bat hartzea behartuta dago lankidetzaren.
2. Emantzipazio subjektuak sendotzea hartzen du EIAA agendak mendekotasun eta asimetria globalak gainditzeko bidean eragiteko modu estrategikotzat. Esan dugunez, subjektu sendotuak gai izango dira agenda eta ekimen emantzipatzaileentzako erabakitako espazioetan jarduteko. Alderdi horretatik, EIAA agendak zuzeneko lotura du potentzialitate emantzipatzaile handieneko subjektu estrategikoen –eta horien baitako eragile nagusien– analisi politikoarekin eta ebaluazio jarraituarekin, testuinguru orokorra eta testuinguru partikular bakoitza kontuan hartuta.

3. Ahalmenak sendotzeko logikak naturaltasunez bere egin behar ditu prozesu emantzipatzaileen berezko ezaugarriak, hau da, konplexutasuna, ziurgabetasuna eta prozesu izaera, subjektuaren garrantzia nabarmentzeaz gainera. Nazioarteko lankidetzak, ordea, ez ditu alderdi horiek barneratzen, oro har, inplementazio sistema biziki teknifikatuek erakusten dutenez (bitartekoak, tresnak, etab.).

Bigarrenik, dimentsio interseksionalak aditzera ematen du ahalmenak sendotzeak erraztu egin behar duela agenden eta borroken artikulazioa, indarrean dagoen gizarte globalean topo egiten duten askotariko mendekotasunetan eta asimetrietan eragiteko, hala nola, genero, etnia/arraza, klase eta bestelakoetan. Alderdi horretatik, subjektu zabal, plural eta askotarikoa erakitzeak ahalegin berezia eskatzen du berdintasunik ezari –gutxi asko jakinei, gutxi asko agerikoei– hautemateko eta horiek gainditzeko, ezinbestekoa baita mendekotasun azpiratzaile oro gainditu nahi bada. Horrela, nazioarteko lankidetzak lehentasuna eman behar dio ahalmenak sendotzeari, azpiratze sistemen artikulazioari aurre egingo badio (kapitalismoa, patriarkatua, kolonialtasuna, produktibismoa, intentsitate apaleko demokrazia), mendekotasun eta asimetria global horien dimentsio anitzeko izaera kontuan hartuta.

Hirugarrenik, dimentsio internazionalistak azpimarratzen du emantzipazioa emantzipazio izango bada internazionalista behar duela izan, ezinbestean (Martínez, Casado, 2013). Gaur egungo krisiaren oinarrian dauden zibilizazio balioek (garapenaren ideia; ongizatea eta garapena, hazkunde ekonomiko kapitalistaren premisaren mende; ordezkari bidezko demokrazia liberala, formula politiko unibertsal gisa) definitzen duten gizarte-eredu planetarioa gainditu egin behar da arlo globaletik ere, lurraldeak, eragileak, subjektuak eta agendak artikulatuz. Ildo horretatik, elkartasun internazionalista ezinbesteko baldintza da prozesu emantzipatzaile orotan, eta halaber da EIAA agendaren printzipio sendoenetako bat. Nolanahi ere, agendak proposatzen duen internazionalismoa lankidetzak bere gain hartu ohi duen nazioarteko ikuspegitik harago doa, honako bi alderdi hauetatik, bederen:

1. Mendekotasun eta asimetria globalen arabera definitu behar dira logika internazionalak, eta ez Iparra-Hegoa dikotomiaren arabera. Hala, nazioarteko lankidetzak ikuspegi zabalagoa hartu beharko luke aliantzei buruz, garatua-garatzeko bidean dagoena dikotomiara mugatu gabe, beste era batzuetako aliantzak konfiguratzeko, proposatutako helburu politikoen harira. Bide horri jarraituz, nazioarteko lankidetzak Iparra-Iparra, Hegoa-Hegoa, Iparra-Hegoa-Hegoa prozesuak sustatu ahal izango lituzke, besteak beste, baldin eta onartuko balitz horrela

eraginkortasun handiagoa lortu ahal izango dela mendekotasun eta asimetria globalak murrizteko.

2. Iparra-Hegoa dikotomian oinarrituriko garapenerako lankidetzaren (GL) eta garapenerako hezkuntzaren (GH) arteko bereizketa birformulatu behar da, subjektuak sendotzeari eta haien aliantzari lehentasuna emango dien jarduera arlo bakar bat eraikitzeke, zeinetan elkarreraginean jardungo baitute nazioarteko askotariko jatorrietako eragileek, proposamena sustatzen duen lurraldekoak barne harturik, betiere. Hala, EIAA agendaren arabera, hemengo eta hango eragileak eta dinamikak artikulatzeko espazioa da nazioarteko lankidetzeta, eta bertan eginkizun estrategikoa du hezkuntzaren, prestakuntzaren eta kontzientziaren bektoreak.

Azkenik, dimentsio herritarrak adierazten du EIAA agendak lehentasuna ematen diela gehiengo herritarren interes, begirada eta proposamenak aintzat hartzeari. Lehen esan dugunez, pobrezia ez da helburua; aldiz, historikoki baztertu, azpiratu edo/eta esplotatuta egon diren gizarte-sektoreen begirada, bizitza duin bat bizitzeko inolako pribilegiarik edo abantailarik ez dutenena, alderdi herritarra, mundua interpretatzeko eta eraldatzeko begirada espezifiko bat da. Hortik abiatuta, eragile estrategikoen partaidetza eta mobilizazio aktibo eta kalitatezkoaren aldeko konpromisoa hartzen du EIAA agendak, bere gain harturik eragile horien aniztasuna; eta halaxe behar du izan, ezinbestean, baldin eta helburutzat hartzen bada subjektu zabal, plural eta askotarikoa eraikitzeke prozesua ahalbidetzea. Hala, nazioarteko lankidetzarako ezinbesteko baldintza da eragileak sendotzeko prozesuak laguntzea, haien partaidetza sustatuz eta metodologia egokiak erabiliz.

Labur esanda, lehen indar-ideiaren lau dimentsioek norik aldagaiaren erantzunak aukeratzeko analisi politikoa aldarrikatzen dute, eta mendekotasun eta asimetria globalak gehiengo herritarren begiradatik gainditzeko subjektu eta eragile estrategikoen artikulazioa –intersekzionala eta internazionalista– lehenesten duen tresna bihurtzen dute nazioarteko lankidetzeta.

EIAA agendaren bigarren indar-ideiari helduta, askotariko eragileen aliantzak lotura estua du lehen ideiarekin. Hain zuzen ere, helburua bada emantzipazio subjektu zabal, plural eta askotarikoa eraikitzea, ezinbestekoa izango da askotarikoen arteko aliantzaren bidez agenda alternatiboei bultzada ematea. Ez dago subjekturik bere kasa aldaketa sor dezakeenik, eta, beraz, aliantza ez da nahi edo borondate bat, premia bat baizik.

Zoritzarrez, aliantzaren logika ez da gaur egungo nazioarteko lankidetzeta definitzen duten ezaugarrietako bat. Emaile-hartzaile eskeman oinarrituta jarraitzen du, laguntza kate bertikalean oinarrituta, zeinetan oso modu asimetrikoan banatzen baitira erantzukizunak eta botereak. Horrek atxikita dakartza mesfidantzazko dinamikak, konpromisoak eta arriskuak ez partekatzea, baita murrizketa teknokratikoa ere, eragileen arteko erlazioetan (Martínez, 2011).

EIAA agendak honako proposamen hauek planteatzen ditu egoera hori iraultzeko:

5. irudia. Askotarikoen arteko aliantza



Iturria: Lan honen egileek sortua.

1. Modu kategorikoan lehenestea askotariko eragileen (gizarte-mugimenduak, GGKEak, unibertsitate eta ezagutza zentroak, bestelako gizarte-erakunde batzuk, instituzioak, etab.) partaidetza duten nazioarteko elkartasuneko ekimenak, zeinetan parte hartzen baitute eragile bakoitzak bere nortasun eta ezaugarrien ekarpena eginez, agenda komunak sortzeko.

Puntu honetan, bereziki azpimarratu nahi dugu EIAA agendan GGKE-ei aitortzen zaien egitekoa. Ikuspegi kritikotik azter daitezkeen arren, EIAA agendak garrantzi handia aitortzen die, kontuan harturik beren

- ibilbidean ahalmen jakin batzuk metatu dituztela. Horrek aukera ematen du gizarte-mugimenduek eta GGKE-ek konfiantzazko dinamiketan lankidetzan jarduteko (Fernández, Piris, Ramiro, 2014); dinamika horietan, GGKE-ek esperientzia internazionalista, eragiteko ahalmena eta lobbya ezar ditzakete ekarpen modura, baita informazio eta ikerketa prozesuak planifikatzen egindako ibilbidea ere, eta tresna teknikoak eta kudeaketa tresnak erabiltzeko trebetasuna, edo funtsetarako sarbidea, besteak beste (Piris eta del Río, 2014). Horregatik diogu EIAA agenda apustu osagarri bat dela, zeinetan parte hartzen baitute eta elkarrekin aliantzak eratzen baitituzte askotariko eragileek.
2. EIAA agendak espazio eratzailen eraikuntza defendatzen du, eragileek –instituzionalek eta sozialek– aukera izan dezaten nazioarteko elkartasunari buruzko ikuspegi zabal bati atxikitako auzi estrategikoen gaineko erabakiak hartzeko, funts publikoak kudeatzetik harago. Laguntza katearen gaur egungo asimetria eta emaile-hartzaile logika teknokratikoa haustea litzateke gakoa, eta elkarrizketa politikorako espazioak bilatzea, deliberaziorako ez ezik, analisi politikoak, lehentasunen definizioa, ebaluazio jarraitua, kontu emate elkarrekiko, integral eta anitza (Ayuso eta Cascante, 2009), politiken koherentziaren gaineko eragina eta gako emantzipatzaile eta internazionalistetan oinarrituriko komunikazioa katalizatzeke baizik.
 3. EIAA agendak planteatzen du ezinezkoa dela elkartasun internazionalistaren finantzaketa borondatezkoa eta arbitrarioa izatea, baldin eta aliantzak ahalbidetu nahi badira, behintzat. Hala, konpromiso publiko, egonkor eta sendoak finkatzea proposatzen du, sustatu nahi denaren moduko ekimen handinahi bati heltzeko. Ildo horretatik, orobat dei egiten du ordainarazpenezko finantzaketa edo finantza exaktiboko moldeak jorratzeko¹⁰, zergen bidez ere finantzatu ahal izan daitezen nazioarteko politika publiko horiek.
 4. Azkenik, EIAA agendak nazioarteko lankidetzaren inplementatzeko sistema hegemonikoaren berrazterketa erradikal bat planteatzen du, sistema horrek aliantzak garatzea eragozten duen heinean. Lehen esan dugunez, gaur egungo logika prozesu emantzipatzaileen errealitatetik at dago, eta eragileen arteko erlazioaren izaera teknokratikoa eta fiskalizatzailea azpimarratzen du; hortaz, goitik behera aldatu beharko lirake nazioarteko elkartasuna praktikan jartzeko moldeak.

10 Zerga sistemen araberrako finantzaketan oinarrituak.

Puntu honen laburpen modura, subjektu eta eragile estrategikoak sendotu, artikulatu eta horien arteko aliantzak eratzearen garrantzia nabarmentzen du EIAA agendak, eta aldaketa adierazgarriak proposatzen ditu orain artean nazioarteko lankidetzeta ulertzen zen moduari buruz:

1. Erreferentzia esparrua aldatu egiten da, pobreziatik mendekotasun eta asimetria globaletara, eta zabaldu egingo da jardueren tipologia, askotariko eragileen sendotzea eta aliantza modura har litekeen guztira.
2. Prozesu emantzipatzaileen berezko ezaugarriak barne hartzen dira (konplexutasuna, ziurgabetasuna, dibertsitatea, dimentsio aniztasuna, subjektuaren garrantzia, prozesu izaera), nazioarteko lankidetzaren berezkozat harturik horiek ere.
3. Subjektu eta eragile estrategikoenak sendotzera biltzen dira ahaleginak, eta horien alboan eraikitzen dira zer eta nola aldagaiak, elkarrizketa politikorako espazio eratzailletan.
4. Artikulazioa lehenesten da, bai maila interseksionalean, eragile, agenda eta borroka askotariko eta elkarren osagarrien artean, bai nazioartean, Iparra-Hegoa dikotomia gainditzeko eta elkartasun internazionalista ikuspegi zabalago batetik ulertzeko apustuaren baitan.
5. Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren arteko muga ezabatzea proposatzen da, eragileak sendotzean oinarrituko den esparru bakar batera jotzeko (Celorio, 2013:245).
6. Askotariko eragileen arteko aliantza azpimarratzen da erlazio formula modura, aliantza horiek ahalbidetuko dituzten implementazio sistema berrietatik abiatuta.

1. koadroa. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboaren proposamenen laburpena

Mendekotasun eta asimetria globalak murriztea, erreferentzia esparru gisa

Prozesu emantzipatzaileen ezaugarriak barne hartzea

Subjektu eta eragile estrategikoak sendotzeari lehentasuna ematea

Artikulazio intersekzional eta internazionalista sustatzea

Teorian eta praktikan Iparra-Hegoa bereizketa
gainditzeko duen internazionalismoa

Aliantza, askotariko subjektuen eta eragileen arteko
erlazio dinamika gisa

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Horixe da, beraz, gure agenda proposamena, gizarte-mugimenduen ikuspegitik sortua: nazioarteko lankidetzak ulertzeko ikuspegi alternatibo bat, emantzipazioa giltzarri harturik lankidetzak berrasmatzeko oinarri berri batzuk.

2. Euskal lankidetzak deszentralizatuaren aldeko apustua

Lankidetzak deszentralizatuak, ikerketa prozesuaren fase honetan EIAA agenda inplementatzeko lehenetsitako tipologia, identitate krisi sakon batean murgilduta dago gaur egun, eta krisi horixe izango dugu aztergai atal honen lehen puntuan. Diagnostiko horretatik abiatuta, literatura espezializatu bat sortu da krisi hau gainditzeko bideak eskaintzeko borondatea duena eta lankidetzak deszentralizatuari buruzko erreferentzia esparru kritikoa eratzeko bidea eman duena. Esparru horretan kokatuko dugu, beraz, EIAA agenda –bigarren puntuan–, eta amaitzeko, euskal lankidetzaren berezitasunetara eramango dugu gure analisia –hirugarren puntuan–.

2.1. Lankidetzak deszentralizatuak: diagnostikoa eta erreferentzia esparru kritikoa

Lankidetzak deszentralizatuak da, ikerketa prozesu honi dagokionez, EIAA agendaren postulatuak garatzeko potentzialitate handiena duen nazioarteko lankidetzak tipologia. Hala, gure ustez EIAA agenda nazioarteko lankidetzak osorako den arren egokia eta bideragarria, iruditzen zaigu lankidetzak deszentralizatuak dela herritarrekiko harreman estuagoan oinarrituriko identitate espezifiko bat duena, eta hark dituela, halaber, interes geopolitiko

edo/eta ekonomikoek nazioarteko elkartasuneko politika publikoak baldintza ditzaten saihesteko baldintza mesedegarrietakoak ere¹¹.

Premisa horretatik abiatuta, gaur egungo nazioarteko lankidetzeta deszentralizatua-
ren potentzialitateak eta ahultasunak aztertuko ditugu, noiz eta, nazioar-
teko lankidetzeta osoa bezala, lankidetzeta deszentralizatua identitate krisi sakon
batean murgilduta dagoen unean. Krisi integralaz mintzo gara, beraz, eta,
EIAA agenda agertzen da krisiari aurre egiteko helburu, eragile eta bitarte-
koen berrazterketa kritikoan sakontzea planteatzen duten alternatiben artean,
besteren artean. Azken batean, lankidetzeta molde horren ikur berezigarriak eta
ahalmen emantzipatzailea sendotzea da gakoa, haren historiako alde positi-
boak berreskuratuz, positiboa izan ez dena aldatuz eta bide horretan aurrera
egitea ahalbidetuko duten ekarpen eta ikuspegi berriak txertatuz.

Begirada kritiko eta propositibo horretatik abiatuta, literatura espezializatu
nahiko sortu da, eta lan horiek bat datoz lankidetzeta deszentralizatuko politika
publikoari buruzko diagnostikoaren puntu hauetan:

1. Politika subsidiarioa: lankidetzeta deszentralizatuak ez du argi eta garbi
aitortzen lurraldeek gaur egungo mundu globalizatuan eta elkarrekiko
mendekotasunean funtsezko zeregina dutela arazo globalei aurre
egiteko eta ongizate eta justizia helburuak lortzeko. Aitzitik: nazioarteko
lankidetzeta bigarren mailako politika publikotzat hartzen da oraindik,
oparaldi ekonomikoko garaietarako zerbait balitz bezala, eta ez lurralde
bakoitzak nazioarteko antolaketan dituen potentzialitateen analisi
politikotik eratorritako konpromiso solidarioaren neurri gisa. Alderdi
horretatik, 2008az geroztik atzeraldia sumatu da politikan, doktrinan
eta aurrekontuetan, ikuspegi subsidiario horren erakusgarri (Iborra,
Martínez Osés, Martínez, 2013).

2. Mendeko politika: lankidetzeta deszentralizatua, aurreko atalean esan-
dakotik abiatuta, nazioarteko garapenaren eta lankidetzeta agendaren ez-
tabaidak eta ikuspegiak modu akritikoan lekualdatzera mugatu ohi da.

11 Gure ustez, politika publiko guztia borondate politikoaren eta baldintza espezifikoen arteko tentsioaren emaitza da. Arrazoi hor dela medio irizten diogu EIAA agenda aplikagarria zaiola nazioarteko lankidetzaren tipologia orori. Hala ere, baldintza horiek zenbat eta arinagoak izan eta elkartasun desinteresatutik eta herritarrekiko harreman zuzenetik zenbat eta hurbilen egon, orduan eta ahalmen handiagoa izango da nolabaiteko borondate politikoa baliarazteko, eta horrexegatik egiten dugu lankidetzeta deszentralizatua-
ren aldeko apustua. Nolanahi ere, litekeena da, baldintza arinago horiek gorabehera, esperientzia batzuek ez izatea lankidetzeta eraldatzaileagoa garatzeko borondate politikorik.

- Hala, bere gain hartu ohi ditu eztabaida globaletatik ateratako proposamenak, baina lurralde bakoitzaren errealitatera eta lankidetzaren deszentralizatuaren tipologia espezifikoaren berezko idiosinkrasiara moldatzeko beharrezko azterketa eta egokitzapen kritikorik egin gabe. Horrela, geografia eremu zabalagoko beste lankidetzaren batzuen eskala txikiagoko erreplika bihurtzen da¹² (Gutierrez-Goiria, Villena, Malagón, 2012).
3. Loturarik gabeko politika: arestian aipatutako premisei jarraituz, lehentasunezko eragile batzuei (GGKEak eta bestelako instituzioak, nagusiki) banatzeko funtsak deialdi publikoen bidez kudeatzera mugatzen da lankidetzaren deszentralizatua, oro har. Horixe du zeregin nagusia –nork sustatzen duen, haren ikuspegi politikoan oinarrituta–, baina ez ditu kontuan hartzen –ez behar adinako garrantziaz, behintzat– helburu estrategiko eta zabalagoak, hala nola, administrazioan eta lurraldean balio emantzipatzaile eta internazionalista jakin batzuk finkatzea, elkarrizketa politikoaren bidez eta askotariko eragileekin aliantzak eratuz (Iborra, Martínez Osés, Martínez, 2013), gizarte-mugimenduekin, besteak beste (Martí, 2013).
 4. Planifikazioaren eta inplementazioaren arteko hutsartea: distantzia handia dago analisi politiko eta helburuen eta helburu horiek lortzeko bitarteko eta baliabideen artean, eta areagotzen ari da, gainera, gaur egungo egoeraren ondorioz. Hutsarte sakona dago parametro globaletatik eraikitako mendeko esparru teoriko eta politikoaren eta funts mugatu batzuen banaketan oinarrituriko lankidetzaren jardueraren artean. Hala, fikziozko planifikazio moduko bat da helburu politikoei lehentasuna ematea (Iborra, Martínez Osés, Martínez, 2013), esparru teorikoak aldatu arren bitarteko eta tresna berei eusten baitzaie, inertziaz.
 5. Proiektukako jarduna, inplementazio sistema gisa (Iborra, Martínez Osés, Martínez, 2013): Proiektua da bitarteko hegemonikoa, eta hartatik abiatuta eraikitzen da lankidetzaren deszentralizatua inplementatzeko funtsezko dinamika, eta horrek ondorio jakin batzuk dakartza. Lehenik, erlazioak ez dira eraikitzen elkarrizketa politikoaren inguruan, proiektuaren inguruan baizik, eta horrek alde biko erlazioetan sakontzea dakar –administrazioa eta diruz lagundutako entitatea–, emaila-hartzaile arteko asimetriaz, gainera. Bigarrenik, diruz lagundutako eta sustatutako ekimenen kopurua askoz ere handiagoa da horien parte diren eragileen

12 2015 ondoko agenda berriak –gaur egun, hari buruzko eztabaida egiten ari da– erronka berriak ekarriko ditu mendekotasunaren eta autonomiaren arteko tentsioari dagokionez.

analisi eta jarraipen ahalmena baino, eta nolabaiteko koordinazio falta eta bikoiztasuna dakar horrek (Alberdi, 2010). Hirugarrenik, proiektutik abiatuta sorturiko egitura tekniko, administratibo eta finantza arloko zorrotzaren eta, horrekin batera, elkarriaz politikorik ezaren eta ekimeneen jarraipen bateratua egiteko ezintasunaren eraginez, ikuspegi teknokratikoa eta ekimeneen banakako analisi bereizia nagusitzen dira.

6. Egitura administratibo publiko erreaktiboak eta gaizki hornituak: lankidetzeta deszentralizatuaren izaera subsidiarioa dela eta, administrazioen egiturek ez dute behar adina giza baliabide izaten arlo horretan jarduteko, eta, are gehiago, ez dute izaten elkartasun internazionalistaren erronkei behar bezala aurre egiteko ahalmen nahikorik (Alberdi, 2010). Hala, *proiektukako jardunari* atxikitako ekimeneen barreiadura eta teknokrazia direla eta, administrazioek eginkizun erreaktiboa, administrazio eta kontrol zereginetan oinarritua betetzen dute, funtsean.

2. koadroa. Lankidetzeta deszentralizatuaren diagnostiko kritikoa

Politika subsidiarioa

Mendeko politika

Loturarik gabeko politika

Plangintzaren eta inplementazioaren arteko hutsartea

Proiektukako jarduna, inplementazio sistema gisa

Egitura administratibo erreaktiboak eta gaizki hornituak

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Diagnostikoan nabarmendu ditugun sei puntu kritiko horiek gorabehera, ordea, ezin ditugu alde batera utzi lankidetzeta deszentralizatuaren izan diren ekimen positibo eta jardunbide egoki ugariak. Aitzitik: hain zuzen ere, administrazio, GGKE eta gizarte-mugimenduen jarduera bateratuen aintzatespenak erakusten du lankidetzeta tipologia espezifiko horren ahalmen emantzipatzailea sendotzeko beharra. Hortaz, honela labur genezake gure analisia: prozesu interesgarri eta

beharrezko ugari sustatu dira, baina horiek orokortzeko erraztasunik ematen ez duen esparru batean; eta, hortaz, behar-beharrezkoa da esparru horren berrazterketa sakona egitea.


Hain zuzen ere, asmo horrek bultzatuta –alegia, lankidetzaz deszentralizatua berrasmaketa, haren nortasun ikurrak sendotuz baina haren potentzialitate emantzipatzailea areagotuko duen esparru batean–, hiru proposamen espezifiko eta elkarren osagarri hauek egin ditugu, aurreko analisi kritiko horretatik abiatuta:

1. Lankidetzaz politikaz jardun ordez, garapen politikaz jardutea¹³ (Iborra, Martínez Osés, Martínez, 2013). Hauxe proposatzen da: funts publiko batzuk banatzera eta kudeatzera mugatutako esparru batetik jauzi egitea giza garapena, iraunkortasuna eta bestelako erreferentzia emantzipatzaile batzuk oinarri dituzten agenda eta proposamenak tokiko nahiz nazioarteko esparruan kokatuko dituen politika batera. Aldaketa horrekin, gaur egun arte baztertuta edo behar bezain aintzat hartu gabe egon diren gaiak emango zaie lehentasuna, hala nola, politiken koherentziari, hezkuntza emantzipatzaileari (HE)¹⁴, komunikazioari, kontu emateari, etab.
2. Lehentasuna ematea askotariko eragileak elkarrizketa politikoaren bidez lurraldean artikulatzeari, logika lokal-global baten baitan (Fernández, 2006; Martínez 2012). Askotarikoen arteko elkarrizketa politiko horretan, erabateko protagonismoa izan behar luke gizarte zibil antolatuak –gizarte-mugimenduek, horren baitan– (Gutierrez-Goiria, Labaien, Sabalza, 2013). Horretarako, funtsezkoa litzateke administrazio publikoek zeregin aktiboagoa hartzea, hornidura hobea izatea eta ahalmen politikoko espazioak sustatzeko gaitasuna hartzea, baita lehen aipatutako gaietarako estrategiak lantzea ere.
3. Proiektukako jardunetik logika horizontalagora eta partaidetza sendoagoko logika batera jauzi egitea, eragileen arteko erlazioari eta nazioarteko lankidetzaren inplementazioari dagokienez, konfiantza eta elkarrekiko

13 Guri dagokigunez, lankidetzaz politikaren ordez emantzipazioarako politikaz jardungo genuke, zeinetan nabarmetzen baita nazioarteko elkartasunaren printzipioa. Nolanahi ere, egileek erabilitako garapenaren termino berari eutsi diogu, kontuan hartuta egile horiek GGiren ikuspegitik ulertzen dutela garapena. Gidaliburuan, bi terminologiak erabiliko ditugu.

14 Ikus glosarioa: hezkuntza emantzipatzailea.

erantzukizun partekatua oinarri harturik (Martínez 2012; Fernández, Piris, Ramiro, 2013; Gutiérrez-Goiria, Labaien, Sabalza, 2013).



Horiek dira lankidetzeta deszentralizatuaren ahalmen emantzipatzailea sendotzeko proposamen batzuk. Ikus dezagun, jarraian, ASSI agendaren aldeko apustuak zer-nolako eragina izan lezakeen helburu hori lortzeari begira, zehazki.

2.2. Lankidetzeta deszentralizatuaren esparru kritikoa eta elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa: korrelazio positiboa

EIAA agendak oso korrelazio altua du aurreko atalean azaldutako lankidetzeta deszentralizatuaren esparru kritikorekin; are gehiago: apustu estrategiko izan liteke hura sustatzeko¹⁵.

15 Gogoan izan: lankidetzeta politikatik garapen politikarako jauzia; askotariko eragileen arteko elkarrizketa politikoa; *proiektutako jardunetik* haragoko inplementazio sistemetakoko bidea egitea.

Hain zuzen ere, EIAA agendaren bi indar-ideiek –subjektuak sendotzea eta askotarikoen arteko aliantza– indartu, ahaldundu eta zabaldu egiten dute erreferentzia esparru kritiko hori sustatuko duen subjektu politikoa. Ildo horretatik, lehenik eta behin, gizarte-mugimenduen partaidetza aktibo eta kalitatezkoak indar korrelazio are mesedegarriagoa ekarriko luke nazioarteko lankidetzako funts publikoen kudeaketa eskusiboaren ikuspegi estua alde batera utzi eta printzipioak internazionalista eta emantzipatzaileak lurraldean kokatzeko beste ikuspegi handinahiago batera jauzi egiteko, askotariko eragileen artikulazioa sustatuz espazio eratzailuetan –edo, gutxienez, elkarrizketa politikorako espazioetan–.

Espiritu inkonformista, kritiko eta autonomoan oinarrituriko gizarte-mugimenduen ohiko dinamika politikoek –agendak, estrategiak eta antolaketa kulturak– gainditu egiten dute lankidetzaren deszentralizatuaren ikuspegi hegemoniko estu hori, eta, hala, naturalagoa litzateke eztabaida politiko internazionalista jartzea politika publikoen muinean. Horrela, gizarte-mugimenduen bultzadarekin eta mobilizazioarekin, lehentasunezko ardatz gisa sendotasun handiagoa hartuko lukete hezkuntza emantzipatzaileak –adiera zabalean hartuta: ikerketa, eragin politikoa, artikulazioa, sentsibilizazioa, komunikazioa hezkuntza–, politiken koherentziak, planifikazioak, ebaluazioak, kontu emateak, etab.

Bigarrenik, EIAA agendak bereziki eragiten du artikulazio interseksionalean eta internazionalistan, eta ezaugarri estrategikoa da aldaketa proposamenaren oinarri gisa garatu nahi den askotarikoen arteko elkarrizketarako. Koherentzia, printzipio gisa, ez dagokio soilik lurraldeari, baizik eta esparru globalari, elkartasun internazionalistatzat hartzen denaren definizio berri bati jarraituz, aurreko atalean ikusi dugunez. Aldi berean, askotariko eragileen aitortza eta haien agenden eta borroken artikulazio interseksionala ezin hobeto egokitzen zaie askotarikoen arteko elkarrizketa politikoaren aldeko apustuari.

Azkenik, gizarte-mugimenduen agenda emantzipatzaileek eta antolaketa kulturek sortuko luketen eztabaidaren bidez, gainditu egingo litzateke *proiektukako jardunaren* esparrua, eta lankidetzaren deszentralizatuaren eraldaketa prozesuen ezaugarriak aintzat hartuta inplementatzeko formula berrietarako bidea egin ahal izango litzateke.

Azken batean, EIAA agenda ezin hobeto txertatzen da lankidetzaren deszentralizatuaren esparru kritikoan; are gehiago, funtsezko agenda da hura sustatu eta finkatzeko. Eta norabide horretan aurrera egiteko, hain zuzen ere, eta esparru horren hiru indar-ideiak erreferentzia hartuta, Espainiako

Estatuko gizarte-mugimenduen eta lankidetzeta deszentralizatuaren erlazioaren diagnostikoa egin genuen ikerketaren lehen fasean (Fernández, Piris, Ramiro, 2013b:137-183), eta diagnostiko horri esker hobeto ezagutu ahal izan dugu abiapuntua, baita non eta nola eragin beharko litzatekeen ere EIAA agenda inplementatzea planteatzeko garaian.

Lehen ondorio hauek atera dira azterketa integral horretatik, zeinak barne hartzen baititu esparru teoriko, lehenetsun, eragile, bitarteko eta esperientzia berritzaileak:

1. Giza Garapen Iraunkorra (GGI) da lankidetzeta deszentralizaturako erreferentzia esparrua, eta horrek aukera ematen du gizarte-mugimenduekin nolabait uztartzeko, ezaugarri komunak dituzten ikuspegiak partekatzen dituzten heinean. Aldiz, oro har, ez dira definitzen GGiren eta zibilizazio identitatearen ikur batzuen arteko kontraesanak (hala nola, hazkunde ekonomiko kapitalistari edo demokrazia formalari loturikoak). Hala, garapena baino esparru inklusiboagozat hartzen da GGI, baina galdu egiten du, praktikan, potentzialitate politikoa, ikuspegi alternatibo gisa.
2. Helburu nagusia pobreziaaren kontrako borrokan oinarritzen da –ez mendekotasun eta asimetria globalen kontrakoan–, zeharkako nahiz sektorekako interes bereziko lan ildo batzuetan oinarrituriko lehenetsunez jarraituz. Zeharlerroei dagokienez, teorian, aukera ematen dute gizarte-mugimenduekiko loturak eratzeko, atxikita duten apustu politikoari esker (generoa, partaidetza, giza eskubideak, iraunkortasun ekologikoa, etab.). Nolanahi ere, aukera horiek lausotu egiten dira praktikan, ez direlako modu estrategikoan hartzen, oro har, eta ez dutelako pisu espezifikorik, proposamenak barematzeko garaian. Sektorekako lerroei dagokienez, GGiren ustezko izaera integrala ez da eramaten nazioarteko lankidetzaren jardunera, eta garapen ekonomikoa eta oinarritzko gizarte-beharrak agertzen dira esparru hegemoniko gisa, gizarte-mugimenduekin uztarketa egiteko aukera hobea eman lezaketen beste batzuen kaltean. Azkenik, lan ildo horiek geografia eremu jakin batzuetan sustatzen dira, askotan adierazle makroekonomiko nazionalen arabera aukeratuak –bestelako irizpide politiko batzuen orde–. Gainera, ez da eskualdeko edo/eta maila globaleko jarduerarik, eta, hortaz, lankidetzeta deszentralizatuaren logika geografikoa ere urrundu egiten da, oro har, gizarte-mugimendu askoren jarduera arlotik.

3. Garapenerako hezkuntza ikur bereizgarria da nazioarteko lankidetzako bestelako tipologia batzuekiko. Horrek aukera ematen du, kasu honetan ere, gizarte-mugimenduekin lotura ezartzeko, sentsibilizazio, hezkuntza, eragin politiko, ikerketa, artikulazio eta komunikazio ekimenen bidez gizarte kritiko eta antolatu bat sortzeko asmoa duen espazioa den heinean. Apustu politikoa, ordea, erlatibizatu egiten da, Iparreko ekimenetara mugatzen baita hertsiki –ez dago GHrik Hego Globalean–, eta ez baitu islarik aurrekontuan (garapenerako lankidetzak baino askoz ere pisu txikiagoa du). Gainera, lehen aipatutako ekimen posibleen tipologia guztitik, sentsibilizazioak du hegemonia, eta, hala, oso jarduera espezifikoetara mugatzen da haren inpaktu potentziala.
4. Lehenetsuneko eragileak klasikoak dira, batik bat: GGKEak eta administrazio publikoak, eta, ondoren, sindikatuak eta unibertsitatea. Beste maila batean, azpimarratzekoak dira enpresa erakundeak ere. Azkenik, gizarte-mugimenduen aitortza ez da uniformea, eta ematen denean ere oso xumea da: erreferentzia generiko lausoen bidez baino ez dira aipatzen, gizarte zibil modura edo askotariko gizarte-erakundeen sailean. Eragileen arteko topaguneei dagokienez, ahalmen politiko urriko aholkularitza kontseiluak besterik ez dira izaten.
5. Inplementazio sistemak proiektuaren eta kontrol tekniko, ekonomiko eta administratiboa lehenesteko joera duten baldintza, bitarteko eta tresnen sare baten inguruan egituratzen dira. Sare horrek, aldi berean, dinamika endogamikoak sortzen ditu nolabaiteko eraginkortasuna aitortzen zaien eragileekin, subjektu askotariko eta estrategikoekin aliantzak ahalbidetu ordez, lurraldean nahiz nazioartean.
6. Azkenik, lankidetzaren deszentralizatuaren eta gizarte-mugimenduen arteko lotura jarduerak ikusten dira, molde askotakoak: lehenik, erlazio egonkorragoa sindikatu erakundeekin; bigarrenik, erakunde batzuek zuzeneko hitzarmenen bidez aliantzak eratzearen alde egindako apustua; hirugarrenik, GGKE-en eta gizarte-mugimenduen arteko erlazioa lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzako deialdietan. Kasu guztietan, mugimendu feminista, indigena eta nekazariaren lehenetsua nabarmentzen da.

3. koadroa. *Gizarte-mugimenduen eta lankidetzeta deszentralizatuaren diagnostikoa*

GGI hartzen da erreferentziatzat, baina ez behar adinako sakontasunaz eta konpromisoaz

Zeharlerroen eta sektorekako lerroen aldeko apustua pobrezia-erako borrokan, baina garapen politikorik gabe

GH, identitate ikur gisa, baina mendeko esparru modura, Hego Globaletik bereizita eta sentsibilizazioan oinarrituta

*GGKE*ak, instituzioak, sindikatu erakundeak eta enpresak lehentasunezko eragile gisa, ahalmen politikorik gabeko aholkularitza kontseiluetan

Inplementazio sistema teknokratikoak eta eraldaketa prozesuekiko loturarik gabeak

Jardunbide egokiak gizarte-mugimenduen, *GGKE*-en eta instituzioen arteko erlazioan

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Hori da, azken batean, EIAA agendaren eta lankidetzeta deszentralizatuaren arteko erlazioaren abiapuntua. Bereziki azpimarratu nahi dugu EIAA agenda inplementatzeko tipologia egokiena den arren, beharrezkoa dela lankidetzeta deszentralizatuaren berrazterketa integrala egitea, jarduera arlo hegemonikoa aldatzeko eta potentzial emantzipatzailea garatzeko, internazionalismo sendoa eta eragileen artikulazio politikoa garatzea eragozten duten oztopoak gaindituta eta gizarte-mugimenduek funtsezko eginkizuna betez. Ikus dezagun, jarraian, nola egokitzen zaion abiapuntu hori euskal lankidetzaren errealitateari.

2.3. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa eta euskal lankidetzeta: eredu komunak eta ezaugarri espezifikoak

Euskal lankidetzakeredu komunak ditu, orohar, lankidetzeta eszentralizatuarekin; baina, aldi berean, nortasun berezia ematen dioten ezaugarri bereizgarri jakin batzuk ere garatu ditu. Nortasun berezi horren jatorrian dago borondate politikoa; hain zuzen ere, nazioarteko lankidetzak beste lurralde batzuetan

baino pisu erlatibo handiagoa izan du, arlo politikoan eta aurrekontuetan. Era berean, aipatzekoa da lankidetzaren sortzaileagoa, askotarikoagoa eta eraldatzaileagoa sustatu dela. Kasu askotan, GGKEak izan dira eraldaketaren aldeko bultzada horren akuilu.

Jakina, lankidetzaren deszentralizatuko askotariko esperientziak daude Euskal Herrian, eta, hala, ez da erraza orokortzeak egitea. Nolanahi ere, gure ustez, proposa liteke gutxienez analisi esparru bat, badaezpadako erresalbuekin eta ñabardurak ñabardura, aukera emango diguna euskal lankidetzaren eredu komunak eta espezifikoa identifikatzeko. Horietan oinarrituta inplementatuko dugu EIAA agenda, eta horien bidez zehaztuko ditugu aurrez aurre ditugun erroak nagusiak.

Euskal lankidetzarako analisi esparru kritiko bat sortu dugu, honako hauek uztartuta: lankidetzaren deszentralizatuaren erreferentzia esparru kritikoaren hiru indar-ideiak; Espainiako Estatuko lankidetzaren deszentralizatuaren eta gizarte-mugimenduen arteko erlazioaren gaineko ikerketa prozesuaren aurreko fasean landutako analisia, espezifikoa; gure gaur egungo diagnostikotik eratorritako aukeratutako hiru entitateetarako gogoeta nagusiak (Piris eta del Río, 2014), euskal lankidetzaren gaineko literatura espezializatua (Alberdi, 2010; Rodríguez, 2012; Unceta, 2012, 2013b). Eta ondorio nagusi hauek atera ditugu esparru kritiko horretatik:

1. Lankidetzaren politikatik garapen politikara jauzi egiteari dagokionez:

- a. Nazioarteko lankidetzako euskal politika publikoa –beste lurralde batzuetan baino pisu erlatibo handiagoa izan arren– politika subsidiarioa da, eta balio politiko nahiko apala du. Are gehiago 2008ko finantzen arloko porrotarekin, batez bestekotik gorako murrizketak eragin baititu erakundeetan –Gipuzkoako instituzio nagusietan izan ezik, alegia, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Donostiako Udalean¹⁶.
- b. Euskal lankidetzak ere nazioarteko garapen eta lankidetzaren agendekiko mendekotasuna du. Hala ere, aitortu beharra dago kritika zorrotzagoak egin dizkiola mendekotasun egoera horri, eta ikuspegi, zeharlerro, geografia eremu eta eragileei buruz hegemoniko diren lehentasunekin talka egiten zuten hainbat proposamen sustatu dituela, gero ikusiko dugunez. Edonola ere, pisu handia izan dute agenda ofizialek (MGH, pobrezia, eraginkortasuna, etab.), eta ahalegin mugatuak eta uanean

¹⁶ Azpimarratzekoa da Gasteizko Udalaren kasua ere, azken urteetan nora ezean ibili bada ere.

unekoa baino ez dira egin agenda horiek euskal errealitatera egokitzeko, batez ere inplementazio sistemari dagokionez.

- c. Lankidetzeta politikaren eta gainerako politiken arteko loturarik eza begi bistakoa da, oro har¹⁷. Nazioarteko elkartasuna funts jakin batzuen kudeaketa soilarekin lotzen duen ikuspegi murriztailea indartzen du horrek.
- d. Plangintzan desoreka ikusten da alderdi estrategikoaren eta sustatu ohi den lankidetzeta jardueraren artean. Dena dela, nazioarteko lankidetzarako funts publikoak kudeatzeko joerari loturik bada ere, izan ditu elementu bereizgarri batzuk:
 - i. Helburu nagusia pobrezia izan da, baina egiturazko ikuspegitik hartuta batez ere, pobrezia arrazoietan eragiteari begira, haren ondorioak arintzeari begira baino gehiago. Horri esker, lankidetzeta irekiagoa izan da ikuspegi berriekiko eta ezohiko eragile eta sektoreekiko.
 - ii. Zeharlerroek pisu politiko handia dute, eta pisu hori agerian gelditzen da baremazio irizpideetan; hala, euskal lankidetzaren nortasun ikurretako bat dela esan liteke.
 - iii. Sektorekako lehentasunak finkatzea ez da elementu adierazgarria apustu politiko gisa. Nolanahi ere, ahalegina ikusten da lerro berriak txertatzeko –hala nola, emakumeen jabeakuntza, identitate kulturala, elikadura burujabetza, giza eskubideak, botere lokala, etab.– nahiz eta gero ez den ahalegin hori islatzen aurrekontuetan pisu handiz.
 - iv. Lehenespen geografikoak ez die beti eredu hegemonikoei jarraitu (errenta gutxieneko herrialdeak, giza garapen indize txikiagokoak), eta kontuan hartu izan dira bestelako irizpide politiko batzuk ere, hala nola, aliantzak eratzeak aukera, etab.
 - v. Garapenerako hezkuntza nortasun ikur bat da, baina pisu gutxiago du nazioarteko lankidetzak baino, eta garapenerako

17 Hala ere, badira udal logikatik zenbait instituzio artikulatzeko esperientziak ere Euskal Fondoaren eta udal jakin batzuen jarduerari loturik. Bestalde, tarteka urratsak egin dira Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren eta hezkuntzaren arteko erlazioan, baita herri-estrategien inguruan espazio komunak sortzeko ahaleginak ere. Gaur egun, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentiak (GLEA) lehentasuntzat dauka politiken koherentzia.

hezkuntzan ere sentsibilizazioa nabarmentzen da, beste alderdi batzuen gainetik. Edonola ere, ikuspegi irekiagoa izan da alderdi horiekiko, adibidez, ikerketarekiko, eragin politikoarekiko eta sareen bidezko artikulazioarekiko.

2. Elkarriketa politikoari eta askotariko eragileen artikulazioari dagokienez:

- e. Nazioarteko lankidetzari atxikitako administrazio publikoek ez dute izaten, oro har, lankidetzaren politikari berme osoz heltzeko behar adinako hornidurarik giza baliabideetan. Azken urteetan, aurrerapen jakingarriak egin dira, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA) abian jarrita, eta lan talde batzuk ere sustatu dira, hala nola Donostiako eta Gasteizko udaletan. Baina, hala ere, ez dago erlazio koherenterik giza baliabideen eta helburuen artean. Horrekin batera, talde horien ahalmen politikoak hobetzeko aukerak ikusten dira, errealitate globala eta lokala aztertzeari, horiei jarraipena egiteari eta horietan eragiteari dagokienez.
- f. Lehenetsuneko eragileen aitortzak lankidetzaren deszentralizatuan oro har duen oinarri bertsua du hemen (GGKEak, administrazioak, unibertsitateak, eta askotariko gizarte-erakundeak). Hala ere, bi puntu bereizgarri aipatu behar dira: alde batetik, enpresa erakundeak ez ditu eragileztat hartzen Garapenerako Lankidetzari buruzko Legeak (2007); eta, bestetik, gizarte-mugimenduak lehenetsuneko jotzen dira hainbat plangintza estrategikotan, udal, foru nahiz erkidegoko mailatan.
- g. Subjektuen artikulazio espazioak kontseiluak dira hemen ere, administrazioak bera eta GGKEak direla parte-hartzaile nagusiak. Espazio horiek ez dute garatzen, oro har, elkarriketa politikoko jarduerarik, baizik eta nazioarteko lankidetzarako funtsen plangintza, jarraipen eta ebaluazio jarduerak.

3. Inplementazio sistemei dagokienez:

- h. Puntu honetan, esan liteke *proiektukako jardunaren* logika eta horren inplikazio guztiak oro har garatzen diren modu berean garatzen direla euskal lankidetzaren deszentralizatuan, alde adierazgarririk gabe.
- i. Euskal lankidetzaren eta gizarte-mugimenduen arteko erlazio esperientzia ugari daude, bide askotatik garatuak: zuzeneko hitzarmenen bidezko

lankidetzeta, nekazari mugimenduekin, mugimendu feministarekin, mugimendu zapatistarekin, biztanle mugimenduekin, etab.; aliantzen bidezko lankidetzeta, GGKE-en eta gizarte-mugimenduen eta goian aipatutako mugimenduetako eragileen eta bestelakoen artean –adibidez, mugimendu indigena eta sindikala–.

4. Koadroa: Euskal lankidetzaren analisi esparru kritikoa

1. Lankidetzeta politikatik garapen politikarako jauzia	a. Politika subsidiarioa, baina pisu politiko eta aurrekontu pisu erlatibo handiagoa
	b. Mendeko politika, baina agenda ofizialekiko ahalmen kritikoa garatu da
	c. Loturarik gabeko politika, balio emantzipatzaileak posizionatzen eragin handirik ez
	d. Plangintzaren eta egikaritzearen arteko hutsartea, baina ikuspegi, lehentasun eta apustu eraldatzaileagoekin
2. Elkarriketa politikoa eta askotarikoen arteko artikulazioa	e. Helburuen eta administrazio publikoen giza ahalmenen bateratasunik eza
	f. Eragileen aniztasun zabalagoaren aitortza, gizarte-mugimenduak tarteko direla
	g. Aholkularitza kontseiluak topagune, funts espezifikoaren kudeaketaren logikari loturik
3. Inplementazio sistemak	h. <i>Proiektukako</i> jardunaren hegemonia
	i. Gizarte-mugimenduekiko artikulazio esperientzia eta prozesu gehiago

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Azken batean, egiaztatu dugu lankidetzaren deszentralizatuaren izaera emantzipatzailea sendotzeko erreferentzia esparru kritiko modura hartutako hiru apustuak egokiak direla euskal lankidetzari dagokionez ere. Hala ere, abiapuntua ez da bera: euskal lankidetzak pisu espezifikoko erlatibo handiagoa du; agenda ofizialekiko kritika ahalmen eta posizionamendu propio sendoagoa du; ez da saihesten lankidetzaren ikuspegi zabalago batera eta eragile berriak aitortzera jotzeko premiaren gaineko eztabaida; gizarte-mugimenduak aitortzen dira, eta horiekiko elkarlaneko esperientziak badaude; eta nolabaiteko profil politikoko lehentasunak definitzen dira, besteak beste garapenerako hezkuntza. Gako horietan oinarrituta, batik bat, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak erakunde adierazpen bat onartu zuen, euskal lankidetzarako erronka berriak ikuspegi eraldatzailetik sendotu eta planteatzeko borondatearekin (GLEK, 2012).

Abiapuntua, beraz, lankidetzaren deszentralizatuko beste esperientzia batzuetan baino hurbilago dago EIAA agendatik. Eta esparru horretan, eta, zehazki, ikerketa honetan aukeratutako hiru euskal administrazioen diagnostiko espezifikoa sortu da bigarren kapitulum aurkeztuko dugun proposamena.



II. Kapituluwa

Proposamena

Bigarren kapituluaren helburua da elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa (EIAA) Eusko Jaurlaritzaren Garpenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA), Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) eta Donostiako Udalaren (DU) politiketan inplementatzeko proposamen bat aditzera ematea. Horretarako, lehen kapituluaz azaldutako erreferentzia esparru kritikoa hartu dugun oinarri, baita ikerketa prozesuaren gaur egungo fasean egindako diagnostiko espezifiko ere¹⁸ (Piris eta del Río, 2014), zeinak erakusten baitigu hiru erakunde horietako bakoitzaren abiapuntua, borondatea, indarguneak eta ahultasunak, nazioarteko lankidetzaren gaineko ikuspegiari dagokionez.

Euskal lankidetzaren bereizgarria eraldaketaren logikatik indar handiz sustatu duten hiru administrazio publiko dira; are gehiago, gaur egun edo/eta azkenaldiko beren historian, esplizitatu egin dute gizarte-mugimenduak nazioarteko lankidetzako eragile gisa hartzearen aldeko apustua. Nolabaiteko borondate politikoa erakutsi dute –kasuaren arabera intentsitateaz, gero ikusiko dugunez–, eta badute esperientzia GGKE-en, gizarte-mugimenduen eta instituzioaren beraren arteko erlazioan, zeinak planteatzen baitu EIAA agenda inplementatzeko abiapuntu egokiagoa.

Nolanahi ere, hiru proposamen espezifikoak azaldu aurretik, proposamen horiek lantzeko aintzat hartu ditugun eredu orokorren berri emango dugu; hau da, EIAA agenda inplementatzeko trantsizio prozesuan parteka litzaketan aldaketa komun nagusien berri. Une honetan, gogoratu beharra dago euskal lankidetzak –eta, bereziki, ikerketa honetan aukeratutako entitateenak– ezaugarri bereizgarri jakin batzuk dituela, baina eredu orokor oso markatuak eta lankidetzaren deszentralizatuak oro har partekatuak, aurreko kapituluaz aztertu dugunez.

Ildo horretatik, esan liteke lurralde bakoitzaren lehentasunei eta baliabideei dagokienez alde nabarmenak dauden arren, badela lankidetzaren deszentralizatu ulertzeko ikuspegi klasiko bat, zeinetatik abiatuta definitu baita kolektiboki onartu eta esplizituki antzemateko moduko identitate bat¹⁹. Horiek horrela izanik, esperientzia espezifiko bakoitza kontuan hartuta, noski, aukera ikusten dugu ibilbide komun bat planteatzeko, ikuspegi klasiko horretatik EIAA agendaren oinarritzko parametroak biltzera iristeko, eta horretantxe ahaleginduko gara lehena atalean.

18 Aurrerago, kapitulu honen bigarren atalean, aukeratutako hiru administrazio publikoetako bakoitzaren diagnostikoaren sintesiaren berri emango dugu.

19 Jakina, aldeak daude, halaber, erkidegoko, probintziako eta udaleko lankidetzaren artean, ahalmen eta eskuduntzei dagokienez. Baina, hala ere, ñabardurak ñabardura eta salbuespenak salbuespen, badago lankidetzaren deszentralizatuaren funtzionamendu eredu komun bat finkatzeko aukera, gero egoera espezifiko bakoitzaren arabera moldatzeko moduan.

Hala, ezin esan liteke gure proposamena aukeratutako hiru euskal administrazioetara mugatua denik; aitzitik, lankidetza deszentralizatu guztira proiektatzen da, eta, horrela, inpaktu potentzial handiagoa lortzen du. Beraz, Gidaliburu hau baliagarria izan liteke, halaber, EIAA agenda inplementatzeko edo hartara jotzeko zer urrats egin daitezkeen jakin nahi lukeen edozein eragile instituzional edo sozial katalan, galiziar, andaluz nahiz estremaduratarrentzat, adibidez, bakoitzaren egoera espezifikora egokituta, betiere.

Has gaitezen, bada, eredu orokorrak ematen, eta itxi dezagun kapitulua ikerketa prozesuan lehenetsitako hiru instituzioetako bakoitzerako proposamen espezifikoekin.

1. Elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa inplementatzea: eredu orokorrak

EIAA agenda inplementatzeko trantsizioaren ardatza hauxe da, gure ustez: jauzia egitea ikuspegi klasikotik –zeinetan nabarmentzen baita lan ildoen bul-tzadaren nagusitasuna– subjektuen ikusmoldera –zeinetan lehenesten baitira ahalmen emantzipatzailea duten eragileen sendotzea eta aliantza–. Lehenik eta behin, aztertuko dugu zertan datzan eraldaketa nagusi hori, zeinari josten zaizkion aldaketa gutxi asko sakon guztiak, gizarte-mugimenduek lankidetza deszentralizatuan partaidetza aktiboa eta kalitatezkoa izan dezaten naturaltasunez onartzeari lotuak.


Ondoren, bigarren atalean, ikuspegi klasikotik subjektuen ikusmolderako jauzi horren balizko faseak azalduko ditugu. Esan dugunez, EIAA agenda-ren inplementazioa pixkanakako prozesu modura hartu behar da. Hau da, bo-rondate politikoaren, esperientziaren eta sormenaren arteko bilduma modura, potentzial emantzipatzaile handiagoko lankidetza batera eramango gaituena. Trantsizioaren bidea ez da lerro zuzen bat izango, beraz, ezta berehalako zer-bait ere, eta ez die ez ikusiarena egingo era honetako prozesu orok berezkoak dituzten konplexutasunari, aniztasunari eta ziurgabetasunari. Hiru etapa pro-posatzen ditugu –honela izendatuak: *lurra jorratzea, konplizitateak ereitea eta aliantzak ernatzea*, hurrenez hurren²⁰-, markatutako jomugara iristen la-gunduko digutenak, esperientzia espezifiko bakoitzaren egoeraren arabera.

20 Hiru etapek dute nekazaritzaren loturiko izena, lurrarekiko lotura adierazten duen izen bat. Euskal lankidetzak nekazarien mugimendurekin izandako erlazio estuagatik hartu da bide hori, baita izen horiek fase bakoitzaren ezaugarriak eta helburu nagusia azaltzeko ematen duten aukera grafiko eta bisualagatik ere.

Hain zuzen ere, proposatutako aldaketak ordenatzen eta ulertzen laguntzeko, alde batetik, eta aurrerapen hori aztertzen eta neurtzen laguntzeko, bestetik, sei helburu finkatuko ditugu, aurreko kapituluan formulatu dugun lankidetzaren deszentralizatuaren erreferentzia esparru kritikoari erantzuna eman diezaio-gun, maila teorikoenetik praktikoenera, hiru etapetako bakoitzerako balizko urratsak zehaztuz, modu sinple eta pedagogikoan.

1.1. Eraldaketa nagusia: ikuspegi klasikotik subjektuen ikuspegira

Potentzial emantzipatzaile handiagoa –eta gizarte-mugimenduen partaidetza aktibo eta kalitatezkoa– izango duen lankidetzaren deszentralizaturako bidea egiteko aldaketa esanguratsu eta askotarikoak gauzatu beharko dira. Nolanahi ere, guztiak daude begirada berri bati lotuta, politika publikoetan jardura internazionalista ulertzeko ikuspegi alternatibo bati lotuta. Ildo horretatik, aldaketa zehatz bakoitza eraldaketa nagusi honetatik abiatuta interpreta liteke: ikuspegi klasikotik subjektuetan oinarrituriko ikuspegirako aldaketa.



Jarraian, politika publikoa oro har biltzen duten hiru kategoriak oinarri harturik (erreferentzia esparrua eta lehentasunak; inplementazio sistemak; eragileen arteko erlazioa)²¹, azalduko dugu nola ezaugarritu ditugun bi ikuspegiak, horietako bakoitzak biltzen dituen alderdiak argi bereizteko moduan²².

5. koadroa. Ikuspegi klasikoaren analisi kategoriak

1. Erreferentzia esparrua eta lehentasunak	a. Erreferentzia esparrua
	b. Helburu nagusia
	c. Lehentasunak
	d. Arloak
2. Inplementazio sistemak	e. Finantzaketa
	f. Ekimenak sustatzeko dinamikak
	g. Bitartekoak
	h. Tresnak eta baldintzak

21 Hiru kategoria horiek zuzenean lotuta daude lankidetzeta deszentralizatuaren gure erreferentzia esparru kritikoko hiru indar-ideiekin. Horrela, lankidetzeta politikatik garapen politikarako aldaketak zuzeneko lotura du erreferentzia esparruarekin eta lehentasunekin; askotariko eragileen arteko elkarrizketa politikoaren aldeko apustuak zuzenean garamatza eragileen arteko erlazioen kategoriara; eta inplementazio sistemen kategoria bi kasuetan partekatzen da. Nolanahi ere, ordena ez da berdina; izan ere, ikuspegi klasikoan, garrantzi handiagoa ematen zaie inplementazio sistemei, eragileen arteko erlazioari baino. Aldiz, gero ikusiko dugunez, subjektuen ikuspegiaren xedea da egoera hori iraultzea, lankidetzeta deszentralizatuaren gure erreferentzia esparru kritikoarekin bat etorrira. Hala, subjektuen ikuspegian, hiru kategoriak bitara murrizten dira (erreferentzia esparrua eta lehentasunak, alde batetik; eta inplementazio sistema, bestetik), eragileen arteko erlazioa lehentasunen funtsezko osagaia baita, eta ez elementu berezia.

22 Jakina, puntu honetan, gogorazai beharra dago kontuan hartu behar dela Gidaliburuko proposamena ulertzeko esparru orokor bat finkatu nahi dugula, eta haren baitan alde handiak daudela eta izan litezkeela, lurralde bakoitzaren borondate politiko, eskuduntza, ezaugarri eta abarren arabera.

3. Eragileen
arteko erlazioa

i. Administrazio publikoen ahalmenak eta zeregina

j. Aitortza

k. Erlazioa

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Ikuspegi klasikoari helduta, eta lehen kategoriari dagokionez, ohiko erreferentzia esparrua giza garapen iraunkorra izaten da (GGI). Hala, garapena, oro har, hazkunde ekonomikotik harago doala ulertzen da, eta dimentsio soziala kontzeptu horren funtsezko osagai gisa ageri da²³. Adostasun horretatik abiatuta, alde handiak ikusten dira eta iraunkortasunaren eta giza garapenaren indar-ideiak benetan barne hartzeari dagokionez. Horren arabera zehazten dira, edo ez, GGIn eta hazkunde ekonomiko kapitalista nahiz irabazi xedea printzipio sendotzat hartzearen arteko kontraesanak (eta horren arabera jarduten da, konpromiso argiak hartuz); bilatzen dira, edo ez, bizimodu onaren edo feminismoaren tankerako beste ikuspegi emantzipatzaile batzuekiko loturak eta elkarriketa; eta kritikatzten edo onartzen dira nazioarteko garapen eta lankidetzeta agenda hegemonikoak.

Nolanahi ere, GGI erreferentzia esparru gisa hartuta finkatzen da helburu nagusia –oro har, pobreziaren kontrako borroka izaten da helburua²⁴–, lan ildo jakin batzuei lehentasuna emanez (sektorialak edo/eta zeharlerroak).

Lehentasunezko ildo horiei loturik, jarduera arloak zehazten dira: oro har, garapenerako lankidetzeta (GL) eta Ekimen Humanitarioa (EH)²⁵, Hegoan, eta garapenerako hezkuntza (GH) Iparrean (hobeto esanda, ez Iparralde osoan, baizik eta nazioarteko lankidetzeta politika sustatzen duen lurraldean).

23 Dena dela, giza garapenaren dimentsio aniztasuna dela eta, beste alderdi batzuk ere hartzen dira kontuan, adibidez, politikoa, kulturala, etab.; ez, hala ere, halako nagusitasunaz eta esperientzia bakoitzaren borondate politikoaren arabera, betiere.

24 Hegoan, nagusiki, Iparrean ere lan arlo bat badagoen arren, elkarrekiko mendekotasun asimetrikoaren logika batean.

25 Ikerketa honetan, alde batera utzi da Ekintza Humanitarioa (EH) ikerketa arlo gisa, izaera espezifikoa duelako eta erlazio handirik ez duelako gizarte-mugimenduekin –nahiz eta izan, baduen, zalantzarik gabe–. Hori dela eta, ikuspegi klasikoaren diagnostikoan baino ez dugu aipatzen, modu deskribatzailean, baina gerora ez da agertuko. Izatekotan, EHren eta subjektuen ikuspegiaren arteko erlazioa landu liteke, aurrera begira.

Leheneste logika hori (esparrua, helburua, arloak, ildoak) lankidetzeta deszentralizatuaren esperientzia guztiek partekatzen dute, oro har, pobrezia-aren kontzeptuari izaera gutxi asko egiturazkoa edo/eta dimentsio anitzekoa aitortu edo ez; sektorekako espezializazioa nabarmena izan edo ez; lehenespen geografikoa gutxi asko murriztailea izan; GHri sentsibilizazioaz harago balio espezifiko aitortu edo ez; eta nazioarteko lankidetzeta politika publiko sendotzat hartu –hala izateko, funtsen bolumenari eutsi beharko litzaioketnahiz, aitzitik, funtsak modu esponenzialean murriztu. Azken batean, funts ekonomiko jakin batzuetara mugatutako lehenespena da, baina, oro har, ez du planteatzen beste erronkarik, funts horien banaketa eraginkorraz harago.

Bigarren kategoriari dagokionez –inplementazio sistemak–, eredu komun batzuk ikusi dira lehentasun horiek praktikara eramateko garaian. Lehenik eta behin, nazioarteko lankidetzarako finantzaketa bat dator lankidetzeta politika subsidiario, mendeko eta loturarik gabekotzat hartzearekin. Hala, 2008ko finantza arloko porrotak agerian utzi du nazioarteko elkartasuna defendatzeko borondate politikorik eza, eta oso orokorra da batez bestearekiko murrizketa esponenzialak gertatzea aurrekontuetan.

Bigarrenik, askotariko ekimenak sustatzeko dinamika hegemonikoa proiektuen deialdi publikoa da –bai GLkoena, bai GHkoena, bai EHkoena–, eta deialdi horietara bideratzen dira banatzeko funts guztien %85-90, GL dela politikan eta aurrekontuetan pisu gehien duena (deialdietarako funtsen %90etik gora²⁶). Gainera, zuzeneko lankidetzarako partida bat izaten da, oro har funts horien %10-15 baino hartzen ez duena, nagusiki erakunde publiko edo/eta sozialekin lankidetzeta hitzarmenak sinatzeko, konkurrentziaren iragazkitik at.

Hirugarrenik, esan dugunez, proiektua da ohiko tresna. Oro har, epe laburrerako laguntza ekimenak dira (bat eta bi urte bitarte, nagusiki, nahiz eta badiren indarraldi luzeagoko esperientziak), aurrekontuetan pisu handirik gabeak (logika nagusietako bat baita ahalik eta jarduera gehien onartzea), eta rubro edo kontzeptu jakin eta mugatu batzuen arabekoak (zer arlori dagokion, gai jakin batzuk finantzatzen dira²⁷, baina, oro har, *egiteari* lotuago, *ahalmenak sendotzeari* baino).

26 2008-2013 aldirako datuak, Espainiako Estatuaren eta gizarte-mugimenduen lankidetzeta deszentralizatuaren arteko erlazioari buruzko diagnostikoan sartuak (Fernández, Piris, Ramiro, 2013b:137-183).

27 GLn, oro har: eraikinak, ekipoak, materiala, langileak, gaitzea, funtzionamendua. GHn, oro har: ekipoak, materiala, langileak, kontratazioak, bidaiak, egonaldiak, funtzionamendua.

Azkenik, laugarrenik, deialdietan parte hartzeko tresnak eta baldintzak lotuta daude *proiektukako jardunak* sortutako egitura teknokratikoarekin; esan dugunez, proiektuka jarduteak aldez aurretik esperientzia duten eragile batzuei soilik ematen die sarbidea; kausa-efektuaren logikan ordenatzen saiatzen da errealitate konplexua, itxarondako inpaktua zehaztasun handiz jakin nahian; irizpide tekniko eta erraz objektibatzeko modukoak barematzen ditu, ahalmen emantzipatzaileak baino gehiago; ekimenetako jarduera fiskalizatzen du ikuspegi administratibotik eta mesfidantza jarririk printzipio gisa; eta aldebiko harremanak sustatzen ditu, kontu emateko sistema elkarrekiko, anitz eta integralen ordez.

Hirugarren kategoriari dagokionez –eragileen arteko erlazioa–, hiru ezaugarri dira bereziki aipatzekoak. Lehena, administrazio publikoei zuzenean lotua da, eta honetan datza: administrazio publikoek ez dute izaten, oro har, behar adina giza baliabide, eta, are gehiago, ez dute izaten elkartasun internazionalistako politika bideratzeko ahalmenik, zentzu zabalean –analisi politiko globalari eta lokalari dagokionez horrek dakarren guztiarekin–. Gainera, gobernuko instantzia jakinetan kokatzen dira (atzerria, gizarte-politika, etab.), baina beste egitura batzuekiko atal iragazgaitzen modura dihardute, nagusiki beren funtsak kudeatzen bideratutako politikatzat hartzen dutelako.

Bigarren ezaugarria eragileen aitortzari dagokio; aurreko atalean esan dugunez, GGKEetara, instituzioetara, unibertsitatara eta, maila apalagoan, enpresa eta gizarte-mugimenduetara mugatzen da –gizarte-mugimenduak oso tarteka soilik sartzen dira jokoan, eta gizarte zibila moduko izendapen generikoen pean–.

Azkenik, hirugarren ezaugarriak eragile horien arteko erlazioari erreferentzia egiten dio. Aldebiko harreman tipologia bat sustatzen da (administrazioarekin, proiektu espezifikoen bidez), lankidetzak kontseiluen kasuan izan ezik, zeinak baitira kontsulta edo aholkularitza izaerako organoak, batik bat. Espazio horretan, topo egiten dute eragile aitortuek, baina nazioarteko lankidetzako funtsen kudeaketaren eta banaketaren gaineko informazioa eta deliberazioa lehenesten dira, eta ez elkarrizketa politiko lokal-globala.

6. koadroa. Ikuspegi klasikoaren ezaugarriak

1. Erreferentzia esparrua eta lehentasunak	a. Erreferentzia esparrua: giza garapen iraunkorra
	b. Helburu nagusia: pobrezia-aren kontrako borroka Hegoan
	c. Lehentasunak: zeharlerroak edo/eta sektorekako lerroak
	d. Arloak: GL, GH eta EH
2. Inplementazio sistemak	e. Finantzaketa: urria eta gainbehera, GL nagusi
	f. Ekimenak sustatzeko dinamikak: deialdien hegemonia, zuzeneko lankidetzarako partida txikiagoa
	g. Bitartekoak: proiektua
	h. Tresnak eta baldintzak: ikuspegi teknokratiko eta fiskalizatzailea, dinamika emantzipatzaileetatik at
3. Eragileen arteko erlazioa	i. Administrazio publikoak: hornidura kaskarra, atal iragazgaitzak
	j. Aitortza: instituzioak, GGKEak, unibertsitateak, enpresak. Gizarte-mugimenduak, azken tokian
	k. Erlazioa: proiektuaren inguruko alde biko harremana, aholkularitza kontseiluez gainera

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Azken batean, esan liteke ikuspegi klasikoaren oinarrian dagoen nazioarteko lankidetzaren asmoa dela Hegoaldeko herrialdeetako pobrezia-aren kontrako borroka gauzatzeko, lan ildo jakin batzuk (sektorialak edo/eta zeharlerroak) finantzatzera bideratutako funts publikoak kudeatuz. Aldi berean, ikuspegi klasikoak eraginkortasuna, berehalako emaitzak, ziurtasuna, epe laburra eta dinamika lokalen eta nazioartekoaren arteko bereizketa lehenesten duen garapenaren ikuspegi bat darabil, eta, hortik eratorrita, ikuspegi teknokratiko eta iragazkaitz baten pean garatzen du lankidetzeta jardura (tresnak, bitartekoak, erlazioak). Bi alderdi horiek bultzatuta (alde batetik, zer aldagaiari

lehentasuna ematea, lan ildoka aritzea; bestetik, garapenaren ikuspegi ez oso emantzipatzailea eta errealista), azken mailan gelditzen dira *nork* galdera, lehentasunezko eragileak eta subjektuak. Eta, azkenik, aurretik ezarritako lehenespenetara eta inplementazio dinamika hegemonikoetara egokitzeko ahalmen handiena dutenak izaten dira lehentasunezko eragileak, baina horrek ez du nahitaez esan nahi ahalmen emantzipatzaile handienekoak direnik.

Horrek erakusten duenez, bada lehentasunak-inplementazioa-eragileak logika bat (kategoria bakoitzaren garrantzia adierazten du horien arteko ordenak) entitate mota jakin bat aukeratzen ari da, inplizituki, eta gainerakoak behartzen ditu aipatu berri ditugun dinamiketara egokitzera –edo, gutxienez, horiek gaintitzera–, baldin eta nazioarteko lankidetzan parte hartu nahi badute. Hala, garapenerako lankidetzaren deszentralizatuak kutsu endogamikoa, subsidiarioa eta loturarik gabekoa hartzen du; eta horixe da, hain zuzen ere, subjektuen ikuspegiak, EIAA agendaren apustu nagusiak, irauli nahi duena.

Horretarako, ardatza *zer* aldagaian jarri ordez, *nork* aldagaira aldatu beharra dago; *zer* egiten dugun lehenetsi ordez, *nork* sendotzen duen eta *norekin* artikulatzen garen, lehentasunezko eragileak eta subjektuak hautatutakoan elkarrekin adostu ditzagun *zer* guztiak (lehentasun estrategikoak) eta *nola* guztiak. Horrela, lankidetzaren izango da da subjektu eta eragileei egokitzen zaiena, eta ez alderantziz, ikuspegi klasikoan gertatzen den moduan.

Ildo horretatik, erreferentzia esparrua eta lehentasunak-inplementazioa-eragileak dinamikak elementu bat galduko luke, eta erreferentzia esparrua eta lehentasunak-inplementazioa soilik geldituko liriteke, eragileak lehentasunen osagai funtsezko modura harturik, eta ez kategoriatan bereizi eta garrantzi gutxiko modura. Bi kategoriatan horien arabera ezaugarrituko dugu, beraz, hain zuzen ere, ikuspegi alternatibo hau.

7. koadroa. Subjektuen ikuspegiaren analisi kategoriak

1. Erreferentzia esparrua eta lehentasunak	a. Erreferentzia esparrua
	b. Helburu nagusia
	c. Lehentasunak
	d. Administrazio publikoak
	e. Eragileen arteko erlazioa
	f. Arloak
2. Inplementazio sistemak	g. Finantzaketa
	h. Ekimenak sustatzeko dinamikak
	i. Bitartekoak
	j. Tresnak eta baldintzak

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Lehen kategoriari dagokionez, subjektuen ikuspegiak giza garapen iraunkorra har lezake erreferentzia esparru gisa, edo, bestela, ikerketaren lehen fasean definitu dugun eta gaur egungo *statu quo*aren alternatibak argi eta garbi definitzen duen emantzipazioaren bideari heldu (bizitzaren iraunkortasuna; aniztasunaren artikulazioa eta aitortza; partaidetza bidezko demokrazia; kolektibotasunaren eta komunitatearen defentsa; egunerokotasunaren politizazioa; modernitate kapitalistaren logika kolonial, patriarkal eta desgarrollistekiko konfrontazioa) (Fernández, Piris eta Ramiro, 2013:47-55). Bi ikuspegiak dituzte puntu komunak, oso esanguratsuak gainera—desberdintasunak ere badituzten arren— (Fernández, Piris eta Ramiro, 2013:67-83).


Jakina, aukera emantzipatzaileak lehenetsiko genituzke erreferentzia esparrutzat, bereziki kontuan hartuta *garapena* hitzak atxikita duen karga historikoa. Hala ere, GGik lankidetzeta deszentralizatuan duen garrantziari dagokionez, gure ustez, GGI hori egokia bada, behar bezain sakona eta konprometitua bada, baliagarria izan liteke subjektuetan oinarrituriko ikuspegiarentzat. Edonola ere, apustu bat edo bestea egin, garrantzizkoena da argi definitzea erreferentzia esparru bakoitzari heltzeak dakartzan inplikazioak; konpromisoak

hartzea modu esplizituan adierazteko zer diren eta zer ez emantzipazioa (edo, hala badagokio, garapena) eta nazioarteko lankidetzaz; eta zehaztea agenda ofizialei dagokienez zer jarrera defendatuko den, eraldaketa gaketzat hartuta.

Bigarrenik, lankidetzaz deszentralizatuaren helburu nagusia zabaldu egingo litzateke, pobrezia esparru estutik harago, printzipio emantzipatzaile batzuk maila lokalean nahiz globalean posizionatzeko –horien artean, bereziki, elkartasun internazionalista–, mendekotasun eta asimetria globalak murrizteko ahalmena duten askotariko eragile estrategikoen aliantza politikoaren eta sendotzearen bidez.

Horrek aldaketa dakar, lankidetzaz deszentralizatuaren berezko espazio gisa pobrezia hartzen duen gaur egungo hegemoniatik harago, egiturazko alderdietan –mendekotasun eta asimetria globalak– eragiteko erronka handinahia planteatzen duen heinean. Horretarako, funtsezkoa da dimentsio politikoak garatzea, *nork* aldagaia nabarmenduz: diagnostiko eta eztabaida prozesu globalak eta lokalak irekitzea, subjektu zabal, plural eta askotarikoa eratzeko formularik onenari buruz; hortik abiatuta, ikuspegi lokal-globaletik ahalmen emantzipatzaile berezia duten subjektuak identifikatzea, subjektu askotariko horren konfigurazioan eta aktibazioan aurrera egiteko katalizatzaile modura jardun dezaten; eta, azkenik, logika lokal-globalean betiere, eragile adierazgarrienei hautematea, eraldaketa ahalmen, zilegitasun eta proiektzio internazionalista handiena dutenei hautematea, aliantzak eraikitzeke eta elkarrizketa politikoak ahalbidetzeko.

8. irudia. Subjektua, lehentasun gisa



Iturria: Lan honen egileek sortua.

Hala, lehenetsuneko subjektu eta eragile horiek nor diren zehaztea da lehenetsuna (lehen esan dugunez, gizarte-mugimenduak, lurraldeak, egitura instituzionalak, udal funtsak, unibertsitateak eta ezagutza zentroak, gizarte-erakundeak, etab. izan daitezke).

Horien sendotzearen eta artikulazioaren arabera sortuko dira balio eta printzipio emantzipatzaileak maila lokalean eta globalean posizionatzeko elkarrizketa politikorako espazioak, bereziki politiken koherentzian, hezkuntza emantzipatzailean nahiz plangintzan, ebaluazioan eta kontu ematean eragiteko.

Horretarako, bi baldintza hauek behar dira:

1. Egitura publikoen hornidura egokia, era horretako espazioak –bai nazioarteko elkartasunari berariaz atxikiak, bereziki, nahiz instituzio osoa, oro har– sortzeko ahalmena eta borondate politikoa izan dezaten.
2. Elkarrizketa eta artikulazio espazioak, ahalmen politikoa dutenak. Subjektuen eta eragileen azterketa egin ondoren, instituzio publikoek modu kolektiboan definitu eta eraiki beharko dituzte espazio batzuk zeinetan parte hartuko baitute gizarte-eragile eta eragile instituzional adierazgarrienek eta finkatutako helburuekin lotura estuena dutenek. Gainera, funtsezkoa da espazio horiek autonomiaz, boterez eta gaitasunez hornitzea.

Espazio horietan zehaztuko dira, hain zuzen ere, *zer*–lehenetsun estrategikoak– eta *nola* aldagaiak, horiek sustatzeko eta praktikara eramateko modurik egokiena.

Gako horiek finkatuta, ez da izango jarduera *arlotan* bereizirik, baizik eta arlo bakar bat, zeinak jardungo baitu EIAA agendaren bi indar-ideien mende (subjektuak sendotzearen dimentsio politikoa, intersektionala, internazionalista eta herritarra, alde batetik; eta subjektuen arteko aliantza, bestetik). Beraz, desagertu egingo litzateke GL eta GH arteko muga, Iparreko eta Hegoko jardueren arteko muga.

Lehenetsun horietatik abiatuta, eta bigarren analisi kategoriari helduz –inplementazio sistemak–, subjektuen ikuspegiak finantzaketa bide sendo eta egonkorra eskatzen du; bide horrek aukera emango luke konpromisoak planifikatzeko, aurrekontuaren arabera eta metodo osagarri modura hartuta ordainarazpena edo nazioarteko elkartasuna finantzatzeko beste formula batzuk.

Gainera, ikuspegi alternatibo horrek ekimenak sustatzeko dinamika sortuko luke deialdien²⁸ eta lankidetzazuzenaren bidez, eta lehentasunezko subjektuak sendotzearekin zuzenean loturiko jarduera modura finkatuko litzateke lankidetzazuzena (funts banagarrien %10-30 bideratuko litzateke horretara, kasuaren arabera).

Aldi berean, konkurrentziaren esparruan, funts gehienak arlo bakar batera bideratuko lirateke, *elkartasun internazionalistako ekimenak* sustatzeko bitarteko bakar baten bidez (EIAA agendaren parametroak bere gain hartuko litzuzkeena). Barne hartuko luke subjektuak sendotzea eta horien aliantza mesede lezakeen oro; epe ertain eta luzera proiektatuko litzateke –4 urteko prozesuak, gutxienez–, eta aurrekontu bolumen handia izango luke, askotariko eragileen partaidetzaz errazteko, alde batetik, eta prozesuen jarraipen eta ebaluazio politikoa egiten direlaz bermatzeko, bestetik.

Azkenik, tresnak eta baldintzak moldatu egingo lirateke emantzipazio prozesu ororen konplexutasun, ziurgabetasun, dibertsitate, dimentsio aniztasun eta prozesu izaerara. Hala, ahalegin berezia egingo litzateke identifikazio, diagnostiko eta egoeraren azterketaren faseaz laguntzeko; formulazioa erraztuko litzateke, profil eta galdetegi sinpleen bidez, ez nahitaez esparru logikoaren ikuspegiari loturik, jarduera askotarikoetarako askotariko metodologia posibleen sorta zabal bat erabil daitekeela onartuta (Piris eta del Río, 2014); emantzipazioaren ikuspegitik egindako ahalmenen baremazio bat lehentsiko litzateke²⁹; sinplifikatu egingo litzateke jarraipena, eta alderdi burokratikoak mugatu; prozesuen eta antolaketa ahalmenen ebaluazioan sakonduko litzateke; eta kontu emate elkarrekikoa, integrala eta anitza ahalbidetuko litzateke.

28 Ikerketa prozesuan, eztabaida ugari sortu dira deialdi publikoei buruz, eta horien bidez aliantzak sortzeko aukerari buruz, formula hori berez logika horretatik urrun dagoela baitirudi. Azkenik, erabaki da deialdiari eustea, sistema modura, baina abiapuntu harturik *nork* eta *zer* aldagaiak aldeaz aurretik erabakiko direlaz elkarriketa politikoko espazio kolektiboetan; bitartekoak hobeto egokitzen zaizkiela prozesu emantzipatzaileen ezaugarriei; eta badagoela ekimenen jarraipen politikoa egiteko ahalmena.

29 Trantsizio prozesuaren hiru etapaz azaltzeko, *Emantzipazioarako tresnak* taldeak proposatutako baremazio taularen bi ereduak emango ditugu, ikuspegi klasikoarena nahiz subjektuen ikuspegiarena, I. eta II. eranskinetan. Eztabaidaren abiapuntuan daude taula horiek, baina ez dute inola ere eztabaida hori ixten.

8. koadroa. Subjektuen ikuspegiaren ezaugarriak

1. Erreferentzia eta lehenetsunaren esparrua	a. Erreferentzia esparrua: emantzipazio aukerak, lehenetsuneko subjektuen ikuspegi edo <i>GGI</i>
	b. Helburu nagusia: mendekotasun eta asimetria globalak murriztea, balio emantzipatzaileak posizionatuz
	c. Lehenetsunak: subjektuen eta eragile estrategikoen sendotzea eta aliantza
	d. Administrazio publikoak: elkartasun internazionalistako estrategiak dinamizatzeko gai
	e. Eragileen erlazioa: ahalmen politikoko, lokaleko eta globaleko elkarriketa espazioak
	f. Arloak: elkartasun internazionalistaren arlo bakarra
2. Inplementazio sistemak	g. Finantzaketa: planifikatua, egonkorra, sendoa eta sortzailea
	h. Ekimenak sustatzeko dinamikak: deialdia gehi zuzeneko lankidetzaren
	i. Bitartekoak: elkartasun internazionalistako ekimena
	j. Tresnak eta baldintzak: emantzipatzaileak eta konfiantza, elkarrekiko erantzukizunean, arriskuak modu kolektiboan hartzean oinarrituak

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Lankidetzaren deszentralizatuaren erreferentzia esparru kritikoaren hiru indar-ideekin zuzenean bat egiten duen lankidetzaren deszentralizatu bat da, beraz. Lankidetzaren politikatik emantzipazio eta elkartasun internazionalistarako politikara jauzi egitea planteatzen du³⁰, eta funts jakin batzuk kudeatzea

30 Gure esparru teorikoarekin bat etorrira, ez gara hemen mintzo garapen politikaz, baizik eta emantzipazioa eta elkartasun internazionalistaz.

baino helburu handinahiagoak; askotariko eragileen arteko artikulazio eta elkarrizketa politikoaren premia planteatzen du, mendekotasun eta asimetria globalak murrizteko; eta implementazio dinamikak berraztertzea planteatzen du, azken buruko xedeekin koherenteak izan daitezen.


Hori guztia dela eta, jakina, gizarte-mugimenduen aldeko apustu garbia egiten da, gizarte-mugimenduak *sine qua non* baldintza baitira, bere burua berrasmatu eta ahalmen emantzipatzailea sendotu nahi duen lankidetzat batentzat.

1.2. Hiru etapa, gero eta intentsitate handiagokoak

Ikuspegi klasikotik subjektuen ikuspegirako aldaketak inplikazio nabarmenak ditu, lankidetzat deszentralizatuaren gaineko begirada aldatzeak eraldaketa sorta handi bat proposatzen baitu, eraldaketa gutxi asko sakon ugari, ikuspegi alternatibo horri atxikiak. Ildo horretatik, gure iradokizuna da *trantsizioaren* kontzeptua baliatzea erronka horri aurre egiteko: trantsizio bat zeinak ahalbidetuko baitu osotasunaren berrazterketa kritikoa, izaera emantzipatzailea duen hori finkatzea eta sendotzea eta izaera emantzipatzailea sendotzeko dinamika berriak sustatzea, gako alternatiboetatik. Eraldaketa horiek ezin jar daitezke praktikan egun batetik bestera, jakina; eta, hala, prozesu horien iraupena al-dakorra izaten da, abiapuntua zein den, baita prozesuak sustatzeko borondate eta ahalmen politikoa zenbaterainokoa den ere.

Premisa horietatik abiatuta, trantsizioa pedagogikoki erraztearren, hiru etapa posible planteatzen ditugu, gida modura baliagarri izango zaizkigunak. Hirurek markatzen dute intentsitate jakin bat egindako apustuan, aurreko atalean azaldutako eraldaketa nagusiak zedarrিতua, nagusiki. Alegia, ea lan ildo sektorial edo/eta zeharlerroen ikuspegiaren aldeko apustuari eusten zaion (*lurra jorratzea*), edo aurrera egiten den, parte batean edo erabat (*konplizitateak ereitea* eta *aliantzak ernatzea*, hurrenez hurren), subjektuak eta eragileak nabarmentzen diren ikuspegi baterantz. Azken batean, zer mailatan jotzen den *zer-nola-nork* lehenestetik *nork-zer-nola* lehenestera, horren arabera ezartzen dira etapak.

9. irudia. Trantsizio prozesuaren hiru etapak



Iturria: Lan honen egileek sortua.

Trantsizio prozesuari atxikitako aldaketa multzoaren logika hobeto ulertzeko, sei helburu formulatu ditugu, lankidetzeta deszentralizatuaren politikaren alderdi teoriko-praktiko osoa biltzen dutenak, erreferentzia esparrua eta lehentasunak kategorian eta inplementazio sistema kategorian ordenaturik. Aukera horren arrazoiak da azken buruko gure xedea –subjektuen ikuspegia– kategoria horiek definitzen dutela, ikusi dugunez, eta, beraz, halaxe gertatzen dela trantsizio prozesua markatzen duten helburuekin ere.

Lehen kategoriari dagokionez –erreferentzia esparrua eta lehentasunak–, hauek dira helburuak:

1. Lankidetzeta deszentralizatuaren jarduera arloa zabaltzea. Hain zuzen ere, erreferentzia aukera emantzipatzaileetara eta errealitatearen gaineko askotariko begiraden arteko elkarrizketara zabaltzea proposatzen da, eta pobrezia helburu nagusi gisa duen izaera egiturazkoago eta sistemikoagotik ateratzea, jarduteko eremu gisa mendekotasun eta asimetria globalak hartzerantz iristeko.
2. Emantzipazio subjektu eta eragile estrategikoak lehenestearen aldeko apustuan sakontzea. Hasieran, ikuspegi klasikoaren lehenespen eredu hegemonikoak eraldatzea litzateke ereduak berak ordezkatu gabe,

lerroen arabera –zeharlerroek funtsezko eginkizuna dutela–, eragile berriak txertatzeko, gizarte-mugimenduak horien artean. Aurrerago, lehentasunezko subjektu eta eragileen definizio estrategikoa landuko litzateke –lerroen logikarekin uztartuta–, eta aurrekontua, arloak eta bitarteko espezifikoak bideratuko lirateke horietara. Azken urratsean, subjektu eta eragileak sendotzen laguntzeko tresna gisa ulertutako lankidetzan sakonduko litzateke, begirada zabal eta inklusibo batez.

3. Elkarrizketa politikorako espazio zabal eta askotarikoak eratzea. Hauxe litzateke helburua: kontsulta edo aholkularitza espazioetan azterketa partekatua sustatzen duten lankidetzak eragile berrien aitortzatik aurrera egitea, askotariko eragileek parte hartuko duten elkarrizketa politikorako espazioak definitzeko³¹. Edonola ere, funtsezkoa da hornidura urriko egitura instituzionaletatik ahalmen politiko sendoak izango dituztenetara jotzea, espazio horiek gero eta kompetentzia gehiagoz hornitzen joateko.
4. Iparra-Hegoa dikotomia gainditzea jarduera arloetan. EIAA agenda elkartasun internazionalistako tresna modura ulertzen da: arazo globalei oinarri lokaletik aurre egin nahi die gainditutako eskemak hautsiz, hala nola, Iparra-Hegoa dikotomia. Horregatik proposatzen da jarduera arlo bakarrerako bidea egitea, GL eta GH arteko bereizketa gainditzeko. Logika horretan sakontzeko, estrategia bikoitza planteatzen da: alde batetik, pixkanaka GHren eta GLren pisua orekatzea aurrekontuetan; eta bestetik, haien mugak deuseztatzea, ikuspegi lokal-globala³² aplikatuz GLri nahiz GHri.

Dena dela, GL-GH arteko erlaziotik harago, subjektu eta eragile ez-klasiko berrientzako arlo espezifikoak sortzea edo sendotzea proposatzen da (gizarte-mugimenduak EIAA agendaren apustu ezinbesteko gisa harturik), konplizitateak sortzeko baldintzak erraztearren. Arlo horiek zuzeneko lankidetzan aurki litezke, eta baita haien identitate eta interesei zuzenean loturiko deialdietan ere³³.

31 Lehentasuna emanez politiken koherentziari, GHri, komunikazioari, plangintzari, ebaluazioari eta kontu emate elkarrekiko, anitz eta integralari.

32 Ikus glosarioan *ikuspegi lokal-globala*.

33 Aurrerago, *konplizitateak ereitea* etapa aztertzen dugunean, arlo berri horrekin zer adierazi nahi dugun azalduko dugu.

Bigarren kategoriari dagokionez, hauek dira helburuak:

5. Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea. Murrizketen aurreko ehunekoak berreskuratzeko helburua hartuko litzateke abiapuntu, aurrekontu osoaren %0,7ra iristeko, edo are urrunago. Gainera, konpromisoek planifikatuak eta egonkorrak beharko lukete izan, eta beste sistema batzuk –hala nola, ordainarazpen sistema– erabili haiek osatzeko, hala dagokionean.
6. Konfiantzan eta emantzipazio prozesuen ezaugarrietan oinarrituriko implementazio sistemak eraikitzea. Proiektu klasikotik nazioarteko elkartasuneko ekimenera aldatzea proposatzen da; bitarteko gisa ekimena hartzea; profiletan eta metodologia aniztasunean oinarrituriko formulazioan sakontzea; ahalmen emantzipatzaileak lehenesten dituzten baremazioak implementatzea; proiektuen ebaluaziotik prozesuen, eragileen ahalmenen eta helburu politikoaren ebaluaziorako aldaketa egitea; eta kontu emate anitz, integral eta elkarrekikoaren aldeko apustua egitea, gaur egun eragileen arteko erlazioak proiektuaren bidez hegemonizatzen dituen kontu emate aldebiko eta asimetrikoaren orde.

9. koadroa. Trantsiziorako helburuak

1. helburua	Lankidetzeta deszentralizatuaren jarduera arloa zabalitzea
2. helburua	Emantzipazio subjektu eta eragile estrategikoen aldeko apustuan aurrera egitea
3. helburua	Elkarrizketa politikorako espazio zabal eta askotarikoak sortzea
4. helburua	Iparra-Hegoa dikotomia gainditzea jarduera arloetan
5. helburua	Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea
6. helburua	Inplementazio sistemak eraikitzea, logika emantzipatzaileetatik eta konfiantzatik abiatuta

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Gure analisi esparrutik eratorritako sei helburuen arabera, etapa bakoitzaren ezaugarri nagusien berri emango dugu orain.

Hain zuzen ere, ikuspegi klasikoa abiapuntuko erreferentzia gisa hartuta, hauek dira hiru etapak, horietako bakoitza aurrekoa baino intentsitate handiagokoa:

10. irudia. Lurra jorratzea



Lurra jorratzea: hau da etapa honetako erronka nagusia: lan ildoen ikuspegiaren aldeko apustuari eutsi arren lankidetzaren deszentralizatuaren ikuspegi inklusiboagoa eta ezinbesteko eragileek modu aktiboan parte hartzea (gizarte-mugimenduek, besteak beste) eragozten duten murrizketak eta oztopoak deuseztatzea. Hala, *zer* aldagaiak lehentasunari eusten dio, baina ikuspegiak begirada sentiberagoa du *nork* eta *nola* aldagaiekiko. Azken batean, ikuspegi klasikoan gizarte-mugimenduen partaidetza zailtzen duten *belar txarrak* garbitzean datza, lurra prestatzea, aliantzak eriteko eta uzta oparoa biltzeko.

Gure trantsizioaren lehen helburuari dagokionez (lankidetzaren deszentralizatuaren jardura arloa), pobrezia kontrako borrokari eustea planteatzen da, helburu nagusi gisa, eta GGI, erreferentziazko ikuspegi gisa. Edonola ere, GGI nahiz pobrezia alderdi egiturazko, sistemiko eta konprometitu modura hartzea

da asmoa. Horrek esan nahi du, lehenik eta behin, nazioarteko garapen eta lankidetzako agenda ofizialen analisia garatzea, horien eta GGIren arteko balizko kontraesanei ihes egin gabe, eta, hortaz, konpromiso esplizituaren arabera jardutea. Bigarrenik, pobrezia gainera begirada zabaltzera behartzen du, dimentsio aniztasunetik. Eta, azkenik, prozesu emantzipatzaileen ezaugarriak esplizituki barne hartzeko premia azpimarratzen du: konplexutasuna, ziurgabetasuna, dibertsitatea, dimentsio aniztasuna, prozesu izaera eta subjektuaren nabarmentasuna.

Hortik abiatuta, bigarren helburuari helduz, lehentasunak lan ildoaren arabera definitzen dira, oraindik, baina, esan dugunez, apustu egiten da zeharlerroei oso pisu adierazgarria ematearen alde –alderdi sektorial edo geografikoen orde–, zeharlerro horien karga politikoa dela eta. Beste aukera batzuen artean, hauek dira garrantzizkoenak, gure ustez, eta estrategia espezifiko bidez garatu beharko lirake, deialdietako irizpide baztertzailerdo/eta baremagarri modura kokatzearekin batera:

- Genero ikuspegia
- Partaidetza
- Iraunkortasun ekologikoa
- Ikuspegi lokal-globala

Hala, *lurra jorratzea* etapak ez du bere gain hartzen subjektuen ikuspegia eta, horrenbestez, norik aldagaiak ez du oraindik zeregin adierazgarria. Edonola ere, hirugarren helburuari dagokionez –elkarrizketa politikorako espazio zabal eta askotarikoak–, fase honetan aurrera egin beharra dago gizarte-mugimenduen aitortza esplizituaren bidean –beste eragile batzuenaz gainera–, baita mugimendu horiek deliberazio espazio kolektiboetan txertatzeko bidean ere, nazioarteko lankidetzako funts publikoen jarraipenari loturikoez haragoko zereginenez horniturik espazio horiek. Horretarako, beharrezkoa da administrazio publikoen baitan bertan helburuak eta giza balia bideak doitzea, era horretako prozesuak susta ditzaten.

Laugarren helburuari loturik –Iparra-Hegoa dikotomia gainditzea–, GL eta GH arteko bereizketari eusten zaio, baina ahaleginak eginez horien arteko desberdintasunak eta asimetriak lausotzeko. Hala, alde batetik, proposatzen dugu garapenerako hezkuntzari pisu handiagoa ematea, estrategikoki nahiz aurrekontuetan (GHra bideratzen da funts banagarrien %30); bestetik, Iparra Hego Globalera hurbiltzea, lokala-globala zeharlerroaren alde apustu eginez, GLn nahiz GHn.

Azkenik, oraindik ez da planteatzen eragile ez-klasikoentzako arlo espezifikorik sortzea, eragile horiek zuzeneko lankidetzan lehenetsizat aitortzetik harago (instituzio-gizarte-mugimendu arteko erlazio esparru espezifikoa sendotuz).

Bosgarren helburuan, finantzaketa egonkor eta sendo bat proposatzen da, murrizketen aurretiko urteetako zenbateko absolutu eta erlatiboetara itzultze aldera (2009-2010).

Azkenik, seigarren helburuan, praktika emantzipatzailearen errealiterara egokituko den inplementazio sistema bat proposatzen da. Hauxe, zehazki:

- Proiektuek bolumen handiagoa eta indarraldi luzeagoa izatea, bereziki GHn;
- Identifikazio eta diagnostikoko faseari bultzada emateko ahalegin espezifikoa sakontzea;
- Profilak formulatzeko bidean aurrera egitea, metodologia posibleen ugaritasuna kontuan hartuta;
- Irizpide politiko eta estrategikoen lehentasunezko baremaziora jotzea³⁴;
- Txostenen kopurua murriztea eta txostenak eta ordainketak elkarretatik bereiztea; ordainketa bakarrak egin beharko lirake, proiektuaren hasieran. Justifikazio formula gisa aintzat hartzea egoitzan egindako ikuskaritza.
- Ebaluazioan sakontzea –zentzu zabalean–, prozesuen bizitza zikloko fase estrategiko gisa.

34 I. eranskinean adierazi da lan ildoetan oinarrituriko ikuspegiaren taula eredu, EIAA agendaren postulatuekin koherentzia gehiago duten irizpide berrietan oinarritua. Eredu hori esperientzia bakoitzaren ezaugarriei egokitu beharko litzaieke.

10. koadroa. Lurra jorratzea etaparen helburuak

1. helburua	GGI eta pobrezia ikuspegi egiturazko, sistemiko eta konprometitutik hartzea
2. helburua	Dimentsio politikoari lehentasuna ematea zeharlerroen aldeko apustuan
3. helburua	Elkarrizketa espazioak eragile berriei zabaltzea, gizarte-mugimenduei besteak beste
4. helburua	GHri pisu politiko eta aurrekontu pisu handiagoa ematea, eta GLrekiko mugak ezabatzea
5. helburua	Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea, murrizketen aurretiko mailan
6. helburua	Zama burokratikoa arintzea, eta jarduera emantzipatzaileira egokitzekeo prozesuan sakontzea

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Azken batean, gizarte-mugimenduak lankidetza eragile modura aitortzen dituen apustu bat da, eta bere ohiko logikak prozesu emantzipatzaileen logikei egokitzen dizkie, gutxienez, baina ahalegin berezia egin gabe ekintza kolektiborako molde estrategiko horrekin aliantzak sortzeko.

11. irudia. Konplizitateak ereitea



Konplizitateak ereitea: etapa honetan, lurra jorratuta dagoelarik, asmoa da eragile estrategikoen artean aliantzak eta elkarrizketa politikoa bideratzeko baldintzak ereitea. Horretarako, arlo, bitarteko eta tresna berriak sortuko dira, subjektuen ikuspegia oinarri hartuta jadanik, bide horretan aurrera egiteko. Ikuspegi klasikoko arlo, bitarteko eta tresna hegemonikoekin batera agertuko dira bitarteko eta tresna horiek, eta, hala, logika desberdinak baina elkarren osagarriak sortuko dira, nazioarteko elkartasunaren politikaren osotasunari eragiten dioten apustu estrategikoen eta aurrekontu apustuen baitan³⁵. Hala, aurreko etapan beste eragile batzuek parte har zezaten oztopoak jartzen baziren ere, *konplizitateak ereiteak* urrats bat gehiago egitea eskatzen du: ahalegin esplizitua eta proaktiboa egitea espazio politizatuetan topaketa sustatzeko, estrategia eta jarduera bateratuaren bidez konfiantzak eraikitzeko bidea emango duten formula berriak erabiliz.

Bigarren etaparen analisiari ekiteko, eta trantsizio prozesuaren lehen helburuari dagokionez, GGI izango da, orain ere, erreferentzia esparrua, baina kasuan kasuko lehentasunezko subjektu eta eragileen erreferente normatiboekin

³⁵ Asmoa da konplizitateak ereiteko etapan subjektu eta eragile jakin batzuk sendotzeko gutxieneko ehuneko bat finkatzea, politika publiko osoa estaliko lukeena, ez soilik subjektu horiei begirako arloak. Neurri horrek dei-efektua eragin lezake lan ildoan aldeko apustuari eusten dioten arloetan, eta horrek aukera emango luke aliantzak errazteko, adibidez, GGKE-en eta subjektu eta eragile horien artean. Gainera, aurrerapausoa litzateke politika publikoari oro har koherentzia emateko.

elkarrizketan jardungo du. Hortik abiatuta, helburu nagusiak pobrezia izateari utziko dio, eta mendekotasun eta asimetria globaletan eragileak hartuko du haren lekua, bereziki analisi global-lokalean estrategiko jotzen diren subjektuekin zuzeneko lotura duten alderdietan.


Oinarritzko esparrua finkatuta, eta bigarren helburuari helduta, bi motatako lehentasunak zehaztea eskatzen du *konplizitateak ereiteak*: alde batetik, zeharlerroen aldeko apustuari eusten zaio, aurreko etapan bezala; baina, bestetik, ahalmen emantzipatzaile handiagoko subjektuak eta eragileak hitzartzen dira, irizpide politikoak oinarri hartuta eta lurraldearen analisi lokal-globaletik abiatuta.

Lehentasun horien arabera, hirugarren helburuan, kontseiluetan biltzen dira orotariko eragileak (mugimenduak, GGKEak, instituzioak, unibertsitateak, etab.), aldez aurretik estrategikotzat hartutako subjektuei atxikiak. Elkarrizketa politikoak gero eta espazio zabalagoa hartzen du subjektu horientzat lehentasunezko diren auzietan –bereziki, politiken koherentzia, komunikazioan, plangintzan, ebaluazioan, kontu ematean–. Era horretako kontseiluak –alegia, handinahiagoak– dinamizatzeko, ordea, beharrezko langile, bitarteko eta gaitasunez hornitu beharko da administrazio publikoa.

Jarduera arloen laugarren helburuan, lehen aipatu dugun lehenespren bikoitzak arloen definizio bikoitza eskatuko du. Alde batetik, GL eta GHko deialdiek indarrean jarraituko dute, ikuspegi klasikoaren logikan, nahiz eta aurrerapausoak egingo diren batzuei eta besteei antzeko garrantzi politikoa eta aurrekontu garrantzia emateko –bataren eta bestearen arteko asimetria behin betiko deuseztatuz–. Bestetik, bi arlo espezifiko finkatuko dira eragile berrientzat, subjektuen ikuspegiarekin bat etorrira: batetik, zuzeneko lankidetzeta eta, bigarrenik, lankidetzeta deszentralizatuan eragile ez-klasikoak sendotzen eta horien artean aliantzak eratzen laguntzeko arlo espezifiko bat³⁶.

36 Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) xede hori betetzeko helburua duen arlo bat du (III. eranskina). Donostiako Udalak ere (DU) izan lezake ikuspegi horrekin loturiko arlo bat (*Donostia Munduen Artean*), gero ikusiko dugunez.

12. irudia. Konplizitateak ereitea. Arloak



Iturria: Lan honen egileek sortua.

Arlo berri horrek bereziki eragin behar luke eragile berri horientzat –batez ere, gizarte-mugimenduentzat– interes estrategikokoak diren auzietan. Edonola ere, EIAA agendaren indar-ideiekin bat etorrira, honako ekimen hauek biltzea proposatzen dugu guk:

- Kanpaina internazionalistak (ahalik eta gai gehienei buruz, baita politika publikoa sustatzen duen lurraldearen egoerari berari buruz ere);
- Gizarte-erakundeetako militanten aldi baterako egonaldiak (*hemendik harakoak*, eta alderantziz), agendak, estrategiak eta antolaketa kultura sendotzeko;
- Lurraldeko bertako erakundeek nazioarteko topaketa, foro eta sareetan parte hartzea, beren aliantzak sendotzearen;
- Ikerketak, ebaluazioak eta jardueren, prozesuen eta abarren sistematizazioa, gizarte-mugimenduak aitzindari direla.

Maila zehatzetik abiatuta konfiantzak eraikitzen joateko ekintzak dira, azken batean.

Bosgarren helburuari dagokionez, finantzaketak aurrekontuaren %0,7 hartu behar luke behingoz. Hortik abiatuta, ekimenak sustatzeko bi formulak eutsiko zaie –zuzeneko lankidetzaren eta deialdiak–, nahiz eta ez izan pisu bera lehentasunezko arlo guztietan (zuzeneko lankidetzaren, %10-20; GL eta GHko deialdiak, %75-80, biak maila berean; bitarteko berria, %5-10). Edonola ere, aurrekontuetan subjektu espezifikoak laguntzeko konpromisoak ezarriko dira politika publiko osorako, ikuspegi eta arloen bereizketatik harago, finkatutako apustu estrategikoari koherentzia emate aldera.

Azkenik, seigarren helburuan, inplementazio sistemari dagokionez, berrikuntza hauek dakartza *konplizitateak ereitea* etapak, aurreko etaparekiko:

- Proiektuak bitarteko gisa indarrean jarraituko luke GL eta GHko deialdietan, baina *elkartasun internazionalistako ekimena* erabiltzen hasiko da lehentasunezko subjektuekin zuzeneko lotura duten arloetan (zuzeneko lankidetzaren eta arlo espezifiko berria).
- Bereziki sakondu nahi da ekimenen jarraipen politikoa egiteko formulatan; lehentasun estrategikoak loturiko prozesu eta eragileen ebaluazioan; eta kontu emate anitz, integral eta elkarrekikoak ikertzen, betiere, kontseiluen esparruan, zeinak izango baitute gero eta ahalmen politiko handiagoa.

11. koadroa. Konplizitateak ereitea etaparen helburuak

1. helburua	Pobreziatik mendekotasun eta asimetria globaletara
2. helburua	Bi motatako lehentasunak: zeharlerroak eta subjektuak
3. helburua	Subjektu estrategikoen arteko elkarrizketa politikoa sendotzea
4. helburua	Arloen bikoiztasuna: alde batetik, GLK eta GHK antzeko pisua izatea, ikuspegi klasikoaren pean; bestetik, zuzeneko lankidetzeta eta eragile ez-klasikoak sendotzeko arlo berria, subjektuen ikuspegiaren pean
5. helburua	Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea, %0,7koa eta gutxienekoetakoa, subjektu estrategikoentzat
6. helburua	>Bitarteko berriak, ebaluzioaren eta kontu ematearen aldeko apustu estrategikoa

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Etapa honetan, beraz, aldatu egingo da eragileen arteko erlazioaren esparrua, eta eskua luzatuko zaie beste eragile batzuei, elkarrizketa politikoa sendotzeari begira, ez haien aitortzaren bidez, baizik eta konplizitateak sortzeko formula berrien bidez.

13. irudia. Aliantzak ernatzea



Aliantzak ernatzea: hirugarren etapan politika publiko osoaren sendotze eta aliantza logiketan oinarrituriko lankidetzaren ikuspegi bat definitzen eta finkatzen da. Aurrez ereindako guztiak etapa honetan ematen du fruitua, elkarrekiko eta askotariko konfiantza modura, eta elkarrizketa politikoa lehenesten da hura praktikan jartzeko gaitasuna duten espazioetan, balio emantzipatzaileak posizionatzeko moduan –elkartasun internazionalista horien artean–. Fase honen lehen ezaugarria da, beraz, subjektuen ikuspegia dela politika publikoa oro har planteatzeko esparrua. Hortaz, lan ildoak laguntzean oinarrituriko ikuspegi klasikoak behin betiko bide ematen dio ikuspegi alternatibo berri horri.

Trantsizio prozesuko sei helburuei berriro helduz, *aliantzak ernatzearen* erreferentzia esparrua hauxe litzateke: lehentasunezko subjektu eta eragileen begiradak hobekien adierazten dituenak. GGI izan liteke, edo ikerketa prozesuan proposatutako aukera emantzipatzaileak, edo, hala badagokio, subjektuen iruditeria eta interpretazio esparru espezifikoak. Hortik abiatuta, helburu nagusia izango da balio eta proposamen emantzipatzaileak –mendekotasun eta asimetria globalak murrizteko nolabaiteko eragina dutenak– posizionatzea, maila lokalean eta globalean.

Esparru horretatik abiatuta, *aliantzak ernatzeak* planteatzen du subjektuen eta eragile estrategikoen sendotzea eta aliantzak lantzearen aldeko behin betiko apustua egitea, bigarren helburu gisa. Horretarako, eragileak eta subjektuak aukeratzeko diagnostiko eta aukera prozesuak sustatu beharko dira –logika lokal-globaletik–, subjektu eta eragile horiek nazioarteko lankidetzaren ikus-

pegi berrian aurrera egitea ahalbidetuko duen elkarrizketa politikoa eraiki dezaten.

Hain zuzen ere, elkarrizketa politikorako espazioaz ari garela, hirugarren helburuari helduta, horixe izango da etapa honen strategiaren ardatzetako bat. Deliberazio eta kontsulta organo baten ordeztan, ahalmen politikoa duen organo bat proposatzen da, subjektu estrategikoei loturiko eragile lokal eta global esanguratsuenek osatua, horien aniztasun sozial eta instituzionala barne biltzen duela. Era horretako prozesuak sustatzeko ahalmena duen administrazio publiko baten eskutik, espazio horretatik lehentasuna emango litzaieke plangintzari –zer aldagaiak zehaztea–, politiken koherentziari, jarraipenari, ebaluazioari, kontu emateari eta komunikazioari, betiere elkartasun internazionalista giltzarri dela.

Lehentasunen ikuspegi horri jarraituz, laugarren helburuari dagokionez, ez luke zentzurik GHren eta GLren artean arloak bereizteak, eta, hortaz, desagertu egiten da bereizketa hori. Hala, EIAA agendaren bi indar-ideietan oinarritzen dira sustatutako ekimen guztiak, eta, hortaz, eragin espezifikoak izango dute subjektu eta eragile estrategikoen ahalmenak sendotzen –bereziki, haien balizko artikulazio internazionalista eta interseksionalean–, beste batzuekin aliatuta gai izango direlakoan gaur egungo zibilizazio krisiari aurre egiteko agendak, proposamenak eta prozesuak posizionatzeko.

Jakina, lankidetzaren deszentralizatuaren ikuspegi berri horrek finantzaketa sendoa eta egonkorra behar du. Bosgarren helburua, hortaz, %0,7tik harago iristea da, eta formula berriak ikertzea –ordainarazpeneko, adibidez–, finantzaketa formula gisa. Aurrekontuetako ahalegin espezifikoaren osagarri planteatzen dira beste bide horiek, egoera ekonomikoaren arabera dihardutenak, eta ez soilik borondate politikoaren arabera–. Bestalde, lehenetsitako subjektu bakoitzeko gutxieneko aurrekontuei eusten zaie.

Seigarren helburuari loturik, berrikuntza hauek dira aipatzekoak *konplizitateak ereitea* etapan:

- *Elkartasun internazionalistako ekimena* da prozesu eta arloak sustatzeko bitarteko bakarra.
- Ekimenen baremazio taula berri bat sortuko da, EIAA agendaren bi indar-ideietan oinarrituta³⁷.

37 Ikus II. eranskinean subjektuen ikuspegiarako taula ereduak.

- Bereziki sakonduko da prozesuen eta eragileen ebaluazioan, baita elkartasun internazionalistako politika osoaren eragin politikoan ere.
- Kontu emate anitz, elkarrekiko eta integrala sustatzen da, honako printzipio hauek ardatz harturik: informazio gardena, erantzukizun partekatua (nahitaezkotasuna, eskagarritasuna eta ebaluagarritasuna); partaidetza; zehapen erregimena, eta pizgarriak (Ayuso eta Cascante, 2009).

12. koadroa. Aliantzak ernatzea etaparen helburuak

1. helburua	Emantzipazio aukerak, erreferentzia esparru gisa
2. helburua	Subjektuak eta eragile estrategikoak lehenestea, esklusiboki
3. helburua	Balio eta proposamen emantzipatzaileen posizionamendu lokal eta globalerako espazioak
4. helburua	Sendotze eta aliantzari loturiko arlo bakarra, EIAA agendaren oinarriekin bat etorrita
5. helburua	Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea, %0,7tik harago joz eta formula osagarri berriak ikertuz
6. helburua	Erreferentzia esparruarekin koherenteak diren inplementazio sistemak, helburu politikoan zerbitzura

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Azken batean, lankidetza deszentralizaturako ikuspegi berri bat da, lankidetza deszentralizatuaren berrasmate bat, subjektu eta eragile berriak txertatzen dituen, eragile eta subjektu klasikoekin batera, eta lurralde bakoitzean balio, agenda eta estrategia internazionalista eta emantzipatzaileak posizionatzeari begira diharduena.

2. Hiru euskal administrazioetarako proposamenak

Azkenik, ikerketa honetarako aukeratutako hiru euskal administrazioetako bakoitzerako proposamen espezifikoa aurkeztuko dugu. Horretarako, Gidaliburuan zehar garatutako tresna analitikoak eta politikoak baliatuko ditugu.

Lehenik eta behin, abiapuntu hartu dugun lankidetzari buruzko erreferentzia esparru kritikoari jarraituz, lankidetzaren berrasmatzeko haren eraldaketa ahalmena sendotzea planteatzen da, honako hiru erronka hauei helduz: funts ekonomiko jakin batzuk kudeatzetik balio eta dinamika emantzipatzaileen posizionamendu lehenetsirako aldaketa, internazionalismoaren bidetik, argi eta garbi; askotariko subjektu eta eragileen arteko elkarrizketa politiko lokal-globaleko logiketan aurrera egitea; *proiektukako jarduna* alde batera uztea, aldaketa prozesuen konplexutasunarekin, ziurgabetasunarekin eta dibertsitatearekin koherentzia handiagoa izango duten inplementazio sistemen mesedetan.

Bestalde, zibilizazio krisia gainditzeko ekintza kolektiborako molde estrategiko gisa gizarte-mugimenduak hartzearen aldeko apustua dago. Premisa horretatik eratortzen da *elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboa* (EIAA), zeina baita funtsezkoa lehen aipatutako erreferentzia esparru kritikoa berme osoz sustatu ahal izateko. Hala, EIAA agendaren bi indar-ideiak (emantzipazio subjektuen ahalmenak sendotzea, alde batetik; eta askotarikoen arteko aliantza, bestetik) estu lotuta daude esparru kritiko horrekin, Gidaliburuan zehar behin eta berriro ikusi dugunez.

Hirugarrenik, hiru etapa eta sei helburutan zehazturiko trantsizio prozesu bat eraiki dugu, hobeto azaltzeko Gidaliburuak egiten duen proposamenari atxikitako aldaketan logika. Hala, pixkanaka zer urrats eman daitezkeen planteatzen da, baita zer aukeratarako jo beharko litzatekeen ere, esperientzia espezifikoko bakoitzaren testuinguruaren eta egoeraren arabera.

Hiru tresna horiek baliatuta, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarako (GLEA), Gipuzkoako Foru Aldundirako (GFA) eta Donostiako Udalerako (DU) proposamen bana landu dugu.

Gidaliburuaren sarreran adierazi dugunez, esperientzia horiek aukeratzeko bi irizpide erabili ditugu, funtsean –eta guztiak dira lankidetzaren deszentralizatuaren parte, zeina baita tipologiarik egokiena EIAA agenda inplementatzeko–. Lehen irizpidea izan da hiru eskuduntza mailetako bakoitzeko (erkidegoa,

probintzia eta udala, probintziako hiriburua) politika publiko bat aukeratzea, euskal lankidetzaren izaera askotarikoa neurri batean behintzat barne hartzen saiatzeko. Ikerketa aberasten du horrek, eta, aldi berean, koherentziari eusten dio, bereizgarriak bereizgarri eredu komun oso markatuak partekatzen baititu, ez soilik euskal lankidetzak, Estatuko lankidetzeta deszentralizatu osoak baizik, oro har.

Bigarren irizpidea bereizgarrietako bati lotua da, hain zuzen ere: lankidetzaren ikuspegi eraldatzaileagoa sustatzeko borondate politikoa, gizarte-mugimenduek garrantzizko zeregina dutela horretan.

Borondate hori, agerikoa baita aztergai izan ditugun hiru erakundeen plan estrategikoetan³⁸, funtsezko elementua da Gidaliburuari dagokionez. Izan ere, Gidaliburuaren helburua ez da soilik borondate politiko horretan eta gizarte-mugimenduen garrantzian sakontzea, baizik eta premisa horren aldeko apustua egin dutenei eztabaidak, bideak eta jarraibideak iradokitzea, lankidetzeta deszentralizatuaren ikuspegi klasikoa alboratu eta hura praktikan jar dezaten.

Alderdi horretatik, gure hiru erakundeak esperientzia paradigmaticoak dira, eta askotariko asmo, aurrerapauso eta atzeraldiak bildu dituzte proposamen berrietan barrena egindako ibilbidean. Hala, jarraian erakunde bakoitzaren politika publikoaren analisi xehea egingo badugu ere, eta kontuan hartu arren diferentzia handiak daudela haien artean, gure ustez guztiak ahalegindu dira, oro har, beren lankidetzeta politikan funtsak modu eraginkorrean kudeatzetik harago jotzen; garapenari loturiko arazo nagusien arteko mendekotasuna eta izaera sistemikoa barne hartzen; eragile klasikoetatik haragoko beste eragile askotariko batzuk kontuan hartzen, gizarte-mugimenduak lehenetsita, besteak beste; eta, eraldaketa prozesuen ezaugarriak beren gain harturik, inplementazio sistemen logikak berraztertzen, neurri txikian bada ere.

Hortaz, gure ondorioa da hiru esperientziek erakutsi dutela ez daudela eroso lankidetzeta deszentralizatuaren ikuspegi klasikoan eta urratsak eman

38 Gizarte-mugimenduekiko aliantzak eratzeko borondatea agerikoa da GFaren eta DÜren kasuetan. GLEAri dagokionez, onartutako azken planean agertzen da apustu hori (2008-2011), baina 2015-2018 Plangintzaren zirriborro ia behin betikoan modu lausoagoan jasota dago. Edonola ere, GLEA esperientzia oparoa osatu du gizarte-mugimenduekiko erlazioan, 2003. urteaz goerotik, bereziki zuzeneko lankidetzaren bidetik, edo GGKE batzuen bidez, eta euskal lankidetzaren etorkizuneko subjektu, lehenetasun eta identitateei buruzko eztabaidak planifikatu ditu 2015erako; hala, bada, proposamenen lehia politikorako espazioa zabaltzeko aukera ikusten da.

dituztela *lurra jorratzeko* –bereziki erreferentzia esparruari eta lehenasunei dagokienez; ez, hainbeste, eragileen arteko erlazioari eta inplementazio sistemari dagokienez–; eta, are gehiago, *konplizitateak ereitea* etapako elementu bereizgarri batzuk garatu dituztela –hala nola, gizarte-mugimenduen aldeko apustua, zuzeneko lankidetzan, edo, GFAk eta DUK, gizarte-eragile ez-klasikoentzako arloak sortzea–.

Zalantzarik gabe, ikerketaren xederako abiapuntu positiboa da hori, etorkizuna ez ezik –aurrera begira ibili beharreko bide bat ez ezik–, oraina eta iragana ere badaudelako –dagoeneko egindako ibilbide bat–.

Jarraian, hiru esperientziatako bakoitzaren ondorio eta proposamen nagusien berri emango dugu. Antzeko eskema erabiliko dugu kasu guztietan, bi puntu oinarri harturik: diagnostikoa eta proposamena.

Diagnostikoari dagokionez:

- Gogoeta batzuk egingo ditugu politika publiko bakoitzak euskal lankidetzaren erreferentzia esparru kritikoarekin duen erlazioari buruz.
- Gogoeta horietatik abiatuta, haien ezaugarrietan sakonduko dugu eta ikerketa prozesuan egindako diagnostiko espezifikorekin ondorio nagusiak laburtuko ditugu (Piris eta del R o, 2014)³⁹, lankidetzaren deszentralizatuaren ikuspegi klasikoaren kategorien bidez (5. koadroa).

Proposamenari dagokionez:

- Politika publiko bakoitza gure trantsizio prozesuaren hiru etapen baitan kokatuko dugu⁴⁰, eta horrela definituko dugu esperientzia bakoitzaren abiapuntu espezifikoa.

39 Aipatu dugun diagnostiko horrek 2008-2013 aldia hartzen du; hiru kasuetan, gobernu eta plan estrategiko jakin bat izan ziren aldi horretan. Hala ere, gure helburua izanik gaur egungo egoeratik abiatu eta trantsizio prozesu bat proposatzea, arreta berezia emango diegu 2013ko ezaugarriei, eta aintzat hartuko ditugu 2014ko berrikuntza batzuk ere, aztertutako hiru administrazioen argazki erreala bistaratzeko beharrezko iritzi diegun heinean (adibidez, 2014an onartutako GLEAREN plan estrategikoa).

40 Argitu nahi dugu aztertutako politika publikoetatik bakar bat ere ez zaiola doi-doi egokitzen etapa jakin bati. Izan ere, ikuspegi jakin baten aldeko apustu espezifikorekin koherentzian definitutako faseak dira (ikuspegi klasikoa edo subjektuen ikuspegia), baina litekeena da inork ez betetzea goitik behera fase horiek. Ildo horretatik, ez da harritzekoa etapa desberdinetako ezaugarriak izatea, aldi berean. Adibidez, aldaketarako borondatea egon arren, askotan gertatzen da gogoeta integrala falta izatea, eta horixe da, hain zuzen ere, trantsizio prozesuaren bidez eskaini nahi dena, apaltasun osoz.

- Kasu bakoitzerako I. urratsa (epe laburra) eta II. urratsa (epe ertain eta luzea) zehaztuko ditugu, Gidaliburuak jarraitzen dion trantsizioaren logikaren baitan eta administrazio bakoitzaren borondate politiko, esperientzia eta ahalmenen analisi espezifikoen arabera.

2.1. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia: trantsizio proposamena

Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA)⁴¹ funtsezko egitura da azken 25 urteetan euskal lankidetzaren osotasuna zertan izan den ulertzeko, ez soilik kudeatu dituen funtsen kantitateagatik, baita EAEn sustatutako lankidetzaren osotasunean eragiteko izan duen ahalmenagatik ere. Hain zuzen ere, erreferentzia modura hartu izan dute beste eskuduntza maila batzuetako egiturek, ikuspegiak, lehentasunak eta bitartekoak proposatzeko garaian izan duen protagonismoagatik.

Hortaz, pisu espezifikoko handiko entitatea da gaur egun –berezko potentzialitate handiak ditu kanpo ekintzarako eta eragile lokalak eta nazioartekoak artikulatzeko– eta, gainera, *palanka efektua* eragiten du euskal lankidetzan.

2.1.1. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diagnostikoa⁴²

GLEAk lankidetzeta deszentralizatuaren erreferentzia esparru kritikoaren oinarritzko hiru puntuekin duen erlazioa aztertuta, nazioarteko elkartasunari loturiko jardura *lankidetzeta politika* edo *garapen politika* izan den zehazteari dagokionez, esan beharra dago lankidetzeta politika gauzatu duela, batik bat.

Izan ere, haren zeregin nagusia funts publiko batzuk lehentasun estrategiko jakin batzuen arabera kudeatzea izan da, eta da, gaur egun, oro har. Ildo horretatik, ezin esan liteke GLEAk EAEko administrazio orokorraren eta, oro har, lurraldekoaren politikan printzipio internazionalista eta emantzipatzaileak posizionatzera begira planteatzen duenik bere jarduna.

41 GLEA 2011n abian jarritako egitura espezifikoko bat da; haren aurrekaria Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza izan zen, ordura arte nazioarteko lankidetzaren ardura zuen egitura administratiboa.

42 Informazio gehiagorako, ikus Piris eta del R o (2014:9-48).

Lankidetzaren aldeko aukera horrek –zeina baita estuagoa giza garapenaren aldeko aukera zabalagoa baino– politika publikoa definitzen duten beste elementu batzuk ditu atxikita. Hala, lehenik eta behin, azpimarratzekoa da politika horrek beste politika sendoago batzuen aldean izaera subsidiarioa duela –hala erakutsi zuten 2013ko murrizketa sakonek, aurrekontu osoaren %30 inguru ezabatu baitzen–, eta horrek esan nahi du nazioarteko lankidetzaz ez dela lehen mailako politika, baizik eta maila apalagokotzat, egoeraren arabera moldagarria dela, eta deserosoa, krisi garaietan. Edonola ere, Estatuko lankidetzaz deszentralizatuaren egoerak erlatibizatu egiten du izaera subsidiario hori, murrizketak askoz ere handiagoak izan baitira beste lurralde batzuetan, politika publikoa lekukotasun hutsera murrizteraino, edo desagertzeraino, Madrilgo erkidegoan, adibidez.

Bigarrenik, lankidetzak mugaturiko aukera orobat lotzen da dinamika eta agenda globalekiko mendekotasunarekin, funtzionamendu eredu politikoen definizio autonomoaren aurrez aurre. Hala ere, azpimarratu beharra dago mendekotasun hori ere erlatiboa dela, hiru plan estrategikoetan (2005-2008, 2008-2011 eta 2014-2017) kritika gogorra egiten baitzaie agenda horien gabeziei, identitate propioa sortzeko proposamen batzuk garatzeaz gainera. Hain zuzen ere, ahalmen propioetan oinarriturik egindako apustu politikoei jarraitu diete proposamen horiek: garapen ekonomiko lokalarekiko enfasia, deszentralizazio politikoa, nortasun kulturala, emakumeen jabekuntza, ikuspegi zabaleko garapenerako hezkuntza edo gizarte-mugimenduen eta partaidetzaren garrantzia. Berezitasun horiek uanean unekoak izan dira, ordea, eta ez dira egon gogoeta politiko zabaletan txertatuta, nazioarteko lankidetzaren eredu komunak oro har bere egiten dituen praktika bati jarraituz.

Izaera subsidiarioaren eta mendekotasunaren eraginez, hirugarrenik, gainerako gobernu ekintzarekiko loturarik eza ere bere gain hartzen du GLEAk. Badira egoera hori iraultzera bideratutako zenbait esperientzia (*Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programa, Gazteria Zuzendaritzarekin batera; Osasun Sailarekiko urteroko hitzarmena; uraren kanonaren %5 kudeatzea, URA agentziarekin batera, ur eta saneamendu eskubidearen gozamina sustatzeko; eta 2014-2017 planean garapenerako politiken koherentzia estrategia garatzearen alde egindako apustua), baina oraindik ez dira nahikoak nazioarteko lankidetzaz atal bereizi eta iragazkaitz modura erakusten duen argazkia eraldatzeko.

Laugarrenik, hutsartea ikusten da plangintzaren eta egikaritzearen artean –gure diagnostikotik eratorritako azterketa sakonagoan gero ikusiko dugunez–: *proiektukako jardunari* jarraitzen dio, nagusiki, lehenasunezko

edukietan berezitasunak badituen arren (inplementazio dinamiketan egindako garrantzizko beste berrikuntza batzuekin batera, hala nola, herrialde-estrategiak edo programen bitartekoa). Horrek tentsioa sortzen du lehentasun estrategikoen eta lehentasunak egikaritzeko potentzialitatearen artean.

Azkenik, garapen politikaren ordez lankidetza politika gauzatzearen aldeko aukera egiteak eta inplementazio sistema gisa proiektuak erabiltzeak agerian uzten du EAEn lehentasun handiagoa ematen zaiola lankidetzarako funtsak modu eraginkorragoan kudeatzeko eragile klasikoaren arteko eztabaidari, maila lokalean nahiz nazioartekoan diharduten ahalmen emantzipatzaileko eragile askotarikoaren arteko elkarriketa politikoari baino. Alderdi horretatik, azpimarratu beharra dago eragile ez-klasikoaren aitortza –bereziki, gizarte-mugimenduena, azken bi planetan, nahiz eta gaur egungoan ez den ageri halako aitortzarik modu esplizituan–, baina erlazioak aldebikotasunean oinarritzen dira oraindik –proiektuari loturik–, eta espazio kolektiboen aholkularitza izaeran –Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua eta Erakunde Arteko Batzordea–.

Azken batean, GLEAk izaera eraldatzaileko bereizgarritasun adierazgarriak garatu ditu –bereziki, erreferentzia esparruari eta lehentasunei dagokienez–, baina asko du egiteko, oraindik, Gidaliburuak proposatzen duen erreferentzia esparru kritikoaren hiru ardatzetan aurrera egiteko.

13. koadroa. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diagnostikoaren sintesia

<p>1. Erreferentzia esparrua eta lehentasunak</p>	<p>a. Erreferentzia esparrua: Giza Garapen Iraunkorra</p> <p>b. Helburu nagusia: egiturazko pobrezia-erako kontrako borroka</p> <p>c. Lehentasunak: lehentasun sektorial zabala, kanpoan utzirik dimentsio kulturala eta GH, Hegoaldean; zeharlerroen pisu espezifiko handia, baina estrategia espezifikorik gabe; lehentasun geografiko zabala, 22 estatu-naziotan oinarritua</p> <p>d. Arloak: Garapenerako Lankidetzaren (GL) hegemonia; garapenerako hezkuntzaren (GH) eta Laguntza Humanitarioaren (LH) ikuspegi irekiaren aldeko apustua; eragile jakin batzuk sendotzeko prozesuak (GGKEak eta Nazio Batuak, nagusiki)</p>
<p>2. Inplementazio sistemak</p>	<p>e. Finantzaketa: murrizketa handiak, 2013tik aurrera, 2012an %0,7ra iristeko hartutako legezko konpromisoa urratuz; GLren lehentasuna (%69), oso urrun direla LH (%9) eta GH (%8), azken horren benetako esanguraren adierazle garbia</p> <p>f. Ekimenak sustatzeko dinamikak: deialdi publikoen erabateko hegemonia (%90), zuzeneko hitzarmenen aldean</p> <p>g. Bitartekoak: proiektuen pisu espezifiko, baina bestelako bitartekoak ere bai, adibidez LHko programak eta esparru-estrategiak</p> <p>h. Tresnak eta baldintzak: ziurtasunerako joera, ziurgabetasunaren ordez; alderdi teknikoaren aldeko joera, alderdi politikoaren ordez; eta fiskalizatorako joera, konfiantzaren ordez</p>

3.
Eragileen arteko
erlazioa

i. Administrazio publikoen ahalmenak eta egitekoa: neurri egokiagoko taldea, GLEAren sorreraz geroztik, baina kuantitatiboki oso mugatua, oraindik, eta alderdi politikoetan eta estrategikoetan hobetzeko gaitasuna

j. Aitortza: eragile klasikoak, adibidez, instituzioak, GGKEak eta irabazi asmorik gabeko beste eragile batzuk. Kanpo uzten ditu enpresak, eta ez ditu modu esplizituan aipatzen gizarte-mugimenduak, aurreko planetan agertzen baziren ere

k. Erlazioa: nagusiki alde bikoa, eta txosten eta jarraipen batzordeetan oinarritua; deliberazio izaerako espazio kolektiboak, erakunde eta GGKE-ek homogeneizatuak; herrialde-estragien inguruko esperientzia alternatiboak baina garatu gabek

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Jarraian, GLEAren gaur egungo politikaren ezaugarri nagusiei arreta emango diegu, ikuspegi klasikorako ezarritako kategorien arabera. Erreferentzia esparruari eta lehentasunei dagokienez, GLEAk defendatzen duen nazioarteko lankidetzeta “giza garapen iraunkorrera eta egiturazko pobrezia deuseztatzerantz bideratua da, eskubideen eta berdintasunik eza deuseztatzearen ikuspegitik” (GLEA, 2014). Beraz, bere gain hartzen du GGI, erreferentzia esparru gisa, baita pobrezia kontrako borroka ere, helburu nagusi gisa, berdintasunik eza deuseztatzearekin loturiko eta egiturazko ikuspegi batetik. Aldi berean, agenda ofizialekin nahiko kritiko den proposamen estrategiko bat garatzen du (MGH eta laguntzaren eraginkortasuna, batik bat), eta bere gain hartzen du enpresa kapitalistak lankidetzako eragile gisa ez ulertzea –legez finkatutako konpromisoa–.

Lehentasunezko arlo eta ildoak dagokienez, ikuspegi klasikoaren ohiko ezaugarrien baitan definitzen dira. Hauek dira arloak: garapenerako lankidetzeta (GL), garapenerako hezkuntza (GH), ekimen humanitarioa (EH) eta eragileak –nagusiki, klasikoak– sendotzeko ekimen sorta bat, bere baitan hartzen dituena lankidetzeta programa (KOOP), Nazio Batuetako lankidetzeta programa (NBE) eta genero berdintasunerako antolamendu aldaketako prozesuak (GBA).

Arlo horietako bakoitzerako ildo sektorial eta zeharlerro lehenetsi batzuk daude. Gure ikerketarako esanguratsuenak diren biei dagokienez, GLk eta GHk zeharlerro berak dituzte (generoa; giza eskubideak; partaidetza, antolaketa eta gaitasun lokalak; iraunkortasun ekologikoa). Deialdietan, pisu oso adierazgarria dute baremazioetan –gero ikusiko dugunez, eta Estatuko beste lankidetza esperientzia batzuetakoen aldean oso altua–, baina ez dago horien identitate politiko espezifikoa garatzeko eta zehazteko estrategia espezifikorik.

Ildo sektorialek, GLri dagokionez, lehentasun sorta zabal bat definitzen dute (eskubide unibertsalak; gobernantza demokratikoa eta botere lokala; garapen ekonomiko lokala; ingurumenaren babesa eta kontserbazioa; emakumeen jabekuntza). Horrek esan nahi du, lehenik, nekez hitz egin dezakegula lehenespen sektorialaz, dena egon bailiteke aukera zabal horretan bilduta –garapenaren dimentsio kulturala izan ezik, zeina lauso ageri baita lehentasunen definizioan, edo GHren dimentsioa, EAetik kanpo sustatzen diren proiektuetarako–.

Bestalde, lehentasun sektorialek agerian uzten dute zer-nolako hutsartea dagoen erreferentzia esparruaren eta GLEAk sustatutako lankidetza jardueraren artean. Hala, erreferentzien definizioan sumatzen den lausotasuna kontuan hartuta, pentsa liteke berdin-berdin izan litezkeela baliagarriak eta giza garapen iraunkorarekin koherenteak, orotariko ekimenak ez ezik, haiei heltzeko edozein ikuspegi ere. Alderdi horretatik, proiektu oro ahalbidetzearen aldeko apustua egiten da praktikan, onartutako erreferentzia esparrutik eratorritako konpromisoak eta mugak definitu ordez⁴³.

Azkenik, lehentasun sektorialak lehentasun geografikoekin uztartzen dira, lehentasunezko 22 herrialderen arabera. Horiek aukeratzeko, kontuan hartu dira pobreziaekin eta giza garapenarekin loturiko irizpideak, baita herrialde horien eta euskal lankidetzaren arteko erlazioa ere.

GHri dagokionez, lehentasun sektorialak zabalak dira, eta sentsibilizazio hutsetik harago doaz (hezkuntza eta prestakuntza; ikerketa; eragin politikoa eta gizarte-mobilizazioa; sentsibilizazioa; truke eta ikaskuntza kolektiboa; komunikazio hezitzailea/emantzipatzailea), eta horrek aukera ematen du begirada zabal, inklusibo eta koherenteagoa lantzeko.

43 Adibidez, garapen ekonomiko lokalaren aldeko apustu oro datoz bat GGirekin? Edo gobernagarritasun demokratikoaren ikuspegi oro?

Labur esanda, lan ildoen arabera definitzen dira lehentasunak, nagusiki; eta ez subjektu eta eragile estrategikoen arabera. Zeharkakotasunak pisu handi samarra du, eta garrantzi gutxiago dute, aldiz, lehentasun sektorial eta geografikoeak.

Bigarren kategorian –inplementazio sistemak–, lehenik eta behin azpimarratu beharra dago 2013an murrizketa handia gertatu zela finantzaketan: 2012an, 50 milioi eta %0,49, eta 2013an, berriz, 32 milioi eta aurrekontu osoaren %0,35⁴⁴. Aipatzekoa da, horri loturik, 2007ko Garapenerako Lankidetzari buruzko Legeak 2012an %0,7a lortzeko konpromisoa ezarri zuela. Aurrera begira, 2012an indarrean zeuden zenbateko absolutuak berreskuratzeko bidea definitu da plan berrian 2017rako, eta %0,53ko ehuneko aurreikusitako da, Legebiltzarrean ezarritako konpromisotik oso urrun.

Aurrekontua banatzeko sistemari dagokionez, deialdi publikoa da formula hegemonikoa, eta horretara bideratzen dira funts banagarrien ia %90; zuzeneko hitzarmenetara bideratzen da gainerakoa, baina esparru horretan ez dago lehentasun argirik. Deialdien artean, lehen aipatutako lau arloei dagozkienetan, GLk⁴⁵ du protagonismoa (funts banagarrien %70 inguru, proiektuak eta programak kontuan hartuta); GH ez da iristen %8ra, eta horren aurretik dago EH bera (ia %9). Begi-bistako asimetria dago, beraz, Iparra-Hegoa artean, GLEaren politikan⁴⁶.

Bitartekoetan, proiektua da ohikoena. Hala ere, lehen kapituluan emandako azalpenak gorabehera, proiektuen indarraldia nahiko luzea izateak –bi urte, luzatzeko aukerarekin–, gehieneko aurrekontu zenbatekoarekin batera (600.000 euro), teoriant, aukera ematen du, zeharlerroen aldeko apustu estrategikoarekin lotuta, prozesu emantzipatzaileen logikarekiko ekimen koherenteagoak garatzeko. Bestalde, abian jarri dira beste bitarteko batzuk⁴⁷, hala nola, programak, proiektuek baino indarraldi luzeagoa eta zenbateko handiagoa dutenak (hiru urte, luzatzeko aukerarekin, eta 1,2 milioi euro,

44 GLEAk emandako datu ofizialak.

45 Barne hartzen ditu programen deialdia (PGM), proiektuak (K1) eta garapen produktiboko proiektuetarako eta proiektuen deialdian parte hartzen ez duten entitateentzako laguntza teknikorako kapitulu espezifiko bat (K2).

46 Programen kasuan soilik bidera daitezke GLren eta GHren finantzaketa osagarriak, eta, hala, gora egingo luke GHren ehunekoak, baina ez dago daturik zenbateko igoera izango litzatekeen jakiteko.

47 EH gure proposamenaren barruan ez dagoela esan dugun arren, aipatu nahi dugu oso esanguratsuak direla esparru-estrategiak, GLEaren ahalmenekin eta GGren ikuspegiarekin koherentzia handieneko bitartekoa diren heinean.

gehienez ere), berrikuntzak txertatzeaz gainera, hala nola GHko eta ahalmenak identifikatzeko eta sendotzeko osagaiak, ebaluazioari nahitaezkoa izaera emateaz gainera.

Azkenik, tresna eta baldintzei dagokienez, hementxe aurkitzen ditu orain arte aditzera emandako potentzialitate emantzipatzaile erlatibo horrek inplementaziorako hainbat eragozpen⁴⁸:

- Sarbidea: proiektuen deialdietan parte hartzeko, eragileen erregistroren batean bi urte lehenagotik izena emanda egotea eskatzen da. Gainera, estatutuetan adierazi beharra dago nazioarteko lankidetzaren aldeko apustua, edo egiaztatu esparru horretan gutxienez bi urtez lan egin dela⁴⁹. Bereziki nabarmentzekoa da programen deialdian sartzeko sistema bereziki murritzalea; izan ere, ahalmen estrategikoak, sozialak eta kudeaketarakoak egiaztatzea eskatzen duen egiaztapen sistema bat ezarri da, eta, praktikan, potentzialki emantzipatzaile izan litezkeenak baino eraginkortasun handiagoa duten eta formalizatuago dauden erakundeei mesede egiten die, izaera nolabait endogamikoko logika baten baitan.
- Formulazioa: esparru logikoaren ikuspegia (ELI) da tresna hegemonikoa proiektuaren bizitza ziklo osoan, eta, hala, kausa-efektu erlazioa estrategikoa da helburuak, emaitzak, jarduerak, baliabideak eta hipotesiak zehazteko. Ziurtasuna eta zehaztapena berariaz balioesten dira, eta bi-hiru urterako jomugak eta adierazleak finkatzeko betebeharra ezartzen da, emantzipazio prozesuen konplexutasuna eta ziurgabetasuna aintzat hartu gabe. Dinamika horren aurrez aurre, programek profiletan oinarrituriko bestelako formulazio logika bat dute, baina, praktikan, horietan ere proposamenaren zehaztasunaren eta kalitate teknikoaren formatu hegemonikoa aintzatesten da.

Aurrekontuaren formulazioari dagokionez, programen bitartekoa alde batera utzita, ez dago aukerarik identifikazio fasea egozteko –plangintzan funtsezkoa den arren–; ahalmenak sendotzearekin lotura estuena duten partida edo rubroak mugatzeko joera dago (langileak, kudeaketa, artikulazioa, etab.), *sendotzearen* ordez *egiteko* logikaren baitan, eta ez da sustatzen ikuspegi

48 GLEAn oinarrituriko datuak (2007, 2007b).

49 Salbuespen bakarra da, partzuergoaren irudiaren pean, onartu egiten dela betebeharririk ez dituzten beste antolakunde batzuen partaidetza. Edonola ere, partzuergoaren irudiak ez dauka bultzada estrategikorik –ez da askotariko eragileak artikulatzeko apustu bat– eta bitarteko-izaera du nagusiki.

lokal-globala, Iparra-Hegoa bereizketa erabatekoa eginez funtzionamendu logikei dagokienez.

- Baremazioa: koherentea da nazioarteko lankidetzan nagusi den eragin-kortasunaren logikarekin eta deialdietan proiektuen arteko bereizketa egiteko irizpideak ezartzeko joerarekin. Ukitu eraginkorrale eta objektibista horrek talka egiten du prozesu emantzipatzaileek atxikita duten dimentsio politikoarekin, baremazioek lehentasuna ematen baitiete proiektuen alderdi teknikoei eta entitateek lankidetzarekin duten alde aurreko esperientziarekin, beste gaitasun politikoago batzuen kaltetan.

Hala ere, azpimarratu beharra dago zeharlerroek pisu adierazgarria dutela (100 puntutik 36, GLn -K1 eta K2-; 22, GHn -K3-, eta 59, dimentsioak halakotzat hartuz gero⁵⁰; 42, programetan), nahiz eta irizpide guztiak objektibatzen joera dagoen, zeina baita oso zaila, prozesu emantzipatzaileez ari garelarik. Azkenik, aipatzekoa da partzuergoak oso positibotzat hartzen diren arren ez direla sustatzen baremazioaren bidez: onenean, puntuazio guztiaren 5 puntu besterik ez dituzte.

- Jarraipena: oro har, txostenen bidez egiten da (hiru txosten), deialdietan finkatutako ordainketei loturik. Txostenen ugaritasunaren ondorioz, jarraipenak aurrekontuaren eta kudeaketaren ataletan arreta jarri ohi du, lehenik, eta teknikan, bigarrenik. Programetan eta zuzeneko hitzarmenetan, aldean arteko jarraipenerako batzorde sistema ezartzen da (noranzko bikoitzekoa, entitate bakoitza eta GLEA), eta txostenen osagarri hartzen dira batzordeak, dinamika politikoagoa garatzeari begira, hertsiki aldebi-koa izan arren.
- Ebaluazioa: proiektuen ebaluazioa ahalbidetzen da, baina erakundearen beraren ikaskuntza logikatik, ez esperientziak partekatzen logikatik. Ez da egiten, halaber, antolamendu, prozesu, apustu estrategiko edo politiken ebaluaziorik ikuspegi orokorragotik.
- Kontu ematea: jarraipenarekin uztartzen da nagusiki, eta ardatz beretan oinarritzen da, aldebikotasunean eta aurrekontu-administrazioan. Ikus-puntu kolektiboagotik, txostenak lantzen eta dagokien deliberazio organoetan eztabaidatzen dira, baina baliabideei eta haien banaketari erreparatzen diote, eztabaida politikoa sortzeko bidea emateari baino gehiago. Azken batean, ez dago kontu emateko sistema espezifiko anitz, elkarreki-ko eta integralik, ezta halakorik ezartzeko baldintzarik ere (informazioa, erantzukizuna, partaidetza, zehapen sistema eta pizgarriak).

50 Dimentsio politikoa-etikoa, (inter)kulturala eta pedagogikoa.

Amaitzeko, hirugarren kategorian –eragileen arteko erlazioa–, eta, GLEAtik beratik hasita, Gobernuaren Presidentziari atxikitako Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusian kokatzen da. Haren giza baliabideak handitu egin dira 2012ko urriaz geroztik, alde aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak zituenekin alderatuta, baina oraindik ez da nahikoa EIAA agendak proposatzen duen moduan nazioarteko elkartasun politika bat bere gain hartzeko.

Gaur egun, hamazazpi kidek osatzen dute GLEA: zuzendariak, talde teknikoko bederlatzi lagunek, eta talde administratibo eta juridikoko zazpi lagunek. Gainera, sei bekadun aritzen dira lanean, hamabi hilabeteko aldika. Talde teknikoko kideetatik sei geografia eremuei atxikita daude; beste bat genero eta garapen eremuan ari da, eta bi lagun arduratzen dira koordinazio estrategikoaz, alde batetik, eta koordinazio teknikoaz, bestetik. Ez dago GHren ardura duen teknikaririk, zeharlerro modura hartzen baita; dena den, GHri aitortzen zaion garrantzi apalaren erakusgarritzat har liteke hala izatea.

Azterketa kuantitatibotik harago, ahalmen politiko, estrategiko eta tekniko handiak ditu taldeak; baina, gure ustez, beharrezkoa da gogoeta, eztabaida eta prestakuntzarako espazioak sustatzea, Gidaliburutik eratorritako proposamenetan aurrera egiteko (politiken koherentzia, kontu ematea, subjektu eta eragile estrategikoen azterketa globala eta lokala, komunikazioa, etab.).

Eragileen aitortzari dagokionez, Lankidetzari buruzko Legean adierazitako eragile berberak errepikatzen da indarrean dagoen plan estrategikoa (administrazio publikoak, GGKEak eta irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuk, hala nola, unibertsitateak, sindikatuak eta bestelako gizarte-erakunde batzuk). Horrek atzerapauso bat adierazten du, aurretik modu esplizituan aitortzen baitziren gizarte-mugimenduak eragile estrategiko gisa (EJGLZ, 2005 eta EJGLZ, 2008), eta oraingoan, aldiz, *bestelako gizarte-erakunde batzuk* generiko soil batez adierazita baitaude, inolako indar politikorik ez dutela. Bestalde, lankidetzaren politikotik kanpo uzten dira enpresa eta hark atxikita daraman irabazi asmo inplizitua.

Azkenik, eragileen arteko erlazioen formulari dagokionez, euskal administrazioen eskuduntza mailen berezko egituraz harago –Erakunde Arteko Batzordea–, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua da topaketarako egitura nagusia. Hogeita hamabi kidek osatuta dago, erdiak erakunde ordezkariak (Gobernuko, foru aldundietako eta Euskal Fondoko egituretakoak) eta beste erdiak, berriz, gizarte-erakundeetako ordezkariak (hamar lagun GGKE-en Koordinakundekoak, eta egitura horretatik kanpoko

beste sei). Gizarte-erakundeetako hamasei ordezkarietatik hamabost GGKE-etako kideak dira, eta bakar bat gizarte-mugimenduetakoa (EHNE-Bizkaia). Zeregin nagusia nazioarteko lankidetzarako funtsak kudeatzeari buruzko deliberazioa da; zeregin hori betetzeko, proposamenak egin, irizpenak eman eta ebaluazioa egiteko eskumena du, eta urtean 2-4 saio egiten ditu. Gaur egungo planean, helburu gisa adierazita dago politiken koherentziari begirako estrategia garatzea, eta baliteke horrek nolabaiteko aldaketa eragitea kontseiluaren jomugan.

Eragileen arteko erlazioaren azterketaren atal honetan, berariaz nabarmendu nahi ditugu herrialde-estrategiei loturiko esperientziak, haien xedea baitzen euskal lankidetzako askotariko eragile instituzional eta sozialak biltzea, helburu komun batzuen inguruan eta elkarrizketa politikoa sortzeko eta sinergiak ahalbidetzeko espazio egokien bidez. Xede horrekin formulatu ziren *Kubarekiko Garapen-lankidetzarako Euskal Estrategia* (EJGLZ, 2007b) eta *Guatemalako Garapenerako Euskal Lankidetzeta Estrategia* (EJGLZ, 2008), baina 2009az geroztik ez zaie egin jarraipen zehatzik, eta, beraz, iruditzen zaigu ez dutela garatu beren potentzialitate guztia. Dena den, esan beharra dago Guatemalako esperientziaren kasuan jarri zela abian haren osagaietako bat, mugimendu nekazari, indigena eta feministekin aliantza sortzeari lotua, proiektu hegemonikotik harago zihoazen inplementazio formula berrien bitartez. Behar bezain ibilbide oparoa izan ez duten arren, EIAA agendaren postulatuetan sakontzeko proposamenak definitzeko garaian kontuan hartu beharreko esperientziak dira.

Ondorio gisa, ikuspegi klasikoko eredu hegemonikoek definituriko politika bat dugu, baina nortasun eraldatzaileagoa garatzeko ahalegina egin du, bereziki esparru estrategikoa zabaltzeari dagokionez (helburua, lehentasunak eta arloak), nahiz eta ez duen hainbesteko aurrerapenik egin inplementazio sisteman eta horrek tentsio gero eta agerikoagoa eragiten duen. Gainera, eraldaketarako ahaleginak gorabehera, funts espezifikoa kudeatzera mugatu da aplikazioa, lurraldean eta ikuspegi lokal-globalaren baitan beste garapen, eraldaketa edo emantzipazio dinamika batzuk planteatu gabe nazioarteko garapenaren eremutik.

2.1.2. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarako proposamena

GLEAren politika, beraz, ikuspegi klasikoaren ohiko gakoek zedarritzen dute, nahiz eta garatu dituen nortasun ezaugarri bereizgarri batzuk *lurra jorratzea*

etapara hurbiltzen dutenak, alderdi espezifikoko batzuetan behintzat: esparru estrategiko argi eta konprometitua; garapenerako hezkuntzaren ulerkera inklusiboa; zeharkakotasunaren aldeko apustua, esangura politikoko elementu gisa; bitarteko eta tren berriak saiateraketa, hala nola, programak eta herrialde-estrategiak; 2005etik 2011ra gizarte-mugimenduak eragile estrategiko modura hartzea, eta horiek sendotzeko apustua egitea zuzeneko lankidetzaren bidez, GGKE-ekin aliantzak bideratuz, eta, modu integralagoan, *Guatemalako Garapenerako Euskal Lankidetzaren Estrategia*.

Ikuspegi klasikoaren eta *lurra jorratzea* etaparen arteko egoera horretatik abiatuta eraiki dugu orain aurkezten dugun proposamena, zeina kokatzen baita, gainera, GLEAk sustatzen duen lankidetzaren une berezi batean; izan ere, 2014-2017 Planak euskal lankidetzaren nortasunari buruzko eztabaida integrala planteatzen du (helburuak eta eragileak), eta orobat proposatzen du plangintza prozesuak abiatzea gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren eta bitartekoen esparruaren ebaluazioaren esparruetan, baita politiken koherentzian eragiteko prozesuak ere.

2.1.2.1. I. urratsa: Lurra modu integralean jorratzea

GLEAren epe laburreko helburua ikuspegi klasikoa gaintzea izango da, eta behin betiko iristea *lurra jorratzea* etapara. Era horretara, eragile berriek partaidetza aktibo eta kalitatezkoa izateko beharrezko baldintzak sortzea da helburua, eta eragile horiek, eragile klasikoekin batera, aliantzetan eta elkarrizketa politikoan oinarritutako prozesuak abian jartzea. Edonola ere, gizarte-mugimenduek ekintza kolektiborako molde gisa betetzen duten zereginaren aitortza azpimarratuko dugu.

Puntu honetan, trantsizio prozesua ordenatzeko aukera ematen diguten sei helburuak berreskuratuko ditugu, eta, horrekin modu koherentean bat eginez, *lurra jorratzea* etaparako helburu espezifikoen berri emango dugu.

14. koadroa. I. urratsa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarako proposamena

<p>1. helburua GGI eta pobrezia ikuspegi egiturazko, sistemiko eta konprometitutik hartzea</p>	<p>1. GGI denari eta ez denari buruzko konpromiso esplizituak</p> <p>2. Beste erreferentzia esparru batzuekiko elkarrizketa</p> <p>3. Emantzipazio prozesuen berezitasunak barneratzea</p>
<p>2. helburua Dimentsio politikoari lehentasuna ematea zeharlerroen aldeko apustuan</p>	<p>4. Leheneste sektoriala ezabatzea</p> <p>5. Leheneste geografikoa bitarteko berezietara mugatzea; ikuspegi lokala, estatu mailakoa, eskualdekkoa, globala</p> <p>6. Zeharlerroen esparrua bere gain hartzea: generoa, partaidetza, iraunkortasuna, ikuspegi lokal-globala</p> <p>7. Estrategia espezifiko bat zeharlerro bakoitzarentzat</p>
<p>3. helburua Elkarrizketa espazioak eragile berriei zabaltzea, gizarte-mugimenduei besteak beste</p>	<p>8. Eragileen erregistro inklusiboa</p> <p>9. Subjektuen eta eragileen azterketa, logika lokal-globalatik</p> <p>10. Gizarte-mugimenduen aitortza</p> <p>11. Euskal lankidetzaren eta gizarte-mugimenduen arteko aliantzan oinarritutako estrategia formulatzea</p> <p>12. GLEKren ahalmen politikoak: politiken arteko koherentzia, komunikazioa, identitatea eta euskal lankidetzaren etorkizuna</p> <p>13. GLEKren osaera berraztertzea</p> <p>14. GLEAren langile taldea handitzea eta haren gaitasunak indartzea</p>
<p>4. helburua GHri pisu politiko eta aurrekontu pisu handiagoa ematea, eta GLrekiko mugak ezabatzea</p>	<p>15. GHk aurrekontuetan duen pisua igotzea, %30eraino</p> <p>16. GHko programetarako bitartekoak sortzea</p> <p>17. Gizarte-mugimenduak lankidetzaren zuzenaren lehentasun estrategikoa gisa sendotzea</p> <p>18. Ikerketarako esparru espezifikoak sortzea</p>

<p>5. helburua Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea, murrizketen aurretiko mailan</p>	<p>19. %0,49 ehunekoa berreskuratzea, eta %0,7ra iristea, lehenbailehen</p>
<p>6. helburua Zama burokratiko arintzea, eta jarduera emantzipatzaile egokitzeko prozesuan sakontzea</p>	<p>20. Programak egiaztatze sistema errotik aldatzea</p> <p>21. Profilen arabeko formulazioa, hainbat metodologiatan oinarrituta eta rubro ezohikoak txertatuz</p> <p>22. I. eranskinen baremazio taularen eredu bere gain hartzea</p> <p>23. Txosten eta ordainketa bakarra ezartzea, eta aurrez aurreko jarraipen batzordeetan eragitea</p>

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Lehenengo helburuari dagokionez –erreferentzia esparrua zabaltzea– GLEAK atxikita du giza garapen iraunkorraren ikuspegia, eta konpromisoa du haren oinarritzko nortasun ikurrekiko: ongizatea, ahalmenak, jabeakuntza, partaidetza, ekitatea eta iraunkortasuna. Gainera, pobreziaren kontrako borroka du helburu nagusia, baina gertaera horren egiturazko azterketatik abiatuta, zuzenean berdintasunik ezarekin loturik, alegia. Ildo horretatik, iruditzen zaigu esparru aproposa dela horren gainean eraldaketa proposamen bat eraikitzeko.

Bestalde, eta esparru teorikoetatik agenda politikoetara igarota, beharrezkoa litzateke garapenaren eta lankidetzaren nazioarteko agenda ofizialei buruzko iritzi kritikoari eustea, horiek GGIren oinarrietatik urruntzen diren heinean. Era berean, eta berrikuntza gisa, honako proposamen hauek egiten dira:

- GGI erreferente hartzeak dakarrenari buruzko konpromiso esplizituak definitzea, halako eran non argi adierazten den garapena zer den eta zer ez, nork duen garapenaren eragile izaera eta nork ez.
- Estrategia espezifikokoak ezartzea, GGIk beste erreferentzia esparru batzuekin elkarriketan jardun dezan (bizimodu ona, deskolonizazioa, feminismoa, etab.), azterketa, ikerketa eta eragin politikoko prozesu kolektiboen bitartez.

- Garapen/eraldaketa ekimen ooren berezko konplexutasuna, ziurgabetasuna, dibertsitatea, dimentsio aniztasuna eta prozesu izaera esplizituki adieraztea, gero nazioarteko lankidetzako praktikara eramateko moduan.

Bigarren helburuari dagokionez –subjektu eta eragile estrategikoen aldeko apustuan aurrera egitea–, lurra jorratzea etapak lan ildoen araberako lehenespenera eustea proposatzen du –zeharkakotasunaren garrantzia nabarmenduz–; aldi berean, *nork* aldagaira zabaltzen da begirada, eraldaketa prozesuen osagai nabarmen gisa harturik. Premisa horretatik abiatuta, honakoa proposatzen da:

- Lehenespen sektoriala, edonolako ekimen eta prozesuak bultzatuz, baldin eta GGIekin koherentea bada.
- Lehenespen geografikoa bitarteko berezietara mugatzea (esaterako, herrialde-estrategiak, edo bestelako estrategia sektorialak, geografikoak edo subjektuetan oinarrituak), eta gainerako kasuetan, berriz, ikuspegi irekia bultzatzea, zeinetan bilduko diren proiektu lokalak, estatu mailakoak, eskualde mailakoak edo globalak.
- Generoak, partaidetzak, iraunkortasun ekologikoak eta ikuspegi lokal-globalak osaturiko zeharlerroen esparrua bere gain hartzea. Azken lerroa funtsezkoa da Iparra-Hegoa arteko hesia gainditzeko eta agendak ikuspegi internazionalistatik elkarri hurbiltzeko.
- Lau zeharlerro horietako bakoitzerako estrategia espezifiko bat formulatzea, horien sustapenera eduki politikoa emateko.

Hirugarren helburuari dagokionez –elkarrizketa politikorako espazio zabal eta askotarikoak eratzea–, eragileen aniztasuna zabaltzea izango litzateke funtsezko erronka, eta topagune kolektiboaren ahalmen politikoa indartzea. Ildo horretatik, zera proposatzen da:

- Nazioarteko lankidetzako eragileen erregistro inklusibo bat sortzea, jar-duera eta borondate internazionalista aintzat hartuko dituen.
- Euskadin nazioarteko lankidetzako eragile izan litezkeen aniztasunari buruzko azterketa egitea, ikuspegi lokal-globaletik, ahalmen emantzipatzaile handiena dutenen partaidetza bultzatzeko.
- Gizarte-mugimenduak modu esplizituan hartzea nazioarteko lankidetzaren eragiletzat, horiek GLEKn parte har dezaten bultzatzea eta horiek

sendotzeko eragitea, zuzeneko lankidetzaren eta GGKE-ekiko aliantzen bitartez.

- Euskal lankidetzaren eta gizarte-mugimenduen arteko aliantzari begirako estrategia espezifiko bat formulatzea, helburuei, lehentasunei eta horien arteko erlazioa estutzeko formula egokiei buruzko gogoeta estrategiko zabala eta askotarikoa ahalbidetzeko⁵¹.
- Garapenerako Euskal Lankidetzaren Kontseiluari ahalmen politiko handiagoa ematea, bereziki eragin dezan euskal lankidetzaren nortasunari eta etorkizunari buruzko azterketan, alderdi estrategikoen politiken arteko koherentzian (enpresa nazioartekotzea, hezkuntza eta ikerketa, berdintasuna, partaidetza) eta komunikazioan.
- Ildo horretatik, haren osaera berraztertzea, arlo horietan inplikazio handiena duten gizarte-eragileak eta eragile instituzionalak kontuan hartuta, eta gizarte-mugimenduek zeregin saihestezina dutela onartuta.
- GLEaren langile taldea handitzea, zeregin berriak bete ditzan (politiken koherentzia, komunikazioa, lankidetzaren nortasunari eta etorkizunari buruzko eztabaida), baina talde tekniko osoaren lehentasunen azterketa sakonetik abiatuta, proiektuei ematen zaien nagusitasuna berraztertuta, bereziki fiskalizazioaren alderdiari dagokionez. Ildo horretatik, gogoeta, eztabaida eta prestakuntzarako espazioak sustatu beharko lirarteke GLEaren barruan.

Laugarren helburuari dagokionez –Iparra-Hegoa dikotomia gainditzea– honako hau proposatzen da:

- GHren eta GLren arteko asimetria murriztea, GHren aurrekontua funts banagarrien %30era zabalduz, GL (proiektuak) proportzio berean murriztuz, eta gainerako guztiari (zuzeneko lankidetzaren eta beste arlo batzuk) gaurko mailan eutsiz.
- GHko programen bitarteko bat sortzea, arlo horretarako aurrekontua handituz, GLkoen ezaugarri berekin (hiru urteko indarraldia, luzatzeko aukerarekin, eta 1,2 milioi euro, gehienez ere; ahalmenak identifikatzeko eta sendotzeko osagaiak txertatzea), baina eragileen ahalmen emantzipatzailean oinarritutako egiaztatze sistema alternatibo bat finkatuta, funtsean.

51 Horretarako, *Guatemalako Garapenerako Euskal Lankidetzaren Estrategia* erreferentzia gisa hartu eta hari eutsi beharko litzaioke.

- Gizarte-mugimenduak sendotzea ezartzea zuzeneko lankidetzaren lehentasun estrategiko gisa.
- Ikerketa arlo espezifiko bat garatzea, kontuan hartuta ezaugarri espezifikoak eta izaera estrategikoa dituela paradigma berrietara zabaltzeko zereginean, ikuspegi akademiko zein sozialetik abiatuta.

Bosgarren helburuari dagokionez –finantzaketa sendoa eta egonkorra–, GLEAk 2012ko finantzaketa ehunekoa berrezartzea proposatzen da (%0,49), eta orobat proposatzen da konpromiso handiagoa har dezan legez ezarritako %0,7ra iristeko helburua betetzeari begira.

Azkenik, seigarren helburuari dagokionez –implementazio sistema alternatiiboak–, honako hau proposatzen da:

- Programak egiaztatzeko sistemak errotik aldatzea, beste eragile batzuei zabaltzeko.
- Profilak formulatzexearen aldeko apustua egitea, eskura dauden askotariko tresnetatik abiatuta (Piris eta del Río, 2014); ahalmenak identifikatzeko eta sendotzeko rubroak barne hartzea, eraldaketa prozesu orearen berezko osagai gisa hartuta, eta finkatutako mugak berraztertzea.
- Baremazio taulak berrikustea, I. eranskinean proposatutako ereduaren eta irizpideen arabera.
- Txosten eta ordainketa bakarra ezartzea, eta aurrez aurreko jarraipen batzordeetan eragitea. Egoitzan egindako ikuskaritzak baliozko txosten ekonomiko gisa baliatzeko aukera aztertzea.

2.1.2.2. II. urratsa: Konplizitateak ereitea eta berreskuratzea

Konplizitateak ereitea etaparen postulatueta aurrera egitea da bigarren urrats gisa proposatzen dugun apustu nagusia. Alderdi horretatik, kontua ez da bidea garbitzea, besterik gabe, eragile estrategiko gehiago txertatzeko, baizik eta eragileekiko aliantzak egiteko aukera emango duten mekanismo espezifikoak finkatzea, modu proaktiboan.

Premisa horretatik abiatuta, erreferentziazko etapari –*konplizitateak ereitea*– atxikitako sei helburuetarako proposamenak definitu ditugu, I. urratsean ezarritako helburuak betetzat emanik eta, hortaz, horiek errepikatu gabe.

15. koadroa. II. urratsa: Garapenerako Lankidetzaren
Euskal Agentziarako proposamena

1. helburua Pobreziatik mendekotasun eta asimetria globaletara	1. Helburu nagusia: pobrezia gainditzea
2. helburua Bi motatako lehentasunak: zeharlerroak eta subjektuak	2. Subjektu estrategikoak aukeratzea 3. Lehentasunezko zeharlerroei eustea
3. helburua Subjektu estrategikoen arteko elkarrizketa politikoa sendotzea	4. Kontseiluen osaera berraztertzea, subjektu estrategikoak kontuan hartuta 5. Kontseiluaren ahalmenak zabaltzea: kontu ematea eta analisi politikoa 6. Lehenetsitako subjektu bakoitzeko estrategia espezifiko bat formulatzea 7. Kontseilua aurrekontu propioaz hornitzea 8. GLEAn politiken koherentziaren eta kontu ematearen unitatea; komunikazioa; azterketa politikoa
4. helburua Arloen bikoiztasuna: espezifikoak, subjektu estrategikoentzat, GLk eta GHK antzeko pisua izatea	9. GHri eta GLri pisu bera ematea aurrekontuetan 10. Programei lehentasuna ematea proiektuen gaintik 11. Subjektu estrategikoak sendotzera bideratzea zuzeneko lankidetzara 12. K2 eragile ez-klasikoak sendotzeko arlo espezifiko bihurtzea
5. helburua Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea, %0,7koa eta gutxienekoetakoa, subjektu estrategikoentzat	13. %0,7ra iristea 14. Finantzaketa formula osagarriak aztertzea 15. Subjektu estrategiko bakoitzerako gutxieneko aurrekontuak definitzea
6. helburua Bitarteko berriak, ebaluazioaren eta kontu ematearen aldeko apustu estrategikoa	16. Bitarteko berria, zuzeneko hitzarmenatarako eta arlo berrirako 17. Ebaluazio estrategia 18. Kontu emateko estrategia

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Lehenengo helburuari dagokionez –erreferentzia esparrua zabaltzea–, GLEAk GGIren aldeko apustuari eutsiko lioke, baina beste erreferentzia esparru batzuekiko elkarrizketan sakonduz, estrategiko jotzen diren subjektuentzat garrantzizkoak diren esparruekikoan bereziki. Bada proposamen berritzaile bat: pobrezia gainditzetik harago, helburu nagusia izakien, botereen eta jakintzen asimetriari zabaltzen da.

Bigarren helburuari dagokionez, lehenespena ez da mugatzen zeharlerroetara; aitzitik, ahalmen emantzipatzaile berezia duten subjektuen eta eragile estrategikoen hautaketarekin konbinatzen da. Ildo horretatik, honako proposamen hau egiten da:

- Euskal lankidetzarako subjektu estrategikoak hautatzea, aldez aurretik azterketa bat eginez, 1. urratsean proposatu bezala.
- Zeharlerroei aitortutako lehentasunari eustea: generoa, partaidetza, iraunkortasun ekologikoa, ikuspegi lokal-globala.

Hirugarren helburuari dagokionez – elkarrizketa politikorako espazio zabal eta askotarikoak eratzea–, helburua topagune kolektiboen ahalmen politikoak indartzea eta zabaltzea litzateke, subjektu estrategikotzat hartu direnetara egokitzeko. Horretarako, honako proposamen hau egiten da:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren osaera berraztertzea, lehentasunezko subjektuen arabera, horien barruan sartuta eragile adierazgarrienak.
- GLEAren ahalmenak handitzea, eta aurretik finkatuta daudenei (politiken koherentziaren estrategia integrala, komunikazioa, plangintza eta ebaluazioa) gehitzea kontu ematea eta subjektu estrategikoei lotutako alderdiei buruzko azterketa politikoa.
- Lehenetsitako subjektu bakoitzerako estrategia espezifiko bat formulatzea.
- GLEK aurrekontu propioaz hornitzea, bere helburuak bete ahal izan ditzan, eragile parte-hartzaileen simetriatik abiatuta.
- GLEKren langile taldea handitzea, politiken koherentziako eta kontu emateko unitate bat, komunikazio unitate bat eta analisi politikoko unitate bat sendotzeko.

Laugarren helburuari dagokionez –Iparra-Hegoa dikotomia gainditzea–, honako hau proposatzen da:

- GHren eta GLren pisu politikoa eta aurrekontu pisua berdintzea (funts banagarrien %37,5-40 inguru, bakoitzerako).
- Proiektuen gaintik programei lehentasuna ematea, bai GHri bai GLri dagokienez, epe luzera barneratzeko ikuspegia, lokala-globala lotura eta askotariko eragileek agenda komunetan parte hartzea.
- Zuzeneko lankidetzak subjektu eta eragile estrategikoen ahalmenak sendotzera bideratzea soil-soilik (funts banagarrien %10).
- II. kapitulum (K2) eragile ez-klasikoak sendotzeko eta horien arteko aliantzak osatzeko arlo espezifiko bihurtzea, lehentasuna emanez gizarte-mugimenduei⁵²; arlo horretara bideratuko lirake funts erabilgarrien %5-10, gutxienez. Aldi berean, sendotzeari dagozkion gainerako deialdietarako aurrekontuei eutsiko zaie (KOP, GBA, etab.).

Bosgarren helburuari dagokionez –finantzaketa sendoa eta egonkorra–, honakoa proposatzen da:

- %0,7ra iristea.
- Finantzaketa formula osagarriak ikertzea, ordainarazpenezkoak barne.
- Hautatutako subjektu estrategiko bakoitzerako gutxienerako aurrekontu bat definitzea, ez soilik haien arlo espezifikoetarako, baizik eta politika publikoaren aurrekontu osoari loturik.

Azkenik, seigarren helburuari dagokionez –implementazio sistema alternatiboak–, proposamen hau egiten da:

- *Elkartasun internazionalistako ekimena* bitarteko berria erabiltzea zuzeneko hitzarmenetan eta eragile ez-klasikoak sendotzeko eta horien arteko aliantzak indartzeko arlo berrian.
- Antolamendu, prozesu, apustu estrategiko edo politiken ebaluazioetarako bidea irekiko duen ebaluazio estrategia bat garatzea.
- Kontu emate estrategia anitz, integral eta elkarrekiko garatzea, oinarri gisa Kontseilua hartuta.

52 Arlo berriaren edukia ez litzateke mugatuko garapen produktibo, prestakuntza eta laguntza tekniko proiektuetara, eta subjektu eta eragile ez-klasikoen sendotze eta aliantza modura hartzen den guztira zabalduko litzateke, *konplizitateak ereitea* etapan azaldutakoaren ildotik.

2.2. Gipuzkoako Foru Aldundia: trantsizio proposamena

Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), gaur egun indarrean den planetik abiatuta (2013-2016), norabidea aldatu du nazioarteko lankidetzaren ikuspegi estrategikoari dagokionez. Ikuspegi berria EIAA agendaren postulatueta hurbiltzen da, batez ere *subjektu eraldatzaileak sendotzeari* dagokionez –gizarte-mugimenduen zeregina bereziki nabarmentzen dela–; izan ere, ideia hori da lankidetzeta politika eraldatzailea aurrera eramateko indar-idea nagusietako bat, giza garapen iraunkorraren garapena sustatzearekin eta bazterketaren kausak errotik erauztearekin batera.

Alderdi horretatik, *subjektuaren aldeko apustu* hori edukiz janzen saiatu da, eta, hala, modu aktiboan egin du eragile berriak –bereziki gizarte-mugimenduak– txertatzearen alde, baita horien ohiko jardunaren berrazterketa erabatekoa egitearen alde ere, eragile berriak modu natural eta estrategikoan barneratzeari begira.

Horregatik uste dugu GFA gaur egun esperimentazio laborategi moduko bat dela, EIAA agendari dagokionez bereziki eta lankidetzeta eraldatzaileari dagokionez, oro har, eta laborategi horretan proposamenak saiatzen ari direla eta balio handiko ikaskuntzak ateratzen direla beste norabide batean doan borondate politiko jakin bat –aldekoa ez den testuinguru batean– ekintzaren alorrera eramateko baldintzei buruz.

Hori da, hain zuzen ere, ikerketa honetan GFaren kasua aztertzeak dakarren balio erantsia. Kudeatutako funts kopurua, nazioartean jarduteko ahalmena, ibilbide historikoa⁵³ eta GFaren erakarpen efektua, GLEaren oso bestelako maila batean daude. Edonola ere, legealdi honetan azaldu diren apustu estrategikoen bidez, aukera dugu inplementazioan izan diren aurrerapausoak eta oztopoak aztertzeke, eta, aldi berean, lankidetzeta deszentralizatuak –baldin eta beharrezko argitasun politikoa eta ahalmenak baditu– har ditzakeen norabide berrietara garamatzate.

53 GFak modu autonomoan definitzen du bere lankidetzeta politika 2004. urtetik; une horretan utzi zion Garapenerako Lankidetzeta eta Laguntza Funtsari (FOCAD) ekarpenak egiteari; hasieran, Eusko Jaurilaritzak eta hiru aldundiek parte hartzen zuten funts horretan, baina ordurako alde eginda zeuden Araba eta Bizkaia ere (2001ean eta 2003an, hurrenez hurren).

2.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren diagnostikoa⁵⁴

Diagnostikoari ekiteko, hainbat gogoeta egingo ditugu GFAk gaur egun duen nazioarteko lankidetzako politikaren eta lankidetzaren deszentralizatuaren gure erreferentzia esparru kritikoaren arteko harremanari buruz.

Lehenik eta behin, GFAk nazioarteko elkartasunean egindakoa *lankidetzaren politika* den edo *garapenaren politika* den definitzeari dagokionez, lehenengo kategoriaren alde jo beharko genuke; izan ere, gaur egun, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren funtsezko lana eremu horretako funts espezifikoen kudeaketan oinarritzen da, baina oraindik ez da garatu GFAREN gobernu ekintza osoa kontuan hartuko duen proposamen internazionalistarik, ezta Gipuzkoako lurralde osoa hartuko duena ere.

Egiaztapen horretatik abiatuta, eta aurrekontu jakin bat eraldaketaren ikuspegitik kudeatzeari loturik, berariazko apustu estrategikoak definitzen saiatu da Gipuzkoako lankidetzaren. Horrek nolabaiteko distantzia markatzen du lankidetzaren ikuspegi mugatuak atxikirik izaten dituen ezaugarriekiko, garapenaren ikuspegi zabalagoari atxikitakoen mesedetan (subsidiaritasuna, mendekotasuna eta loturarik eza), aurretik ikusi bezala.

Izaera subsidiarioari dagokionez, GFA da krisia gorabehera lankidetzako diru partidak modu esponontzialean murriztu ez dituen administrazio publiko bakarrenetakoa; aitzitik, eutsi egin die, eta baita pixka bat igo ere, alor horretan egindako ahaleginei (aurrekontuaren %0,59, 2014an; %0,57, 2011n⁵⁵). Horrek agerian uzten du nazioarteko lankidetzaren garrantziko politika publikoa dela, eta ez duela testuinguru ekonomikoaren ondoriozko higadura berezirik jasan.

Dinamika nagusiei buruzko mendekotasunari dagokionez, GFA oso kritiko agertu izan da garapenaren eta lankidetzaren agenda ofizialak direla-eta; are gehiago: kapitalismo inklusiboaren bidez, pobreziaren kontra egiteko estrategia gisa hazkunde ekonomikoa berreskuratuz eta aliantza publiko-privatuen gisako bitarteko berrien bidez lankidetzaren irabazi asmoarekin lotzen saiatzen diren egoera berrien kontra agertu da.

⁵⁴ Informazio gehiagorako, ikus Piris eta del Río (2014:49-93).

⁵⁵ Azken urteetan, GFAk nazioarteko lankidetzaren bideratutako ehunekoei eutsi die, eta, are gehiago, pixka bat igo ditu: %0,57, 2011n; %0,60, 2012an; %0,58, 2013an, eta %0,59, 2014an, (urte horretan bertan, zenbateko absolutua 3.950.840,00 izan zen. (GFAk berak emandako datuak).

Ildo horretatik, hainbat apustu definitu ditu, modu autonomoan, eta konpromiso sendoa hartu du giza garapen iraunkorraren alde (GGI): subjektu eraldatzaileak sendotzea, indar-idea gisa; gizartea eraldatzeko hezkuntza (GEH); bazterketaren kontrako gizarte-politikak, elkartasun internazionalista beste gobernu esparru batzuekin lotzeko aukera gisa⁵⁶. Lehentasun horiek aurrez aurre jartzen ditu gaur egun nazioarteko lankidetzaren joerak, eta borondate berezko eta independentea erakusten dute. Edonola ere, autonomia maila txikiagoa da apustu horiek praktikara eraman nahi izaten direnean, oso nabarmena baita *proiektukako jardunaren* pisua.

Azkenik, eta GFAk bultzatutako nazioarteko lankidetzaren eta gobernu ekintza orokorraren arteko loturari buruz ari garela, oro har, bide paraleloak egiten dituzte, eta ekimen berezietan baino ez dute elkarrekin topo egiten. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da Gizarte Politikako Departamentuarekiko lotura, Habana Zaharrean (Kuba) Euskal Fondoarekin batera garatutako zuzeneko lankidetzan, Berdintasun Zuzendaritzarekin batera Emakumeen Munduko Martxari laguntza emateko elkarrekin egindako ekimenak eta Saharan giza eskubideetan eragiteko estrategia –Euskal Fondoarekin batera–.

Gure erreferentzia esparru kiritikoaren bigarren indar-ideiari dagokionez –askotariko eragileen arteko elkarriketa politikoa–, GFAk ateak zabaldu dizkie eragile berriei –gizarte-mugimenduei eta bestelako erakunde batzuei, bereziki–, baina ez du arlo espezifikorik sortu eragile berriek eta zaharrak elkarrekin eztabaidatu, hitz egin eta eraiki dezaten.

Horixe da EIAA agendaren postulatuetan aurrera egiteko muga nagusietako bat, lankidetzako eragileen aniztasuna zabaltzeko ezinbestekoa baita, aldi berean, horiek topatzeko espazioak eraikitzea, horietatik abiatuta politiken koherentzia, kontu ematea, plangintzak, komunikazioa, etab. Lantzeko prozesuak aurrera eraman ditzaten.

Azkenik, eta esparru kritikoaren hirugarren indar-ideian sakonduz –*proiektu-tako jarduna* gainditzea–, GFAREN nazioarteko lankidetzeta jarduna, gaur egun, proiektuetatik abiatuta eraikitzen da, eta hori da administrazioaren eta entitateen arteko erlazioak eraikitzeko formula. Gainera, formulazio, baremazio eta jarraipen logikak lankidetzeta deszentralizatuaren ohiko klabeen arabera definitzen da oraindik ere, dimentsio politikoaren garapenean eta esparru berrien esperimentuan aurrerakuntza handiak egin badira ere (deialdiaren

56 Garapenerako Lankidetzeta Zuzendaritza Gizarte Politikako Departamentuaren barruan dago.

III. eranskinean bezala, esaterako, berariaz eragile klasikoak ez direnentzat, ikusiko dugun bezala).

Azken batean, GFaren politika nazioarteko lankidetzaren paradigma kode emantzipatzaileetatik abiatuta eraldatzeko apustu argia dela esan dezakegu; baina oraindik bide luzea du egiteko, inplementazioari dagokionez eta Gipuzkoako lurraldean elkarriketa politiko internazionalista eta emantzipatzailea sustatzeari dagokionez.

Gogoeta orokor horietatik abiatuta, GFAk bultzatutako lankidetzaren diagnostikoaren ondorio nagusiak azalduko ditugu ondoren, ikuspegi klasikoaren kategorien arabera.

16. koadroa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren diagnostikoaren sintesia

1. Erreferentzia esparrua eta lehentasunak

a. Erreferentzia esparrua: giza garapen iraunkorra

b. Helburu nagusia: bazterketaren kausen kontrako borroka eta subjektu eraldatzaileen babesa

c. Lehentasunak: izaera bikoitza: alde batetik, zeharkako lehenespena GLn eta GEHn (generoa, partaidetza eta giza eskubideak partekatzen dituzte; GLk tokiko gaitasunak txertatzen ditu eta GEHk ikuspegi lokal-globala); beste alde batetik, lehentasuna ematen die Via Campesina eta Emakumeen Munduko Martxari, subjektu estrategiko gisa

d. Arloak: ikuspegi klasikoan oinarrituak: garapenerako lankidetzeta (GL); ikuspegi irekia eta GEHren indar politikoari eta aurrekontuei dagokiena; Subjektuen ikuspegian oinarrituak: arlo espezifikoa eragile ez-klasikoentzat, gizarte-mugimenduei lehentasuna emanez (III. eranskina); zuzeneko lankidetzeta, zeinetan nabarmentzen den Euskal Fondoari (EF) eta subjektu estrategikoak indartzeko laguntza

<p>2. Inplementazio sistemak</p>	<p>e. Finantzaketa: lankidetzeta politika publiko gisa hartzea, eta aurrekontuari dagokionez %0,6an kokatzea; GLren lehentasuna (%56), GEHren pisu nabarmena (%20), III. eranskina (%4) esperientzia pilotu gisa. Zuzeneko lankidetzaren barruan, ekarpena EFri (%5), zuzeneko hitzarmenak (%15)</p> <p>f. Ekimenak sustatzeko dinamikak: deialdi publikoen hegemonia (%80) zuzeneko lankidetzaren aldean (%20)</p> <p>g. Bitartekoak: proiektuen pisu espezifikoak, baina III. eranskinaren berezitasunarekin</p> <p>h. Tresnak eta baldintzak: ziurtasuna ziurgabetasunaren aurrez aurre, dimentsio politikoa aintzat hartzen da, balioa ematen zaio politikoari baina garrantzizko pisua teknikoari; oraindik ere ikuskaritzaren nolabaiteko logikari eusten zaio, konfiantzaren logikari baino gehiago</p>
<p>3. Eragileen arteko erlazioak</p>	<p>i. Administrazio publikoen ahalmenak eta zeregina: oso talde mugatua, proposatzen diren apustu estrategikoak garatzeko</p> <p>j. Aitortza: eragile klasikoak aitortzea, baina gainera gizarte-mugimenduak hartzen ditu modu esplizituan. Argi eta garbi baztertzen ditu enpresa kapitalistak eta irabazi asmoa</p> <p>k. Erlazioak: funtsean aldebikoa, eta jarraipen txostenen eta batzordeen arabera; Gipuzkoan nabarmena da artikulazio, eztabaida eta elkarrizketa politikorako espazioen bultzadarik eza</p>

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Erreferentzia esparruari eta lehentasunei⁵⁷ dagokienez, GFAk defendatzen duen nazioarteko lankidetzeta politikak “izaera eraldatzailea du, eta giza garapen iraunkorrean, bazterketaren kausak ezabatzean eta subjektu eraldatzaileei laguntzean oinarritzen da” (GFA, 2013). Era horretara, GGI hartzen da erreferentzia esparru gisa, eta bazterketa ezabatzea eta subjektu eraldatzaileei

57 Datu guztiak GFAn oinarrituak (2013 eta 2014).

laguntzea helburu nagusi gisa; horrek azpimarratu egiten du nazioarteko lankidetzaren ikuspegi politikoa.

Beste alde batetik, eta lehen esan bezala, garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren agenda ofizialen kritika sakona egiten da, eta, aldi berean, zehaztu egiten da beharrezkoa dela arauzko beste erreferente batzuekin jardutea, hala nola, bizimodu ona, elikadura burujabetza eta bizitzaren iraunkortasuna.

Alderdi horretatik, GFAk bultzatzen duen ikuspegi estrategikoa (erreferentzia esparrua-helburu nagusia) gauza askotan dator bat EIAA agendaren postulatuekin (lehenengo kapituluuan ikusi bezala) eta abiapuntu egokia da horien inplementazioari dagokionez aurrera egiteko.

Lehentasunezko arlo eta ildoiei dagokienez, GFAk birformulatu egin du ikuspegi klasikoan nagusi den logika, bere apustu estrategikoetara egokitzeko. Era horretara, eta trantsizio proposamen batetik abiatuta, lehenespene bikoitza proposatzen du: alde batetik, GLren eta GEHren zeharlerroen lehentasunari eusten die, eta ezabatu egin du lehentasun geografiko eta sektorial oro⁵⁸. Ildo horiek, bai GLk bai GEHk partekatzen dituztenak, hiru dira: generoa, partaidetza eta giza eskubideak. GLk beste bat eransten die –tokiko gaitasunak–, GEHk, aldiz, ikuspegi lokal-globala, zeinaren bidez lotu nahi baitira Gipuzkoako agendak nazioarteko agendekin.

Aldi berean, eta beste alde batetik, GFAk subjektu estrategikoei lehentasuna emateko apustua egiten du, eta horiei bi arlo espezifiko eskaintzen dizkie: zuzeneko lankidetzak eta eragile ez-klasikoentzako deialdi berezi bat (III. eranskina), Gipuzkoako askotariko mugimenduen estrategiak sendotzeko helburuarekin –zentzu zabalean–. Zehazki, gizarte-mugimenduekiko –eta horien barruan La Vía Campesina (LVC) eta Emakumeen Munduko Martxaren aldeko apustua– eta Euskal Fondoarekiko aliantza –udal logika baten barruan– nabarmentzen da.

Bigarren kategorian sartuta –inplementazio sistemak–, azpimarratzekoa da, lehenik, GFAk aurrekontuetan nazioarteko lankidetzarekin duen konpromisoa; izan ere, eutsi egin die funtsei bai kopuru absolutuetan bai ehunekoetan, nahiz eta aurrekontuetan murrizketak egon (2014an %0,59, 4 milioi euro inguru).

58 GEHri dagokionez, lehentasun hauek zehazten dira: esperientzia alternatiboak, eragin politikoa, mugimenduak eta sareak sendotzea, partaidetza bidezko ikerketak. Horien xedea pedagogikoa da –alegia, GEHren sentsibilizaziotik haragoko apustu bat adieraztea–, jarduera arloak zehaztea baino gehiago.

Aurrekontua banatzeko sistemari dagokionez, deialdi publikoa da formula hegemonikoa, eta horretara bideratzen dira funts banagarrien ia %80⁵⁹; zuzeneko hitzarmenetara bideratzen da gainerakoa (Euskal Fondoa %5, askotariko gizarte-eragileak %15, horien artean LVC eta Emakumeen Aldeko Martxa). Deialdien artean, gehienak GLra bideratuak dira (I. eranskina, %56), ondoren GEHra bideratuak (II. eranskina, %20), eta eragile ez-klasikoak indartzeari dagozkionak (III. eranskina) funts banagarrien %4an kokatzen dira, gutxi gorabehera. Gainera, 2013-2016 planak ezarri du funts horien %35 gutxienez emakumeen jabekuntzara eta/edo mugimendu feministak sendotzera bideratuko dela, eta politika publiko osoari eragiten dio horrek.

Bitartekoei dagokienez, proiektuak du nagusitasuna, III. eranskinean txertatutako ekimenen kasuan izan ezik; horientzat apaldu egiten da formulazioaren eskakizun maila, nahiz eta helburu, emaitza, jarduera eta baliabideen ohiko ikuspegiari eusten zaion. GLren kasuan, gehienera 150.000 euroko muga jartzen da proiektuko, eta 2 urteko indarraldia (luza daitekeena); aldiz, GEHn, eutsi egiten zaio indarraldi horri, baina ezin dute 80.000 eurotik gorakoak izan -100.000 euro, partzuergoa bada-. Bestalde, III. eranskineko proiektuek, esperientzia pilotutzat hartzen direnez, ezin dute 24.000 eurotik gorakoak izan, eta 12 hilabeteko proposamenak dira (luzagarriak).

Ekimen nahiko handiak dira, beraz, baina GLk GEHren gain duen pisu erlatiboa sumatzen da oraindik ere.

Azkenik, tresnak eta baldintzak landuko ditugu, hau da, GFak bultzatutako lankidetzaren benetako jarduna:

- Hasierako baldintzak: GLren kasuan, nazioarteko lankidetzaren aldeko apustua estatutuetan berariaz adieraztea eskatzen da, edo aldi horretan eremu internazionalistan jarduten dela egiaztatzea, gutxienez (I. eranskina). GEHren kasuan, nahikoa litzateke sareetan parte hartzea eta/edo aurreko urtean jardueraren bat egin dela frogatzea.
- Formulazioa: esparru logikoaren ikuspegia (ELI) da tresna hegemonikoa proiektuaren bizitza ziklo osoan, eta, hala, kausa-efektu erlazioa estrategikoa da helburuak, emaitzak, jarduerak, baliabideak eta hipotesiak zehazteko. Ziurtasuna eta zehaztapena berariaz balioesten dira, eta bi-hiru urterako jomugak eta adierazleak finkatzeko betebeharra ezartzen da,

59 Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren beraren datuak, 2012.-2014. urteetakoak.

emantzipazio prozesuen konplexutasuna eta ziurgabetasuna aintzat hartu gabe. Aurrekontuetan kontzeptuen egozpena ohiko kanonen arabera egiten da, nahiz eta prozesuetan *nork* aldagaia hobeto ulertzeko, modu inklusiboagoan jardun behar den eta muga gutxiago jarri behar zaizkie zenbait kontu saili.

- Baremazioa: GLEAren kasuan gertatzen den bezala, dimentsio politikoa baremaziora eraman dela egiaztatu da, eta GGI ikuspegiari eta bereziki zeharlerroei lotutako irizpide argiak zehaztu direla. Edonola ere, irizpide teknikoen garrantziak horretan dirau, eta, esperientziari ematen zaion balioarekin batera, nolabaiteko muga dira eragile berriak sartzeko.

Tentsio hori GLn zein GEHn egiaztatzen da. GLn, erakundeek puntuazioaren %30 hartzen dute (%15 eskatzaileak, eta %15 tokikoak), proposamenak %70 (%38 hainbat gai, eta %32 zeharkakoak). GEHn, erakunde eskatzaileak %17 hartzen du, eta proposamenak, berriz, %83 (%49 kalitate teknikoa, eta %34 zeharlerroak). Era horretara, subjektuen eta dimentsio politikoaren aldeko apustuak baremaziora eraman dira behin betiko, nahiz eta garrantzizko aurrerabideak egin direla ikusi den.

- Jarraipena: jarraipena txostenen bidez egiten da (bi I. eta II. eranskinentzat; bat III. eranskinarentzat), deialdietan ezarritako ordainketei loturik. Zuzeneko hitzarmenetan, erlazio estuagoa dago, eta azterketa politikoa jarraipen batzordeen bidez egiteko aukera dago horrela.
- Ebaluazioa: proiektuen ebaluazioa ahalbidetzen da, baina erakundearen beraren ikaskuntza logikatik, ez esperientziak partekatzeko logikatik. Ez da egiten, halaber, antolamendu, prozesu, apustu estrategiko edo politiken ebaluaziorik ikuspegi orokorragotik.
- Kontu ematea: jarraipenarekin lotzen da funtsean, eta deialdien emaitzei buruzko urteko txosten batera mugatzen da, zeinetan Planean azaldutako konpromisoekiko koherentziari buruzko datu kuantitatiboak azpimarratzen diren. Ez dago elkartzeko espazio kolektiborik, eta horrek asko zailtzen ditu zentzu horretako estrategiak.

Azkenik, hirugarren kategorian –eragileen arteko erlazioa–, eta GFaren Garapenerako Lankidetzazuzendaritza beretik hasita, Gizarte Politikako Departamentuan kokatzen da zuzendaritza. Zuzendari batek, aholkulari batek (saileko beste lan batzuk ere betetzen ditu) eta nazioarteko lankidetzan nolabaiteko prestakuntza duten 2 administrarik osatzen dute taldea, gaur egun.

Gure iritziz, talde hori ez da nahikoa egindako apustu estrategikoei beharrezko barmekin ekin ahal izateko.

Eragileen aitortzari dagokionez, gaur egungo Plan estrategikoak esplizitatzen ditu Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza, GKEak eta bestelako gizarte-erakunde batzuk, gizarte-mugimenduak, Euskal Fonda eta euskal erakunde publikoak. Ildo horretatik, nabarmena da gizarte-mugimenduen aldeko apustua, lankidetzaren logika emantzipatzaile berrietara zabaltzeko asmo nabarmenarekin.

Azkenik, eragileen arteko erlazioen formulari dagokionez, aurretik esan bezala, lurraldeko askotariko eragileentzako topagune kolektiborik ez dagoela egiazatu da; hori dela eta, gaur egun administrazioarekiko aldeko harremana nagusitzen da –GGKE-en kasuan izan ezik, zuzeneko harremana baitute Koordinakundearen bitartez–.

Azken batean, GFAk garrantzizko urratsak egin ditu –eta haize kontra, gainera– nazioarteko lankidetzaren ikuspegi berriak proposatu baititu kode eraldatzaileagoetatik eta EIAA agendaren postulatuaren hurbilagoetatik abiatuta. Ildo horretatik, aldatu egin du lehentasunen sistema, eragile berrien aliantza bultzatu du –gizarte-mugimenduak nagusi direla–, eta prest agertzen da apustu strategiko horiek nazioarteko elkartasunean duen jardunera eramateko, bide horretan zer egin asko baitago oraindik ere. Horretarako, estrategikoa da elkartasun internazionalistako egitura sendoagoa edukitzea Gipuzkoan, administrazio publikoan talde zabalago bat osatuz eta elkartasun internazionalistaren inguruan elkarrizketa politikoa bideratzeko espazio berri bat eratuz.

2.2.2. Gipuzkoako Foru Aldundirako proposamena

GFAk bultzatutako lankidetzaren *konplizitateak eritea* etapan kokatuko dugu –ikuspegi strategikoari eta lehentasunen eta esparruen garapenera dagokionez, behintzat–, baina *lurra jorratzea* erabat gainditu gabe –eragileen arteko erlazioari eta inplementazio-sistemari dagokienez batez ere–.

Ildo horretatik, alde nabarmena dago, oraindik, borondate politikoa eta benetako jardunaren artean; alde hori txikitzea izango da, hortaz, orain aurkeztuko dugun proposamenaren helburu nagusia.

2.2.2.1. I. urratsa: Konplizitateak ereitea eta sendotzea

GFaren epe laburreko helburua *konplizitateak ereitea* etapara behin betiko iristea izango da. Eta esan bezala, *lurra jorratzea* etapa oraindik erabat gainditu ez bada ere, uste osoa dugu esplizitatutako borondate politikoak eta orain arteko esperientziak halako erronka bati aurre egiteko aukera ematen duela.

17. koadroa. I. urratsa: Gipuzkoako Foru Aldundirako proposamena

1. helburua Pobreziatik mendekotasun eta asimetria globaletara	1. Helburu nagusia: bazterketa gainditzea 2. Emantzipazio prozesuen berezitasunak modu esplizituan barnertzea
2. helburua Bi motatako lehentasunak: zeharlerroak eta subjektuak	3. Gipuzkoako subjektu eta eragile estrategikoen azterketa espezifikoak 4. Zeharlerroen esparrua bateratzea
3. helburua Helburua: subjektu estrategikoen arteko elkarrizketa politikoa sendotzea	5. Subjektu estrategikoen arteko elkarrizketa politiko internazionalistarako Gipuzkoako espazioa eraikitzea eta dinamizatzea 6. Lehendakaritzaren Kabinetearen barruan kokatzea Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza 7. Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzaren langile taldea handitzea
4. helburua Arloen bikoiztasuna: espezifikoak, subjektu estrategikoentzat, GLK eta GHK antzeko pisua izatea	8. GEHK aurrekontuan duten pisua %35era igotzea 9. III. eranskinaren oinarriak aldatzea, EIAA agendara egokitu daitezen
5. helburua Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea, %0,7koa eta gutxienekoetakoa, subjektu estrategikoentzat	10. 2016an %0,7ra iristea 11. Finantzaketa formula osagarriak aztertzea 12. Subjektu estrategiko bakoitzerako gutxieneko aurrekontuak definitzea

6. helburua
Bitarteko berriak,
ebaluazioaren eta kontu
ematearen aldeko apustu
estrategikoa

13. GEHn eta GLn proiektuko gehieneko muga
berdintzea, eta 150.000 €-an finkatzea

14. III. eranskinaren gehieneko muga 50.000
€-ra handitzea

15. Profilen araberako formulazioa, hainbat
metodologiatan oinarrituta eta rubro
ezohikoak txertatuz

16. Zuzeneko lankidetzan eta III. eranskinan
elkartasun internazionalistako ekimenaren
logika txertatzea

17. I. eranskineko baremazio taularen eredia
bere gain hartzea

18. Txosten eta ordainketa bakarria ezartzea,
eta aurrez aurreko jarraipen batzordeetan
eragitea

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Lehenengo helburuari dagokionez –erreferentzia esparrua zabaltzea–, GFAk EIAA agendatik oso hurbileko azterketa egiten du; hori dela eta, errealitate orokorrari buruz duen ikuspegiaren profil kritikoa sendotzetik eta emantzipazio subjektuen aldeko apustutik abiatuta, honako hau proposatzen dugu:

- Bazterketa gainditzetik harago eramatea helburu nagusia, izatearen, boterearen eta jakitearen asimetria orokorrak gainditzean kokatuz azterketa politikoa.
- Garapen/eraldaketa ekimen orenen berezko konplexutasuna, ziurgabetasuna, dibertsitatea, dimentsio aniztasuna eta prozesu izaera esplizituki adieraztea, gero nazioarteko lankidetzako praktikara eramateko moduan.

Bigarren helburuari dagokionez –subjektu eta eragile estrategikoen aldeko apustuan aurrera egitea–, zeharlerroen arabera alde batetik eta emantzipazio subjektuen arabera bestetik leheneste bikoitzari eustea proposatzen da. Premisa horretatik abiatuta, honako hau proposatzen da:

- Emantzipazio subjektu eta eragile estrategikoen aldeko apustua sendotzea eta indartzea. Horretarako, Gipuzkoan nazioarteko lankidetzan egon litezkeen eragileen aniztasunari buruzko azterketa bat egingo da, ikuspegi lokal-globaletik abiatuta, ahalmen emantzipatzaile handiena dutenen partaidetza bultzatzeko xedearekin.

- GLri eta GEHri dagokienez zeharlerroetan oinarritutako lehentasunari eustea, esparru komun baten barruan: generoa, partaidetza, iraunkortasun ekologikoa, ikuspegi lokal-globala.

Hirugarren helburuari dagokionez –elkarrizketa politikorako espazio zabal eta askotarikoak eratzea–, eta Gipuzkoan subjektuei eta eragile estrategikoenei buruzko azterketa egin ondoren, honakoa proposatzen da:

- Subjektu estrategikoen arteko elkarrizketa politiko internazionalistarako Gipuzkoako espazioa eratzea eta dinamizatzea, zeinak bere gain hartuko dituen plangintza egiteko, ebaluatzeko eta politiken koherentzia bilatzeko funtzioak, subjektu estrategikoentzat⁶⁰ interes berezia duten arloetan, kontu ematean eta komunikazioan. Espazio horrek, aurrekaririk ez duenez, subjektu estrategikoei lotutako askotariko eragileekin jardun behar luke hasieratik beretik (gizarte-mugimenduak, GGKEak, unibertsitateak, erakundeak, Euskal Fondoa, bestelako gizarte-erakunde batzuk, etab.). Gainera, aurrekontu berezia edukiko luke.
- Lehendakaritzaren Kabinetea Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzara aldatzea, baldin eta elkartasun internazionalistaren zeharkakotasuna ziurtatzeko baldintza politikoak betetzen badira eta politiken koherentziari begirako estrategia bat aurrera eramateko aukera badago.
- GFaren langile taldea handitzea, gutxienez hiru lagun gehiago sartuta, ekimenen jarraipena egiteko, politiken koherentziari eusteko eta kontu emateko eta emantzipazio subjektu estrategikoei buruzko azterketa politikoaz arduratzeko, hurrenez hurren. Ildo beretik, talde osoarentzako eztabaida, gogoeta eta prestakuntza esparruak bultzatu beharko lirатеke.

Laugarren helburuari dagokionez –Iparra-Hegoa dikotomia gainditzea–, honakoa proposatzen da:

- GEHren eta GLren arteko asimetria murriztea, GEHren aurrekontua funts banagarrien %35era zabalduz, GLrena proportzio berean murriztuz, eta zuzeneko lankidetzari eta III. eranskinari gaur egungo baldintzetan utsiz.

⁶⁰ Gaur egun indarrean daudenei utsiz gero –subjektu nekazaria eta feminista– bereziki eragin beharko litzateke politiken koherentziaren alde, nekazaritzan, berdintasunean eta partaidetzan. Horiek hartu beharko lirатеke emantzipaziorako politiken koherentziaren estrategiarako abiapuntu modura, hortik aurrera zeharka aurrera egiteko gobernu ekingintza osoan, *espazioaren* beraren ahalmenen analisisa eginda.

- III. eranskineko oinarriak aldatzea, EIAA agendaren postulatueta hobe egokitu daitezzen, gizarte-mugimenduen sendotasuna azpimarratuz, horien artikulazio internazionalista eta interseksionakaren bidez.

Bosgarren helburuari dagokionez –finantzaketa sendoa eta egonkorra–, honakoa proposatzen da:

- 2016ko aurrekontuan %0,7ra iristea.
- Finantzaketa formula osagarriak ikertzea, ordainarazpenezkoa barne.
- Subjektu estrategiko bakoitzerako gutxieneko aurrekontuaren aldeko apustua egitea, politika publiko osoari loturik eta ez bakarrik zuzeneko lankidetzari eta III. eranskinari loturik.

Azkenik, seigarren helburuari dagokionez –inplementazio sistema alternatiboak–, honako hau proposatzen da:

- GLn eta GEHn, bietan, proiektuko gehieneko muga 150.000 €-an jartzea.
- Ekimeneko gehieneko kopurua handitzea III. eranskinen, 50.000 €-raino.
- Profilak formulatzearen aldeko apustua egitea, eskura dauden askotariko tresnetatik abiatuta. Ahalmenak identifikatzeko eta sendotzeko rubroak barne hartzea, eraldaketa prozesu ororen berezko osagai gisa hartuta, eta finkatutako mugak berraztertzea.
- *Elkartasun internazionalistako ekimena* bitartekoa zuzeneko lankidetzan eta III. eranskinen ezartzea.
- Baremazio taulak berrikustea, gidaliburu honen I. eranskinen proposatutako ereduaren eta irizpideen arabera.
- Txosten eta ordainketa bakarra ezartzea, eta aurrez aurreko jarraipen batzordeetan eragitea. Egoitzan egindako ikuskaritzak baliozko txosten ekonomiko gisa baliatzeko aukera aztertzea.

2.2.2.2. II. urratsa: Ereindako aliantzak ernatzea

GFAk etorkizunean nazioarteko lankidetzeta politika goitik behera berraztertu lezakeela pentsatzen dugu, EIAA agendaren postulatuetatik abiatuta. Ildo horretatik, subjektuen ikuspegira behin betiko jauzi egitea litzateke kontua, *nork-zer-nola* logika hartuz jarduteko premisa gisa.

Uste osoa dugu GFA erronka horri aurre egiteko erakunde egokia dela, kontuan hartuta haren borondate politikoa, bere eskuduntzen ezaugarriak –zeinetan kanpoko ekintza ez dagoen hainbat interesek baldintzatuta– eta I. urratsa egin ondoren bildutako esperientzia.

Premisa horretatik abiatuta, *aliantzak ernatzea* etapari atxikitako sei helburuetarako proposamenak definitu ditugu, I. urratsean ezarritako helburuak betetzat emanik eta, hortaz, horiek errepikatu gabe.

18. koadroa. II. urratsa: Gipuzkoako Foru Aldundirako proposamena

1. helburua Emantzipazio aukerak, erreferentzia esparru gisa	1. Balio emantzipatzaileak eta internazionalistak sustatzeko ikuspegi estrategikoari eustea
2. helburua Subjektuak eta eragile estrategikoak lehenestea, eskusiboki	2. Subjektu estrategikoak hautatzea, eta horietara bideratzea aurrekontuaren %100
3. helburua Balio eta proposamen emantzipatzaileen posizionamendu lokal eta globalerako espazioak	3. Gaitasun eta ahalmen handiagoak ematea subjektu estrategikoen elkarriketa politiko internazionalistarako Gipuzkoako espazioari 4. GFAREN langile taldea handitzea eta gogoetarako eta etengabeko prestakuntzarako barne prozesua
4. helburua Sendotze eta aliantzari loturiko arlo bakarra, EIAA agendaren oinarriekin bat etorrira	5. Deialdi bidezko jarduera arlo bakarra, EIAA agendaren klabeetatik abiatuta, GL eta GEH arteko aldearekin amaitzeko 6. III. eranskinari eusteko aukera, borondatea duten baina ibilbiderik ez duten Gipuzkoako eragileei estrategia internazionalista sortu eta/edo sendotu dezaten laguntzeko 7. Zuzeneko hitzarmenak, berariaz subjektu bakoitzaren barruan eragile estrategikoei bideratuak, eta baita horien arteko aliantzak sendotzera bideratuak ere

5. helburua:

Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea, %0,7tik harago joz eta formula osagarri berriak ikertuz

8. Nazioarteko elkartasunari begirako funtsak handitzeko bidea proposatzea, %0,7tik harago

9. Subjektu estrategiko bakoitzera gutxieneko aurrekontuak definitzea

6. helburua:

Erreferentzia esparruarekin koherenteak diren inplementazio sistemak, helburu politikoen zerbitzura

10. Elkartasun internazionalistako ekimena, jarduera guztietarako bitarteko gisa

11. II. eranskinean proposatutako ereduaren araberrako baremazioa

12. Ebaluazio estrategia

13. Kontu emateko estrategia aintz, elkarrekiko eta integrala

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Lehenengo helburuari dagokionez –erreferentzia esparrua zabaltzea–, GFAk eutsi egingo lieke bere apustu teorikoaren oinarriko baldintzei. Ildo horretatik, esplizitatuko litzateke GFAk sustatutako lankidetzaren helburua balio emantzipatzaileen posizionamendua dela, bai Gipuzkoan bai nazioartean, esanahi bereziko subjektuen eta eragileen arteko elkarrizketatik abiatuta, mende-kotasun eta asimetria globalak iraultzeko.

Bigarren helburuari dagokionez –subjektu estrategikoak–, nazioarteko lankidetzako funts eta arlo guztiak daude alde zurretik estrategiko izendatutako subjektuak sendotzera eta horien arteko aliantzak eratzen bideratuta, balio eta agenda alternatiboak posizionatzeko aukera emango duen elkarrizketa politikoa sor dezaten, lehen esan dugun moduan. Hortaz, funtsezkoa da subjektuak hautatzea, logika emantzipatzailetik alde zurretik zehaztutako baldintzei jarraituz.

Hirugarren helburuari dagokionez –elkarrizketa politikorako espazio zabal eta askotarikoak eratzea–, subjektu estrategikoen elkarrizketa politiko internazionalistarako Gipuzkoako espazioak gero eta indar politiko eta zentralitate handiagoa du agenda internazionalistan, eta horretarako behar beharrezkoa da ahalmen politikoa edukitzea. Era horretara, honako hau proposatzen da:

- GFAk sustatutako subjektu estrategikoen hautaketaren ondoren, gaitasun politikoa emango litzaioke subjektu estrategikoen elkarrizketa

politiko internazionalistarako Gipuzkoako espazioari elkartasun internazionalistako politikaren azken helburuak planteatzeko, eta baita subjektu bakoitzaren lehentasunak ere, datozen urteetarako. Era berean, politiken koherentziaren eta kontu emate estrategikoaren ildoak sendotu beharko lirateke, eta baita berriazko aurrekontu baten ondoriozko komunikazioa eta jarduera propioak ere.

- GFAREN langile taldean bi lagun gehiago sartzea (gaur egungo egoeratik abiatuta bost langile berri izateko), komunikazioa indartzeko eta ekimenen jarraipena eta azterketa politikoa sendotzeko. GFAREN barruan go-goetarako eta etengabeko prestakuntzarako guneak sortzea.

Laugarren helburuari dagokionez –Iparra-Hegoa dikotomia gainditzea–, honako proposamen hau egiten da:

- Deialdi arlo bakar bat ezartzea, GEHREN eta GLREN arteko bereizketa gaindituz. Oinarriak zehazteko EIAA agendaren postulatuei eta subjektu estrategikoen elkarrizketa internazionalistaren elkarrizketa politikorako Gipuzkoako espazioan finkatutako lehentasunei jarraituko zaie.
- III. eranskinari eustea proposatzea, borondatea duten baina nazioarteko eremuan ibilbiderik izan ez duten Gipuzkoako eragileei begira.
- Zuzeneko lankidetzaren subjektu estrategikoen barruan esanahi berezia duten eragileak sendotzera bideratzea esklusiboki.

Bosgarren helburuari dagokionez –finantzaketa solidoa eta egonkorra–, honako hau proposatzen da:

- %0,7 gainditzea, konpromiso egonkorretatik eta aurretik planifikatuetatik abiatuta. Finantzaketa metodo osagarriei buruzko ikerketa egitea, hala nola ordainarazpenezkoei buruzkoa.
- Hautatutako subjektu estrategiko bakoitzerako gutxieneko aurrekontuak definitzea, ez bakarrik beren arlo bereziei dagokienez, baita politika publikoaren aurrekontu osoari dagokionez ere.

Azkenik, seigarren helburuan –implementazio sistema alternatiboak–, honako hau proposatzen da:

- Ekimen guztietan erabiltzea *elkartasun internazionalistako ekimena* bitartekoa.

- Erakundeen ebaluazioak, prozesuenak, apustu estrategikoenak edo politiko-koenak ebaluatzeko bidean aurrera egiteko aukera ematen duen ebaluazio sistema bat garatzea.
- Kontu emateko estrategia anitz, elkarrekiko eta integrala garatzea, oinarri hartuta subjektu estrategikoen elkarrizketa politika internazionalistako Gipuzkoako espazioa.

2.3. Donostiako Udala: trantsizio proposamena

Donostiako Udalak (DU) ibilbide luzea du nazioarteko lankidetzan, eta ibilbide horretan zehar erraz hautemateko moduko identitate bat osatzen joan da: bultzatzen ditu giza eskubideen babesa, generoaren ikuspegia eta emakumeen jabekuntza, eta harreman berezia du saharar herriarekin.

Giza garapen iraunkorrerako lankidetzeta eta hezkuntza plan zuzentzailea (2012-2015) formulatu ondoren, apustu estrategiko berriak egin dira, aurretik aipatutako nortasuna osatzen eta zabaltzen dutenak. Era horretara, lehentasunezko arloak eranstean dira, hala nola indarkeriarik eza, elikadura burujabetza eta kontsumo arduratsua, eta, beste alde batetik, eragile aniztasuna zabaltzen da, batez ere gizarte-mugimenduen partaidetza aktibo eta kalitatezkotik abiatuta.

Esparru estrategiko horrek argi erakusten du –nazioarteko lankidetzaren eremuan nagusi diren joeren haize kontra erabat– EIAA agendaren postulatuetan aurrera egiteko erabakimen politikoa. Premisa horretatik abiatuta, beraz, DUren azterketak egindako ibilbideari buruzko ikaskuntzak emango dizkigu, apustu politikoak praktikara eramateko orduan egindako aurrerapausoak eta izandako mugak erakutsiko dizkigu, elkarteen ehunaren artikulazioa konpromiso bat ez ezik osagai saihestezina den udal testuinguru baten barruan.

2.3.1. Donostiako Udalaren diagnostikoa⁶¹

Donostiako Udalaren nazioarteko lankidetzako politikaren azterketa orokorra egingo dugu lehenik eta behin, lankidetzeta deszentralizatuaren gure erreferentzia esparru kritikoaren barneko hiru indar-ideien ikuspegitik abiatuta.

61 Informazio gehiagorako, ikus Piris eta del Río (2014:93-117).

Lehenengoari dagokionez –lankidetzaren politikatik garapen politikara jauzi egitea–, uste osoa dugu DUren Berdintasuna, Lankidetzaren, Giza Eskubideak eta Kultura Aniztasuna Sailak ezin hobeto biltzen dituela bere jardunaren barruan nazioarteko elkartasuna berariaz bideratutako hainbat funtsen kudeaketa eta ikuspegi eraldatzailea; beraz, lankidetzaren politika bat bultzatzen ari dela ulertzen dugu.

Edonola ere, planteatutako helburuen aukera estuago hori ez dago nazioarteko lankidetzaren politika publikoaren ikuspegi subsidiarioaren, mendekoaren eta loturarik gabekoaren ikuspegiari lotuta. DUk krisi garaian ere eutsi egin dio aurrekontuetan duen konpromisoari, eta horrek nabarmen uzten du zer garrantzi ematen zaion testuinguru honetan ere solidaritatezko loturak edukitzeari.

Era berean, DUk autonomia nabarmenez definitu ditu bere erreferentzia esparrua, helburuak eta lehentasunak, eta maila kritiko handia eduki du gizarte globalari buruz eta garapenean eta lankidetzaren nagusitasuna duten agendei buruz. Era horretara, gizarte-mugimenduekiko harremanak sendotzearen aldeko apustua, zein elikadura burujabetza eta kontsumo arduratsua garatzearen aldekoa, adibidez, ez dira ohikoak izaten lankidetzaren deszentralizatuaren barruan edo udal lankidetzaren. Aurretik aztertutako kasuetan bezala orain ere mendekotasun handiena inplementazio sisteman hautematen da, zeinetan bitarteko eta tresna nagusiek pisu nabarmena duten.

Azkenik, eta esan badugu ere Berdintasuna, Lankidetzaren, Giza Eskubideak eta Kultura Aniztasuna Saila funts jakin batzuen plangintzan eta kudeaketan zentratzen dela funtsean, hiriko gobernuaren barruan artikulaziorako esperientzia jakinak osatu dira, hala nola, gizarte-klausulei buruzko Mahai Berdean parte hartzea edo Berdintasunarekin erlazio espezifikoak edukitzea, egitura administratibo berekoa izateak erraztua. Ekimen horiek lotura dute Donostiako gobernuak lan kolektiboan eragiteko ezarritako plan zuzentzailearekin; edonola ere, oraindik ez dira estrategia definitu batetik abiatzen.

Gure erreferentzia esparru kritikoko bigarren indar-ideiari dagokionez –askotariko eragileren arteko elkarrizketa politikoa–, gizarte-mugimenduak lankidetzaren lehentasunezko eragileak zirela aitortu zuen DUk 2012an, eta horrek zabaldu egiten du bere politika publikoari atxikitako erakundeen esparrua. Edonola ere, Lankidetzarako eta Garapenerako Hezkuntzarako Udal Kontseilua GGKE-ek osatua da funtsean (40), eta funtsen plangintza eta kudeaketa ditu zeregin nagusiak, eta ez, horrenbeste, Donostiatik elkarrizketa politikoa internazionalista sustatzea.

Azkenik, esparru kritikoaren hirugarren indar-ideiaren barruan –*proiektukako jarduna* gainditzea- DUK bere implementazio sistema osoa berraztertzeke erronkari aurre egin behar diola uste dugu, bere apustu estrategikoen eta prozesu emantzipatzaileen ezaugarrietara egokitzeko. Ildo horretatik, sentsibilizazio jarduerak antolatzeko ekimen berriak bultzatu badira ere eragile ez-klasikoekin (hori da, hain zuzen ere, *Donostia Mundu Artean* egitasmoaren helburu nagusietako bat), tresna eta baliabideen esparru orokorrak tentsioak sortzen ditu eta zaildu egiten du aurrera egiteko ahalmena.

Azken batean, amaitzeko, esan beharra dago DUK lankidetzaren ikuspegi eraldatzaile eta autonomoago bat proposatzen duela, baina hori implementatzeko baldintzak sortzeko erronkari aurre egin behar diola, eta,aldi berean, Donostian elkarriketa politiko internazionalista bultzatu.

Gogoeta orokor horietatik abiatuta, Donostiako Udalaren lankidetzaren diagnostikoaren ondorio nagusiak azalduko ditugu, ikuspegi klasikoaren kategorien arabera.

19. koadroa. Donostiako Udalaren diagnostikoaren sintesia

1. Erreferentzia esparrua eta lehentasunak

a. Erreferentzia esparrua: giza garapen iraunkorra

b. Helburu nagusia: pobrezia-aren eta berdintasunik ezaren kontrako borroka

c. Lehentasunak: interes bereziko arloak (giza eskubideak, komunitateen parte hartzea eta sendotzea, genero berdintasuna, elikadura burujabetza eta kontsumo kontziente eta arduratsua) eta zeharlerroak (emakume eta gizonen arteko berdintasuna, iraunkortasun ekologiko eta soziala, giza eskubideak eta indakeriaren kontrako jarrera aktiboa)

d. Arloak: GL, GH, EH eta Zuzeneko lankidetzeta (hitzarmenak eta Donostia Mundu Artean)

2. Inplementazio sistemak	e. Finantzaketa: politika publiko gisa nazioarteko lankidetzaren aldeko apustuari eustea
	f. Ekimenak sustazeko dinamikak: GL (%45,2), GH (%19,4), Euskal Fondona (%11,8), Hitzarmenak (%17,6) eta Donostia Munduen Artean (%6)
	g. Bitartekoak: proiektua
	h. Bitartekoak eta baldintzak: konplexuak eta prozesu emantzipatzaileen logikara ez oso egokituak
3. Eragileen arteko erlazioak	i. Administrazio publikoen ahalmenak eta zeregina: erantzukizun politikoei dagokienez egitura konplexuaz hornitutako taldea
	j. Aitortza: eragile klasikoak eta gizarte-mugimenduak. Enpresa kapitalistak eta irabazi asmoa baztertzea
	k. Erlazioak: alde bikoia proiektuari dagokionez. Kontseilua topagune, GGKEak direla partaide nagusiak.

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Alderdi horretatik, eta erreferentzia esparruari eta lehenetsune dagokienez⁶², DUK GGIren alde egiten du, eta hark bizimodu onarekin edo elikadura burujabetzarekin elkarriketan jardun beharra azpimarratzen du. Hortik abiatuta, helburu nagusia kokatzen du “egiturazko pobrezia eta desberdintasunaren kontrako borrokan, giza eskubideen printzipioetatik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunetik, ingurumenaren iraunkortasunetik, indarkeriarik ezetik eta elkartasun internazionalistatik abiatuta” (DU, 2012).

Lankidetzaren ikuspegi eraldatzaile horretatik, DUK bere lehenetsunezko arloak eta ildoak defendatzen ditu, zeharlerro zein interes bereziko arloen aldeko apustuaren barnean, lehenetsun geografikorik batere ezarri gabe.

Funtsezko arloak GL, GH, EH eta zuzeneko lankidetzak dira (zuzeneko hitzarmenetan eta *Donostia Mundu Artean* programaren artean banatuta,

⁶² Datu guztiak DUn oinarrituak (2012, 2014).

komunikazio internazionalistari eta eragileekin, klasiko zein ez-klasikoekin, batera sentsibilizazioa bultzatzeari begira).

Horien barruan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, iraunkortasun ekologikoa eta soziala, giza eskubideak eta indarkeriaren kontrako jarrera aktiboa –GLk zein GHk partekatutako ildoak denak– dira hautatutako zeharlerroak, alde batetik. Bestalde, interes bereziko arloak dira giza eskubideak, parte hartzea eta komunitateen sendotzea, genero berdintasuna, elikadura burujabetza eta kontsumo kontziente eta arduratsua. Nabarmena da zeharlerroen eta ildo sektorialen arteko korrelazioa, eta, hala, Donostiako lankidetzak nolabaiteko espezializazioa du emakumeen jabeakuntzarako proiektuetan, giza eskubideetan, elikadura burujabetzan eta kontsumo arduratsuan.

Sektore horiek gizarte-mugimenduetatik hurbileko arloak izan litezke, eta horrek erraztu egingo luke haien parte hartzea, baldin eta subjektuaren garrantzia estrategikotzat hartzen duen lankidetzan jardungo balitz, hau da, emantzipazio prozesuen *nork* kontuan hartuko balitz, eta hortik abiatuta berdefinituko balira ikuspegiak, tresnak eta baliabideak. Edonola ere, lan hori egiteko dago oraindik, eta gizarte-mugimenduen aitortza mugatuta dago zuzeneko zenbait hitzarmenetara, GFArekin batera egiten diren zenbait jardueretara –hala nola LVC eta EMM, edo *Donostia Mundu Artean* programako sentsibilizazio jardueretara–, baina ez da lantzen politika publiko osoan.

Bigarren kategorian sartuta –inplementazio sistemak–, lehenik azpimarratuko dugu DUK nazioarteko lankidetzarekin duen konpromisoa aurrekontuei dagokionez; izan ere, aurrekontuen murrizketak gorabehera, eutsi egin die funtsei, termino absolutuetan zein ehunekoetan (2014. urtean %0,45, 1,3 milioi euro).

Aurrekontua banatzeko sistemari dagokionez, deialdi publikoa da formula hegemonikoa, eta horretara bideratzen dira funts banagarrien %65,5; zuzeneko⁶³ hitzarmenetara bideratzen da gainerakoa (%34,5: Euskal Fondoa %11,8, zuzeneko hitzarmenak %17,6 eta *Donostia Mundu Artean* %6). Deialdien artean, handiena GLrena da ehuneko handiena (funts banagarrien %45,2) eta, ondoren, GHrena (%19,4). Sistema horrek aditzera ematen du GHk zein zuzeneko lankidetzak garrantzizko pisu politikoa dutela, eta abiapuntu positiboa da hori EIAA agendaren postulatuak barneratzeko.

63 2014ko datu ofizialak, DUK emanak.

Bitartekoei dagokienez, proiektua da arlo guztietan erabiltzen den bitartekoa. GLren kasuan, 60.000 eurokoa da gehieneko zenbatekoa eta urtebeteko indarraldia du gehienara (luzagarria); GEHk, aldiz, indarraldi hori bera badu ere, ezin du 20.000 eurotik gorakoak izan (30.000, partzuergoa bada; 10.000 euro, lehendik ez badu parte hartu DUK bultzatutako deialdietan). Eta hortxe hautematen dira, hain zuzen ere, GLren eta GHren arteko asimetriak praktikan, eta orobat ikusten da zein konplexua den prozesu emantzipatzaileen ezaugarriak eta proiektuak bitartekoak ezarritako baldintzak bateratzea.

Azkenik, tresnak eta baldintzak landuko ditugu, hau da, DUK bultzatutako lankidetzaren benetako jarduna:

- Sarbidea: eragileen erregistro berezi bat dago. Garapenerako lankidetzari estatutuetan lekua ematea eskatzen da, baina formula lasaiago bat ere ezartzen da elkartasun internazionalista bultzatzeko. Edonola ere, oso positibotzat hartzen da plan estrategikoko lehentasunekin lotura duten eragileen parte hartzea.
- Formulazioa: esparru logikoaren ikuspegia (ELI) da tresna hegemonikoa proiektuaren bizitza ziklo osoan, eta, hala, kausa-efektu erlazioa estrategikoa da helburuak, emaitzak, jarduerak, baliabideak eta hipotesiak zehazteko. Aurrekontuari dagokionez, proiektu kopuruaren eta indarraldiaren mugak direla eta, lehentasuna du *zer* aldagaiak, *nork* aldagaiaren gainetik, eta, horregatik, bigarren lekuan gelditzen dira egiturarekin lotura handiagoa duten gaiak eta ahalmenak sendotzeari dagozkienak.
- Baremazioa: DUren baremazio taulak bereziki konplexuak dira (gehienez ere 210 puntu, GLrako, eta gehienez 198, GHrako), bereziki bultzatzen dituzten bitartekoekin (GFAk eta GLEAk baino tamaina txikiagoa eta indarraldi laburragoa) eta udal esparruaren barruan lan egiten duten eragileei dagokienez. Edonola ere, zeharlerroen eta interes bereziko arloen pisu bereziaren bitartez dimentsio politikoari balioa emateko ahalegina azpimarratu beharra dago. Hala eta guztiz ere, proposamenen kalitate teknikoaren garrantzia oso nabaria da. Apustu politikoaren eta kalitate teknikoaren arteko tentsio hori GLn zein GHn egiaztatzen da. Kasu batean zein bestean, erakundeen puntuazioaren %20 batzen dute; interes bereziko arloak, aldiz, %40ra iristen dira, proposamenaren kalitate teknikoaren ehuneko berera, alegia.
- Jarraipena: oro har bi txostenetan oinarrituta egiten da (bitartekoa eta amaierako), eta deialdietan zehaztutako ordainketei loturik.

- Ebaluazioa: proiektuak ebaluatzeko aukera dago, baina erakundearen beraren ikaskuntzaren logikatik abiatuta, eta ez esperientziak partekatzetik abiatuta. Halaber, ez dira erakundeen, prozesuen, apustu estrategikoen edo politiken ebaluazioak egiten, oro har.
- Kontu ematea: jarraipenarekin lotzen da bereziki, eta baita Garapeneko Lankidetzarako eta Hezkuntzarako Udal Kontseiluan aurkeztutako txostenekin ere.

Azkenik, hirugarren kategoriari dagokionez –eragileen arteko erlazioak–, Hezkuntza- eta gizarte-sustapenerako Zerbitzua da arduradun administratiboa, Berdintasuna, Lankidetzeta, Giza Eskubideak eta Aniztasun Kulturala Sailaren barruan, eta erreferentziazko hiru kargu politiko ditu. Nazioarteko lankidetzaren esparrua, zehazki, Gizarte Ongizatea, Mugikortasuna eta Nazioarteko Lankidetzeta Zinegotzigoaren mende dago. Mugatze hori eremuen koordinaziorako aukera gisa uler daiteke (Sailak zuzendaritza politiko anitza duelako), baina baita guztiz bestela ere, arlo bakoitzeko arduradunen arteko harreman gutxi asko estuaren arabera.

Bestalde, nazioarteko lankidetzeta taldea oso ondo hornituta dago, saileko buru bat eta hiru teknikari ditu (bat, LGn; beste bat, GHn; eta Kontseiluan, eta hirugarrena, *Donostia Mundu Artean* programan).

Eragileen aitortzari dagokionez, gaur egungo plan gidariak aintzat hartzen ditu eragile klasikoak zein gizarte-mugimenduak, eta horiek indartzeko helburu bat ere ezartzen du, *Donostia Mundu Artean* programako jarduerekin lotuta. Enpresa kapitalistak eta irabazi asmoa baztertu egiten dira lankidetzeta eragile gisa.

Azkenik, eragileen arteko erlazioen formulari dagokionez, bada Garapen Lankidetzarako eta Hezkuntzarako Udal Kontseilu bat. Kontseilu horretan GGKE-ek baino ez dute parte hartzen, eta funtsen plangintzari eta kudeaketari buruzko eztabaidara biltzen ditu bere ahalegin guztiak.

Azken batean, DUK ahalegin nabarmena egin du estrategia berritzearen eta ahalmen emantzipatzailea duten sektoreen eta ildoen alde, baina uztartu egin behar ditu horiek eta defendatzen eta aldeztu dituzten subjektuekin, eta horretarako ezinbestekoa da inplementazio sistemak eta topaguneak berrikustea, anitzagoak eta elkarrizketa politikoan oinarrituak izan daitezen batez ere.

2.3.2. Donostiako Udalerako proposamena

DUren nazioarteko lankidetzako politika, beraz, gure trantsizio prozesuko *lurra jorratzea* etapan kokatuta dagoela esan daiteke –ohiko jardunean baino gehiago ikuspegi estrategikoari dagokionez, izan ere, ohiko jardunean ikuspegi klasikoa da oraindik nagusi–; edonola ere, gizarte-mugimenduekiko aliantzen planteamenduan aurrera egin du *Donostia Mundu Artean* programaren bitartez, eta, hortaz, hainbat urrats eman ditu *konplizitateak ereitea* prozesuan barrena. Hortik abiatuta eraikiko dugu epe labur eta erdi-luzerako gure proposamena.

2.3.2.1. Paso I. urratsa: Lurra jorratzea eta *zer* eta *nork* aldagaiak uztartzea

DUren epe laburrerako helburua da *lurra jorratzea* etapan teoria eta praktika elkarri egokitzea, bere gaur egungo nortasunetik abiatuta, hau da, giza eskubideen, emakumeen jabekuntzaren, elikadura burujabetzaren eta indarkeriarik ezaren ildoak lehenetsiz. Praktikan, leheneste sektorial bat adierazten du horrek, eta, kasu honetan, positiboa iruditzen zaigu, aukera ematen duelako hortik aurrera eragile berriak barne hartzeko, bere politikaren nortasuna aldarazi gabe, eta, beraz, *lankidetzatik garapenerako* bidea egiteko.

Alderdi horretatik, begirada ildo horien aitzindari diren gizarte-mugimenduetara zabaltzea litzateke gakoa, gizarte-mugimenduei aukera ematea elkarriketa politikorako espazioetan parte hartzeko, eta prozesu emantzipatzaileak eta subjektuen adierazgarritasuna hobeto bilduko dituen lankidetzaren praktika bat planteatzea.

Jarraian, gure trantsizioaren sei helburuetara eramango dugu espiritu hori, arreta berezia jarritz *lurra jorratzea* etaparako finkatutako xedeetan.

20. koadroa. I. urratsa: Donostiako Udalerako proposamena

<p>1. helburua GGI eta pobrezia ikuspegi egiturazko, sistemiko eta konprometitutik hartzea</p>	<p>1. Emantzipazio prozesuen berezitasunak barneratzea</p>
<p>2. helburua: Dimentsio politikoari lehentasuna ematea zeharlerroen aldeko apustuan</p>	<p>2. Arlo espezifikoaren lehentasunari eustea (zeharlerroak + eremuak) 3. Arlo horiei atxikitako gizarte-mugimenduen aldeko apustua esplizituki adieraztea</p>
<p>3. helburua: Elkarrizketa espazioak eragile berriei zabaltzea, gizarte-mugimenduei besteak beste</p>	<p>4. Kontseiluaren neurria, osaera, funtzionamendua eta zereginak berraztertzea 5. Lehentasunezko arloetan politiken koherentziaren aldeko apustua sendotzea 6. Eztabaida eta prestakuntza prozesuak, DUren baitan</p>
<p>4. helburua: GHri pisu politiko eta aurrekontu pisu handiagoa ematea, eta GLrekiko mugak ezabatzea</p>	<p>7. GHk aurrekontuetan duen pisua igotzea, %30eraino 8. Zuzeneko hitzarmenak lehentasunezko arloetako mugimenduak sendotzera bideratzea</p>
<p>5. helburua: Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea, murrizketen aurretiko mailan</p>	<p>9. Aurrekontuei begirako apustua %0,6an kokatzea</p>
<p>6. helburua: Zama burokratikoak arintzea, eta jarduera emantzipatzaileara egokitzeko prozesuan sakontzea</p>	<p>10. Gehienekoa 60.000€-an finkatzea, GLrako nahiz GHrako 11. Profilen araberako formulazioa, hainbat metodologiatan oinarrituta eta rubro ezohikoak txertatuz 12. I. eranskinen baremazio taularen eredia bere gain hartzea 13. Txosten eta ordainketa bakarra ezartzea, eta aurrez aurreko jarraipen batzordeetan eragitea</p>

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Lehen helburuari dagokionez –erreferentzia esparrua zabaltzea–, DU bat dator EIAA agendaren ikuspegi politikoaren, eta, hala, hauxe besterik ez da proposatzen horri buruz:

- Garapen/eraldaketa ekimen ororen berezko konplexutasuna, ziurgabetasuna, dibertsitatea, dimentsio aniztasuna eta prozesu izaera esplizituki adieraztea, gero nazioarteko lankidetzako praktikara eramateko moduan.

Bigarren helburuari loturik –subjektu eta eragile estrategikoen aldeko apustuan aurrera egitea–, gaur egungo izaerari eutsi ahal izango lioke, alegia, lan ildoei eutsi oinarri modura, baina subjektuentzako espazioak zabalduz, funtsezkoa baita horiei berei bultzada emateko. Hauxe proposatzen da:

- Bere gaur egungo nortasuna eta nortasun historikoa definitzen duten lehentasunezko arloen aldeko apustuari eustea.
- Helburu modura ezartzea arlo espezifikoko horiei atxikitako gizarte-mugimenduekiko aliantza: mugimendu feminista, mugimendu nekazaria eta elikadura burujabetzaren aldekoa; mugimendu bakezale eta antimilitarista; giza eskubideen aldeko mugimendua, eta mugimendu internazionalista. Horiek lirateke, hain zuzen, zuzeneko hitzarmenatarako lehentasunak.

Hirugarren helburuari buruz –elkarrizketa politikorako espazio zabal eta askotarikoak eratzea–, zera proposatzen da:

- Kontseiluaren neurria, osaera, funtzionamendua eta zereginak berraztertzea, lehentasunezko arloei atxikitako eragile anitzen partaidetza zabaltzeko eta sakontzeko.
- Lehentasunezko arloetan politiken koherentziaren aldeko apustua sendotzea.
- Auzi estrategikoei buruzko eztabaida, gogoeta eta prestakuntzarako espazioak sustatzea DUren baitan.

Laugarren helburua lortzeko –Iparra-Hegoa dikotomia gaintitzea–, hau da proposamena:

- GHren eta GLren asimetria murriztea, GHren aurrekontua funts banagarrien %30era igoz, GL proportzio berean murriztuz eta hitzarmenen eta *Donostia Munduen Artean* programaren orain arteko pisuari eutsiz.
- Zuzeneko lankidetzaren lehentasunezko arloei atxikitako gizarte-mugimenduetara bideratzea.

Bosgarren helburuari dagokionez –finantzaketa sendo eta egonkorra–, DU %0,6an kokatzea proposatzen da.

Azkenik, seigarren helburuari begira –inplementazio sistema alternatiboak–, honako proposamen hauek egiten dira:

- Proiektuko gehienekoa 60.000 euroan finkatzea, GLn nahiz GHn.
- Profilak formulatzearen aldeko apustua egitea, eskuragarri dauden askotariko tresnetatik abiatuta; ahalmenak identifikatzeko eta sendotzeko rubroak barne hartzea, eraldaketa prozesu ororen berezko osagai gisa hartuta.
- Baremazio taulak berraztertzea, Gidaliburuko I. eranskinean proposatutako ereduaren eta irizpideen arabera.
- Txosten eta ordainketa bakarra ezartzea, eta aurrez aurreko jarraipen batzordeen jarduna sendotzea. Egoitzan egindako ikuskaritzak txosten ekonomiko baliozko gisa txertatzeko aukera aztertzea.

2.3.2.2. II. urratsa: Konplizitateak ereitea eta sendotzea

Epe ertain eta luzera begira, *konplizitateak ereitea* etapa gauzatzea da helburua; DU dagoeneko hasita dago etapa horretan urratsak egiten, *Donostia Munduen Artean* programaren eta zuzeneko hitzarmenen bidez. Hortik aurrera, lehentasunezko jo diren arloak sustatzen dituzten subjektuei pisu handiagoa ematea litzateke egin beharra, *Donostia Munduen Artean* programa sendotuz eta horiei buruzko elkarrizketa politikoaren aldeko apustua eginez.

Premisa horretatik abiatuta, sei helburuetarako proposamenak definitu ditugu, I. urratsean ezarritako helburuak betetzat emanik eta, hortaz, horiek errepikatu gabe.

21. koadroa. II. urratsa: Donostiako Udalerako proposamena

<p>1. helburua: Pobreziatik mendekotasun eta asimetria globaletara</p>	<p>1. Berdintasunik ezaren kontrako borroka hartzea helburu nagusitzat</p>
<p>2. helburua: Bi motatako lehentasunak: zeharlerroak eta subjektuak</p>	<p>2. Mugimendu feministaren eta nekazariaren eta elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduaren, mugimendu bakezalearen eta giza eskubideen aldekoaren aldeko apustu estrategikoa esplizitu egitea</p> <p>3. Elikadura burujabetzari, feminismoari, bakezaletasunari eta giza eskubideei atxikitako eragileen azterketa lokal-globala</p>
<p>3. helburua: Subjektu estrategikoen arteko elkarrizketa politikoa sendotzea</p>	<p>4. Modu estrategikoan eragitea lehentasunezko arloen politiken koherentzian, kontu ematean eta subjektu estrategikoei dagozkien alderdien analisi politikoan</p> <p>5. Kontseilua aurrekontu propioaz hornitzea</p> <p>6. DUren taldean beste kide bat sartzea</p>
<p>4. helburua: Arloen bikoiztasuna: espezifikoa, subjektu estrategikoetarako espezifikoa, GHK eta GLK antzeko pisua izatea</p>	<p>7. GHri eta GLri pisu bera ematea aurrekontuetan, funts banagarrien %30eraino</p> <p>8. Subjektu eta eragile estrategikoak sendotzera bideratzea zuzeneko lankidetzaz (funts banagarrien %30)</p> <p>9. Donostia Munduen Artean programaren jarduera arloa sendotzea eta zabaltzea (funts banagarrien %10)</p>
<p>5. helburua: Finantzaketa sendo eta egonkorra bermatzea, %0,7koa eta gutxienekoetakoa, subjektu estrategikoentzat</p>	<p>10. %0,7ra iristea</p> <p>11. Finantzaketa formula osagarriak ikertzea</p> <p>12. Subjektu estrategiko bakoitzerako gutxieneko aurrekontuak definitzea</p>
<p>6. helburua: Bitarteko berriak, ebaluazioaren eta kontu ematearen aldeko apustu estrategikoa</p>	<p>13. Bitarteko berria, zuzeneko hitzarmenatarako eta Donostia Munduen Artean programarako</p> <p>14. Ebaluazio estrategia</p> <p>15. Kontu emateko estrategia</p>

Iturria: Lan honen egileek sortua.

Lehen helburuari dagokionez –erreferentzia esparrua zabaltzea–, honetan datza proposamena:

- Erreferentzia esparrua GGIn kokatzea, baina Donostiako lankidetzaren izaeran adierazgarri diren haiekin elkarrizketan, hala nola, feminismoarekin, elikadura burujabetzarekin eta bakezaletasunarekin.
- Helburu nagusi gisa *pobrezia gainditzea* hartu ordez *berdintasunik eza gainditzea* hartzearen aldeko apustua egitea, behin betiko, kontzeptu hori hurbilago baitago mendekotasun eta asimetria globaletatik.

Bigarren helburuari begira, proposatzen da lehenetsitako arloak –ildoak– eta haiei zuzenean atxikitako subjektuak konbinatzea, simetria egoeran; hau da, *nork* eta *zer* aldagaiak maila berean jartzea. Horretarako, beharrezkoa izango da:

- Mugimendu feministaren eta nekazariaren eta elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduaren, mugimendu bakezalearen eta giza eskubideen aldekoaren aldeko apustu estrategikoa esplizitu egitea.
- Elikadura burujabetzari, feminismoari, bakezaletasunari eta giza eskubideei atxikitako Donostiako eragileen azterketa lokal-globala.

Hirugarren helburuan –elkarrizketa politikorako espazio zabal eta askotarikoak eratzea–, Kontseiluaren ahalmen politikoak sendotzean datza helburua. Horretarako, zera proposatzen da:

- Modu estrategikoan eragitea lehenetsitako arloen politiken koherentzian, kontu ematean eta subjektu estrategikoei dagozkien alderdien analisi politikoan.
- Kontseilua aurrekontu propioaz hornitzea, bere helburuak bete ahal izan ditzan.
- DUren langile taldea handitzea, beste kide bat sartuta, lanaldi osoz jardun dezan Kontseilua dinamizatzen, bereziki kontu emateari eta politiken koherentziari dagokienez.

Laugarren helburuari dagokionez –Iparra-Hegoa dikotomia gainditzea–, hau proposatzen da:

- GHri eta GLri pisu bera aitortzea aurrekontuetan, funts banagarrien %30eraino.

- Zuzeneko lankidetzaz lehentasunezko subjektuen barruan esanahi berezia duten eragileak sendotzera bideratzea eskusiboki (%30ari eustea).
- *Donostia Munduen Artean* programaren aurrekontua igotzea (funtsen %10) eta jarduera arloa zabaltzea, artikulazio internazionalista eta intesekzionalerako ahalmenak sendotuz eragile ez-klasikoekiko lana ere ahalbidetzen duen programa bihurtuta⁶⁴.

Bosgarren helburuari atxikita –finantzaketa sendo eta egonkorra–, proposamen hau egiten da:

- %0,7ra iristea.
- Finantzaketa formula osagarriak ikertzea, ordainarazpenezkoa barne.
- Hautatutako subjektu estrategiko bakoitzerako gutxienerako aurrekontuak definitzea, baita horrek politika publikoaren aurrekontu osoan izango duen eragina ere.

Azkenik, seigarren helbururako –inplementazio sistema alternatiboak–, zera proposatzen da:

- *Elkartasun internazionalistako ekimena* bitarteko berria erabiltzea zuzeneko hitzarmenetan eta *Donostia Munduen Artean* programaren zeregin berrietan.
- Antolamendu, prozesu, apustu estrategiko edo politiken ebaluazioetarako bidea irekiko duen ebaluazio estrategia bat garatzea.
- Kontu emate anitz, elkarrekiko eta integraleko estrategia garatzea, oinarri modura Kontseilua harturik.

Gidaliburuan, *elkartasun internazionalistaren agenda alternatiboaren* indar-idea nagusiak azaldu ditugu, lehen kapituluuan (emantzipazio subjektuak sendotzea eta askotarikoen arteko aliantza). Gizarte globalean ekintza kolektiboa bideratzeko molde estrategiko gisa gizarte-mugimenduen partaidetza aktibo eta kalitatezkoetik abiatuta lankidetzaz berrasmatzeko xedea duen ikerketa prozesuan oinarritu gara horretarako. Hain zuzen ere, hauxe izan da abiapuntuko premisa: EIAA agenda, beste proposamen emantzipatzaile batzuekiko elkarriketa eta eztabaida osagarri dituela, apustu giltzarri eta saihestezina da nazioarteko lankidetzaren krisi integrala iraultzeko.

64 Adibidez, *konplizitateak ereitea* etaparen azalpenean adierazitako ikuspuntutik.

Era berean, adierazi dugu zergatik iruditzen zaigun lankidetzeta deszentralizatu EIAA agenda inplementatzeko tipologia egokiena, lankidetzeta deszentralizatuari izaera eraldatzaileagoa emateko esparru kritiko bat ere proposatzen badugu ere. Esparru horren hiru indar-ideiak (lankidetzatik garapenera jotzea, askotarikoen arteko elkarrizketa politikoa sustatzea, proiektukako jarduna gaintitzea) estu-estu lotuta daude lankidetzeta interseksionala eta gizarte-mugimenduak uztartzeko proposamenarekin.

Gidaliburuaren bi abiapuntu horietatik, EIAA agenda eta lankidetzeta deszentralizatu uztartzetik eratorritako proposamena zehaztu dugu. Lehenik eta behin, proposamenaren oinarri orokorrak eman ditugu, funtsezko eraldaketa baten bidez formulaturik: lan ildoak lehenesten dituen ikuspegitik emantzipazio subjektu estrategikoak sendotzean eta horien arteko aliantzan oinarrituriko ikuspegirako aldaketa. Eraldaketa hori gure eginda, pixkanakako trantsizio prozesu bat eratu dugu, hiru etapatan banatua eta sei helbururen bidez zehaztua; trantsizio prozesu bat baliozkoa izango zaiona lankidetzeta deszentralizatuko edozein esperientziari, esperientzia horiek eredu komunak partekatzen dituztela kontuan hartuta.

Azkenik, proposamen espezifikoa bana landu dugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarako (GLEA), Gipuzkoako Foru Aldundirako (GFA) eta Donostiako Udalerako (DU), haien ibilbide, ahalmen eta borondate politikoen azterketa partikularretik abiatuta. Horrela, bi agertoki planteatu zaizkie (epe laburrera begirakoa eta ertain-luzerakoa, hain zuzen), EIAA agendaren postulatuetan aurrera egiteko.

Ondorio gisa, eta Gidaliburuaren sarreran esandakoari berriro helduz, tresna politiko modura ulertzen dugu lan hau, eta gure xedea da eztabaida sortzeko baliagarria gerta dadin, bereziki une honetan, zeinetan baitaude bidegurutze batean nazioarteko lankidetzeta, oro har, eta lankidetzeta deszentralizatu, zehazki. Ildo horretatik, berriro azpimarratu nahi dugu argitalpen honek jarraipena izan nahi duela esparru publikotik nazioarteko elkartasunari beste ikuspegi bat emateko gehienekoen eta gutxienekoen agendak sortzeko bidean. Nolanahi ere, jarraipena den heinean, gogoan izan behar dugu amaitu gabeko proiektu batez ari garela; alegia, lankidetzeta deszentralizaturako ikuspegi berriak proposatzen dituela, ate berriak zabaltzen dituela, baina oraindik asko dagoela eraikitzeko.

Hain zuzen ere, eraikuntza, elkarrizketa, zabaltasun eta berrasmatze emantzipatzailearen premia azpimarratuz itxi nahi dugu Gidaliburu hau, bestelako lankidetzeta bat posible eta beharrezkoa delako uste osoaz.



Bibliografia

- Alberdi, Jokin (2010), *El futuro de la cooperación autonómica al desarrollo: estudio del marco jurídico-político de la cooperación pública vasca*, Herri Ardulariaritzaren Euskal Erakundea (HAEE), Gasteiz.
- Ayuso, Ana eta Cascante, Kattia (2009), *Rendición de cuentas y sociedad civil en el sistema español de cooperación al desarrollo*, Fundación Alternativas, Madril.
- Cabanas, Andrés (2011), “Renombrar la esperanza. Pensar de forma distinta un mundo diferente”, in Larrañaga, Mertxe eta Jubeto, Yolanda (Arg.) *La cooperación internacional y el desarrollo humano local*, Hegoa, Bilbo.
- Celorio, Gema (2013), “Sensibilización y educación para el desarrollo”, in AGOST, M. et al (Koord.): *Cooperación descentralizada pública. Introducción, enfoques y ámbitos de actuación*. Universitat Jaume I, Castellón de la Plana, 225.-261. orrialdeak.
- Domínguez, Rafael (2011), *La crisis de identidad del Sistema de Ayuda*, Madril: Fundación Carolina.
- DU –Donostiako Udala– (2008), *Garapenerako kooperazio eta hezkuntzari buruzko udal plana 2008-2011*, honako honetan eskuragarri: <[www.donostia.org/info/ciudadano/cooperacion_documentos.nsf/voWebContenidosId/3B3A95E57BFCABFFC125781400351BAB/\\$file/planmunicipaldonostia.pdf](http://www.donostia.org/info/ciudadano/cooperacion_documentos.nsf/voWebContenidosId/3B3A95E57BFCABFFC125781400351BAB/$file/planmunicipaldonostia.pdf)>.
- DU –Donostiako Udala– (2012), *Giza garapen iraunkorrerako lankidetzeta eta hezkuntzako plan zuzendaria, 2012-2015 aldirako*, honako honetan eskuragarri: <[www.donostia.org/info/ciudadano/cooperacion_quienessomos.nsf/voWebContenidosId/1CAA9AD1885A16D7C1257074002DC8AA/\\$File/2012-2015plan.pdf](http://www.donostia.org/info/ciudadano/cooperacion_quienessomos.nsf/voWebContenidosId/1CAA9AD1885A16D7C1257074002DC8AA/$File/2012-2015plan.pdf)>.
- DU –Donostiako Udala– (2014), *Oinarri orokorrak eta lankidetzarako oinarri bereziak*, honako honetan eskuragarri: <[www.donostia.org/info/ciudadano/part_asociaciones.nsf/voWebContenidosId/82958DF0759D9709C1257C6F005899D7/\\$file/2014%20Diru%20laguntzak%20LANKIDETZA.pdf](http://www.donostia.org/info/ciudadano/part_asociaciones.nsf/voWebContenidosId/82958DF0759D9709C1257C6F005899D7/$file/2014%20Diru%20laguntzak%20LANKIDETZA.pdf)>.
- EJGLZ –Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza– (2007), *Garapena eta Lankidetzeta Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen dekretua*, honako honetan eskuragarri: <www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/es/bopv2/datos/2007/03/0701588a.pdf>.
- EJGLZ –Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza– (2007b), *Garapena eta Lankidetzeta Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako*

laguntzak arautzen dituen dekretua, honako honetan eskuragarri: <www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48bopv2/es/bopv2/datos/2007/03/0701588a.pdf>.

EJGLZ –Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza– (2007c), *Kubarekiko garapen-lankidetzarako euskal estrategia*, honako honetan eskuragarri: <www.elankidetzeta.euskadi.net/x63-estrapais/es/contenidos/informacion/estrapais/es_estrapai/adjuntos/Estrategia%20Vasca%20de%20Cooperaci%c3%b3n%20con%20Cuba%202007-2010%20definitiva.pdf>.

EJGLZ –Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza– (2008), *2008-2011ko garapen lankidetzarako gida plan estrategikoa*, honako honetan: <www.elankidetzeta.euskadi.net/x63-estrapais/es/contenidos/informacion/estrapais/es_estrapai/adjuntos/Estrategia%20Vasca%20de%20Cooperaci%c3%b3n%20con%20Cuba%202007-2010%20definitiva.pdf>.

EJGLZ –Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza– (2008b), *Guatemalako Garapenerako Euskal Lankidetzeta Estrategia*, honako honetan eskuragarri: <www.elankidetzeta.euskadi.eus/x63-estrapais/eu/contenidos/informacion/estrapais/eu_estrapai/adjuntos/Texto_Definitivo_Estrategia-eusDEF.pdf>.

Fernández, Gonzalo (2006), “¿Es el desarrollo local el ámbito más adecuado para la cooperación descentralizada?”, in *Riesgos y oportunidades en la cooperación descentralizada*, Fundación Mundubat, Donostia.

Fernández, Gonzalo (2008), “Cooperación técnica para el Gobierno vasco: una herramienta de transformación”, in *La cooperación técnica para el desarrollo*, Revista Ágora de Ciencias Sociales 16. zk., 2008, 241-252, honako honetan eskuragarri: <www.ceps.es/media/agora/16/16.14_fernandez.pdf>.

Fernández, Gonzalo (2012), “Cooperación internacional y movimientos sociales: perspectivas poco favorables”, *Revista Pueblos* – 49. zk., Madril, 2012ko abendua, honako honetan eskuragarri: <www.revistapueblos.org/?p=2305>.

Fernández, Gonzalo (2013a), “¿Una cooperación internacional ajena al desarrollo?”, *Revista Pueblos* – 59. zk., *Especial Cooperación*, 2013ko azaroa, honako honetan eskuragarri: <www.revistapueblos.org/?p=15241>.

Fernández, Gonzalo, Piris, Silvia, Ramiro, Pedro (2013b), *Cooperación internacional y movimientos sociales emancipadores: bases para un encuentro necesario*. Hegoa, Bilbo, 2013, honako honetan eskuragarri: <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publicaciones/295>>.

- Fernández, Gonzalo, Piris, Silvia, Ramiro, Pedro (2014), “Alianzas sociales para una cooperación internacional emancipadora”, in *XI Informe Anual de la Plataforma 2015 y Más*, Madril, 95-103, honako honetan eskuragarri: <www.2015ymas.org/centro-de-documentacion/publicaciones/2014/1566/anuario-2013-hacia-2015-visiones-del-desarrollo-en-disputa/#.U7un75R_vMM>.
- GFA –Gipuzkoako Foru Aldundia– (2009), *Plan Director de Cooperación para el Desarrollo 2009-2011* (AFA eta BFArekin), honako honetan eskuragarri: <<http://biblioteca.hegoa.ehu.es/registros/17551>>.
- GFA –Gipuzkoako Foru Aldundia– (2013), *Plan Foral de Cooperación para el Desarrollo 2013-2016*, honako honetan eskuragarri: <<http://biblioteca.hegoa.ehu.es/registros/19845>>.
- GFA –Gipuzkoako Foru Aldundia– (2014), *Garapenerako lankidetzaren alorreko diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2014rako deialdia*, honako honetan eskuragarri: <<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2014/03/06/c1402052.pdf>>.
- GLEA –Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia– (2014), *Gida plana, 2014-2017*.
- GLEK –Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua– (2012), *Kalitatezko lankidetzaren deszentralizatuaren aldeko adierazpena*, honako honetan eskuragarri: <www.elankidetzaren.euskadi.net/x63-contnot/es/contenidos/noticia/noticias_2012/es_declar/declar.htm>.
- González, Jesús (2012), “Cooperación política para la transformación social. Algunas propuestas”, in *Movimientos sociales y cooperación. Ideas para el debate*, Hegoa, Bilbo.
- Gutierrez-Goiria, Jorge; Villena, Unai; Malagón, Eduardo (2012), “¿Nuevas prácticas o réplica a otra escala? La cooperación descentralizada y sus especificidad desde el caso del País vasco”, *Revista de economía crítica*, 14, 37.-62. orrialdeak.
- Gutierrez-Goiria, Jorge; Labaien, Irati; Sabalza, Michel, “La cooperación descentralizada: una aproximación a sus potencialidades y problemas desde el caso de Euskadi”, in *Boletín de Recursos de Información*, 34, Hegoa.
- Iborra, Juanjo; Martínez, Pablo J.; Martínez, Ignacio (2013), “Diagnóstico sobre las políticas de cooperación de los gobiernos autonómicos”, in *La*

cooperación descentralizada a debate: la eficacia de la ayuda y el post-2015, ART-PNUD eta CIDOB, Monografías bilduma, Bartzelona, 19.-46. orrialdeak.

Martí, Xavier (2013), “Diagnóstico sobre las organizaciones catalanas de la sociedad civil de cooperación para el desarrollo”, in *La cooperación descentralizada a debate: la eficacia de la ayuda y el post-2015*, ART-PNUD eta CIDOB, Monografías bilduma, Bartzelona, 47.-76. orrialdeak.

Martínez, Zesar; Casado, Beatriz; Ibarra, Pedro (2012), *Movimientos sociales y procesos emancipadores*, 57 lan koaderno, Hegoa, Bilbo.

Martínez, Zesar; Casado, Beatriz; Ibarra, Pedro (2013), *Acerca de opresiones, luchas y resistencias: movimientos sociales y procesos emancipadores*, 60. lan koaderno, Hegoa, Bilbo.

Martínez, Ignacio eta Sanahuja, José Antonio (2009), *La agenda internacional de eficacia de la ayuda y la cooperación descentralizada en España*, Fundación Carolina, 38. lan dokumentua, Madril.

Martínez, Ignacio (2011), “La rendición de cuentas en la cadena de la ayuda”, in *Renovando el papel de las ONGD. Hacia una transformación social*, Editorial 2015 y Más, Madril.

Martínez, Ignacio (2012), “La cooperación descentralizada española: apuntes para un cambio de modelo”, *Pueblos* aldizkaria, 54, laugarren hiruhilekoa. Honako honetan eskuragarri: <<http://www.revistapueblos.org/?p=12107>>.

Martínez, Ignacio (2013), “Agenda post-2015, interdependencia y crisis: ¿oportunidad o amenaza para los gobiernos descentralizados?”, *Pueblos* aldizkaria, 59, azaroa. Honako honetan eskuragarri: <www.revistapueblos.org/?p=15335>.

Martínez, Ignacio (2014), “Visiones del desarrollo en la agenda post-2015”, in *La agenda de desarrollo post-2015: ¿Más de lo mismo o el principio de la transición?*, 13. dosierra, Economistas Sin Fronteras, iraila, 12.-18. orrialdeak.

Martínez, Osés, Pablo J. (2011), “Redefinición del papel de las ONGD: hacia una mirada más política”, in *Renovando el papel de las ONGD. Hacia una transformación social*, 2015 y Más argitaletxea, Madril.

Martínez Osés, Pablo J. (Arg.) (2013), *La agenda de desarrollo post-2015: ¿Más de lo mismo o el principio de la transición?*, 13. dosierra. Economistas Sin Fronteras, iraila.

- Piris, Silvia (Coord.) (2012), *Movimientos sociales y cooperación. Ideas para el debate*, Hegoa, Bilbo, honako honetan eskuragarri: <<http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/registros/19194>>.
- Piris, Silvia eta del Río, Amaia (2014), *Diagnóstico de la cooperación para el desarrollo vasca y oportunidades para la alianza con movimientos sociales*, honako honetan eskuragarri: <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/324>>.
- Rauber, Isabel (2006), “*Sujetos políticos, Rumbos estratégicos y tareas actuales de los movimientos sociales y políticos*”, Pasado y Presente XXI, Santo Domingo.
- del Río, Amaia; Dema, Sandra; Gandarias, Itziar (2014), *Desde abajo: alianzas para una cooperación feminista*, Hegoa, Bilbo, honako honetan eskuragarri: <<http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/registros/19722>>.
- Rodriguez, Natalia (2012), *Análisis de la cooperación pública vasca 2008-2010: una mirada a la cooperación descentralizada*, Euskadiko GGKE-en Koordinakundea, Bilbo.
- Sobhan, Rehman (2006). “Challenging the injustice of poverty: rethinking aid strategies”, in *Aid impact and poverty reduction*, Folke eta Nielsen (arg.): 31-52. New York.
- Unceta, Koldobika (Zuz.) (2012), *25 años de cooperación al desarrollo en Euskadi: la política de instituciones públicas y el sistema vasco de cooperación*. Hegoa, Bilbo, honako honetan eskuragarri: <<http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/registros/19016>>.
- Unceta, Koldo; Gutierrez-Goiria, Jorge (2012), “Identidad y legitimidad de la cooperación para el desarrollo: el debate sobre la relación de la AOD con la pobreza y la desigualdad internacional”, *Revista de Estudios de Economía Aplicada*, 30-3 liburukia, 1.-28. or.
- Unceta, Koldo (2013a), “Cooperación para el desarrollo: anatomía de una crisis”, in *Íconos. Revista de Ciencias Sociales*. 47. zk., Quito, iraila, 15.-29. or.
- Unceta, Koldo (Zuz.) (2013b), *La cooperación al desarrollo de base local en Euskadi*. Hegoa, Bilbo, honako honetan eskuragarri: <<http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/registros/19516>>.
- Zimmermann, Felix eta Smith, Kimberly (2011), “More actors, more money, more ideas for international development co-operation”. *Journal of International Development*, 23. zk.: 722.-738.

A dense crowd of people is depicted in a line drawing style, filling the entire page. The figures are rendered with simple outlines and are shown in various poses, some looking towards the viewer, others looking away. The overall effect is a sense of a large, diverse group of people. A dark grey horizontal bar is positioned across the middle of the page, containing the word 'Glosarioa' in white text.

Glosarioa

Zibilizazio krisia

Krisiaren fenomenoak deskribatzeko garaian “zibilizazio” hitza erabiliz, nabarmendu nahi da krisiak gaur egungo zibilizazio hegemonikoaren –moderitate kapitalista– funtsezko printzipio batzuetan duela jatorria. Zibilizazio orok ditu balio berezia aitortzen zaien printzipio jakin batzuk; eta, azken bi mende luzeetan, honako hauek egon dira indarrean: ongizatearen ideia, etenik gabeko aurrerapen materialaren ondorioz; hazkunde ekonomiko kapitalista, ekonomiaren eta gizartearen premisa gisa; indibidualismoa, produktibismoa, lehia, premia eta baliabide guztien merkantilizazioa eta lehiakortasuna, gizateria-natura arteko harremana eraikitzeke balio nagusi gisa, gizateria-natura arteko harremanaren ikuspegi androzentrikoari jarraituz, zeinak bereizten baitu gizakia naturatik eta ezartzen baitu erlazio horretan hierarkia, natura menderatzeko eta ustiatzeko; ordezkari bidezko demokrazia liberala, dinamika kapitalistari egokituriko molde politiko gisa; eta, azkenik, zibilizazio proposamen hori unibertsala delako uste osoa, eta zientifikotzat hartzen den horretara mugatzea ezagutza.

Printzipio horietatik eratorritako gizarte globalean, dinamika soziokultural, egitura eta eragile jakin batzuek askotariko azpiratze sistema bat eratzen dute azken instantzian, askotariko mendekotasun eta azpiratze sistemen arteko artikulazioak osatua: kapitalismoa, patriarkatua, inperialismoa, arrazakeria eta intentsitate apaleko demokrazia. Zapalkuntza sistema horiek barneratu eta naturalizatu egin dira, eta horrek jartzen ditu, hain zuzen, krisi horietarako baldintzak, haiek ulertzeko atea ixteaz gainera.

Ildo horretatik, dimentsio anitzeko krisi batez ari gara –eta, hala, beharrezkoa eta premiazkoa da modu kritikoan berraztertzea mendebaldeko zibilizazio moderno honek euskarri duen gizarte eredu osoa eraikitzeke eta naturalizatzeko bidea eman duten iruditeria eta oinarriak–, eta ikuspegi historikotik aztertu beharra dago, baldin eta hari errotik aurre egin nahi bazaio, alde batera utzirik haren adierazpen partzial eta unean unekoak.

Emantzipazioa

Emantzipazio hitzak pertsonen, giza taldeen eta herrien arteko asimetria, mendekotasun eta esplotazio erlazioak eta egiturak ahultzeko xedea duten eraldaketa edo aldaketa prozesuak adierazten ditu. Hauek dira emantzipazio prozesuen ezaugarri bereizgarri nagusiak:

- Konplexutasuna, modernitate kapitalistan eta modernitate kapitalistak finkatutako azpiratzeen etena eta askapena lortu nahi izatearen eraginez.
- Dimentsio aniztasuna, azpiratze horiek askotariko azpiratze sistema batean artikulatzen baitira (ikus *zibilizazio krisia*).
- Prozesu izaera eta egunerokotasuna, norberaren jardunetik eta antolaketa jardunetik hasi eta lortu nahi diren gizarte iruditerietarainoko denbora lerro batean.
- Gatazka botere erlazioei aurre egitea, baztertuen eta mendekoen jabekuntza eta kontzientziazte prozesuak planteatuz.
- Alternatibak eraikitzeko sormena, errealitatearen gaineko bestelako begirada batzuetatik hasi eta horiek praktikan zehazki gauzatzearaino, zibilizazio krisia gainditzeko ibilbide berriak definituz.
- Askotarikoen arteko artikulazioa, estrategia emantzipatzailearen dimentsio aniztasunaren oinarri.
- Internazionalismoa, zibilizazio krisiari eta haren euskarri globalei aurre egiteko printzipio gisa.
- Deskolonizazio proiektua, agerian uzteko eta bideragarri egiteko errealitatea eraldatzeko jakintzen eta ezagutzen, izateko moduen eta ideien aniztasuna.
- Dimentsio pertsonalak, kolektiboak, kognitiboak, emozionalak eta gorputzarenak emantzipazio prozesu orearen garapenean eragiten dute.

Hezkuntza emantzipatzailea

Hezkuntza emantzipatzailea deritzogu gizarte-eraldaketako helburu eta proposamen estrategikoei dimentsio politikoa atxikitzen dien hezkuntzari. Gaur egungoaren moduko errealitate konplexu batean, askotariko krisiek ezaugarrituriko garai batean, ezinbesteko jotzen du ekintza pedagogiko eraldatzaileak abian jartzeko ahalmena duten talde, erakunde eta gizarte-mugimenduen arteko aliantzak eratzea. Iparra-Hegoa, Lankidetzeta-Hezkuntza, GGKEak-gizarte-mugimenduak ikuspegi dikotomikoen aurrez aurre, askotariko subjektuen sendotzea eta artikulazioa iradokitzen du, ikuspegi feminista eta internazionalistatik, nazioarteko hezkuntzaren eta lankidetzaren esparruan nagusi izan diren orientazio estu edo sektorialetatik haratago.

Hezkuntza emantzipatzaileak, hortaz, sentsibilizaziotik, lankidetzatik eta eskola erakundeen baitako hezkuntza hutsetik urrunago iritsi nahi du. Emantzipazioa xede duen hezkuntza ekimenak kontzientzia prozesuak sustatzea bilatzen du –terminoaren adiera freiriarrean–, subjektuek beren bizitzetako zapalkuntzak argi identifika ditzaten, interseksionalitatearen ikuspegitik; ekintza politikoko estrategiak gara ditzaten, eta sistema kapitalista eta heteropatriarkalari aurre egiteko esperientzia alternatiboak saia ditzaten.

Ikuspegi lokal-globala

Garapenerako lankidetzan nahiz hezkuntzan ikuspegi lokal-globala zeharlerro modura txertatzeak berarekin dakar arlo horiek beren eguneroko jardueran aintzat hartzea zibilizazio krisiaren errealitate globala, baita ekimen emantzipatzaile ororen prozesu izaera eta izaera internazionalista ere.

Ildo horretatik, planteatzen du nazioarteko lankidetzako proposamen bakoitza aztertzeko eta formulatzeko jarduera estrategia lokala eta dinamika eta egitura globalak uztartzea, bere ahalmenen bidez dinamika eta egitura horietan eragitearren. Baina, bigarrenik, Iparra-Hegoa logika gainditu nahi du, elkartasun internazionalistaren ikuspegi zabal eta politikoago batetik; hain zuzen ere, planteatzen du lurralde edo/eta eragile bakoitzari dagokion ekimen espezifiko bakoitza inplementatzeko agenda nazioarteko beste lurralde edo/eta eragile batzuekin aliantzan gauzatzea, agenda komuna sendotzeko elkarrekin.

Hala, ikuspegi lokal-globalak tokiko proposamenak eta dinamika globalak uztartzen ditu, eta, aldi berean, elkarri hurbiltzen dizkio, ikuspegi internazionalistatik, askotariko eragile edo/eta lurraldeen antzeko agendak, eta ez maila teorikoan soilik, baizik eta nazioarteko lankidetzaren jardun zehatzean.

Elkartasun internazionalistako ekimena

Bitarteko berriaren ezaugarri batzuk:

1. Helburu espezifikoaren oinarria nork-zer-nola logika da, eta, beraz, funtsezko elementuak dira ahalmenak sendotzea eta askotarikoen arteko aliantza. Alderdi horretatik, modu horretan interpreta daitekeen oro da egingarria nazioarteko lankidetzaren baitan, salbuespenik gabe. Gizarte-mugimenduei dagokienez, haiek sendotzeari buruzko ikuspegi inklusiboa planteatzen da (agenda, estrategia eta antolaketa kultura).

2. Prozesu emantzipatzaileen ezaugarriak barne hartzen ditu:

- a. Eragin politikoa, asimetriei eta mendekotasun globalei aurre egingo dieten prozesu emantzipatzaileak eragiteko subjektu eta eragile espezifikoaren lehentasunei buruzko azterketa sakona eginda.
- b. Konplexutasuna eta ziurgabetasuna; hori dela eta, profilarren formatuko formulazioa behar da eta finantzatutako rubroei izaera inklusiboa eman behar zaie.
- c. Dimentsio aniztasuna; hori dela eta, garrantzi handia eman behar zaio agendak eta estrategiak elkarri uztartzeko ahalmenari.
- d. Dibertsitatea eta aliantzak sortzea; hori dela eta, modu positiboan balioesten da diferentzien aitortza positibotik abiatutako askotarikoen artikulazioa.
- e. Begirada epe luzera; hori dela eta, 3-4 urtera proiektatzen da bitartekoa, gutxienez.
- f. Elkartasun internazionalista; hori dela eta, ekimen orok gaintzen du Iparra-Hegoa dikotomia, eta agenden artikulazio internazionalistatik formulatzen da, lankidetzaren eta hezkuntzaren arteko bereizketa deuseztatuz.

Gizarte-mugimendua

Gizarte-mugimenduek ekintza kolektibo edo/eta politikoko molde espezifiko eta bereizgarri bat osatzen dute, honako ezaugarri nagusi hauek dituen:

- Askotariko erakundeak ditu protagonista; sarbide errazeko eta egitura ez oso formalizatu eta ez oso hierarkizatuko erakundeak dira, baldin eta errepresioaren, kontrolaren edo infiltrazioaren eraginez ezkutuan edo erdi-ezkutuan jardutera behartuta ez badaude. Zeinek bere autonomiari eutsi arren, mundua ulertzeko eta munduan egoteko modu kritiko eta inkonformistaren baitan (menderakaitza, jazarlea, disidentea) izate eta identitate kolektiboko zentzua partekatzen dute, eta indarrean dauden botere egitura jakin batzuk salatu eta des-naturalizatzen dituzte, konbentzio, igurikapen eta egitura sozialek dakartena onartu gabe.
- Diskurtsoak, mezuak eta eskema kognitiboak sortzeko duten gaitasunaren bidez, interes orokorreko premia eta behar kolektibo jakin batzuk aditzera ematen dituzte. Betiere, gatazkaren logika politikotik, erantzukizun politikoak agerian utziz eta arerioak identifikatuz, mobilizazio ekimenen bidez, zeinak izaten baitira, batzuetan, konfrontaziozkoak eta hausleak.

Ekimen horiei errepresioaren bidez erantzun ohi die sistema juridiko-politiko instituzionalizatuak; izan ere, haien helburua botere politiko instituzionalizatu bereganatzea izan ez arren, gizarteko botere erlazioak oro har eraldatzea dute xede.

- Proposamen eta jarduera alternatiboak eraikitzea proposatzen dute, mendekotasunik gabeko etorkizun emantzipatzailea –eta, beraz, herri, gizarte-talde eta pertsona ororentzako inklusioa– aldarrikatzeko eta eratzeko borondatearekin.

Emantzipazio subjektua/eragilea

Emantzipazio prozesuetan, funtsezkoak dira prozesu horiek sustatzen dituzten subjektuak eta eragileak, eta, hala, eztabaida ugari eta oso sakonak izan dira nork izan behar duen prozesu horien subjektu.

Zera ulertzen dugu emantzipazio subjektu gisa: beren ahalmenen jabe direla, eta sistema zalantzan jartzeko eta hari protagonismoa borrokatzeko jardunaren bidez, zer aldaketa egin behar diren erabakitzen duten eta prozesuan parte hartzeko duten borondatearen eta erabakimenaren neurrian aldaketa horiek aurrera eramango dituzten gizon-emakumeen multzoa. Subjektu zabal horren baitan, eragileak sartzen dira; alegia: subjektua bere burua subjektu gisa hartzera daramaten agenda politikoetan aurrera egiteko prozesu emantzipatzaileak sustatzen dituzten orotariko egiturak (gizarte-mugimendua, GGKEak, lurraldea, alderdi politikoa, ezagutza zentroak, etab.).

Gure ikerketa prozesutik, planteatzen dugu subjektu zabala, askotarikoa eta plurala dela emantzipazio subjektu globala, eta ez gizarteko sektore espezifiko bati lotua; hori horrela izanik, kontuan hartu beharko lirateke aipatutako azpiratze dimentsio guztiak (ikus *zibilizazio krisia*). Subjektu hori, bestalde, ez da *a priori* existitzen; jarduera emantzipatzailearen beraren bidez eraikitzen da, eta ez da askotariko eragileen (nekezariak, feministak, indigenak, etab.) batura kuantitatibo soila, aitzitik, haien agendak zabaltzea eta artikulatzea eskatzen du.

A dense crowd of people is depicted in a line drawing style, filling the entire page. The figures are rendered with simple outlines and are shown in various poses, some looking towards the viewer, others looking away. The overall composition is a busy, overlapping mass of human forms. A dark grey horizontal bar is positioned across the middle of the image, containing the text 'Eranskinak' in white. The background is a light, neutral color.

Eranskinak

I. Eranskina

Lan ildoen ikuspegiaren baremazio taularen eredu (gl nahiz gh arloetarako)

Zeharlerroei lehentasuna ematen dien lankidetzaren deszentralizaturako proposaturako eredu bat da. Ildo horretatik, pisu handiagoa ematen die zeharlerroei, baita *nork* aldagaiari eta askotarikoen arteko aliantzei ere.

Entitateak (30 puntu, gehienez ere)

1. Irizpidea: Partzuergoa (6 puntu, gehienez ere):

- Antzeko izaerako zenbait entitateen arteko partzuergoa proposatzen den (2 puntu).
- Askotariko izaerako entitateen arteko partzuergoa proposatzen den –GGKEak, gizarte-mugimenduak, unibertsitatea, bestelako gizarte-erakunde batzuk, etab.– (2 puntu gehigarri).
- Entitate bakoitzak proposamenari balio erantsia dakarkiola bermatzen den, parteen batura hutsetik harago, izaera estrategikoa eta aliantza izaera duen partzuergo proposamen bati jarraituz (2 puntu gehigarri).

2. Irizpidea: Ahalmenak (10 puntu, gehienez ere):

(Justifikazioa, plan ofizialaren bidez edo azalpen dokumentu edo txostenaren bidez)

- Ahalmen estrategikoak (5 puntu, gehienez ere):
 - Lehentasun estrategikoak argi azaltzen diren (2 puntu).
 - Lehentasun horiek azpiratze sistemak aitortzen eta horiek gainditzeko eragiten duten, ikuspegi intersektionaletik (1 puntu). Patriarkatua gainditzeko espezifikoki eragiten duten, ikuspegi intersektionaletik (1 puntu gehigarri).
 - Lehentasun horiek borondate eta jarduera internazionalista bermatzen duten (1 puntu gehigarri).
- Antolaketa ahalmenak (5 puntu, gehienez ere):
 - Erabakiak hartzeko partaidetza sistema bermatzen den (2 puntu).
 - Erakundean gizonen eta emakumeen artean dauden asimetriak gainditzeko antolaketari buruzko apusturik badagoen (2 puntu gehigarri).
 - Ebaluazio jarraituko kultura eta estrategia bat badirela bermatzen den (1 puntu gehigarri).

3. Irizpidea: Sustraitzea (10 puntu, gehienez ere):

(Justifikazioa, plan ofizialaren bidez edo azalpen dokumentu edo txostenaren bidez)

- Lurraldean sustraituta egotea (5 puntu, gehienez ere):
 - Entitatearen oinarritzko lurraldeko dinamika sozial eta politikoetan inplikazioa eta intzidentzia bermatzen den, nazioarteko lankidetzaren baitako berezko jardueraz harago (2 puntu, gehienez ere). Dinamika horiek feministak diren (1 puntu gehigarri).
 - Lurraldeko sare edo aliantza sendoetan parte hartzen den, nazioarteko lankidetzak berezkoak dituen harago (1 puntu). Sare edo aliantza horiek feministak diren (1 puntu gehigarri).
- Nazioartean sustraituta egotea (5 puntu, gehienez ere):
 - Lurralde dinamikak nazioarteko estrategia eta jarduerekin uztartzen diren bermatzen den (2 puntu, gehienez ere). Nazioarteko dinamika horiek feministak diren (1 puntu gehigarri).
 - Nazioarteko sare sendoetan modu aktiboan parte hartzen den (1 puntu). Sare edo aliantza horiek feministak diren (1 puntu gehigarri).

4. Irizpidea: Esperientzia (4 puntu, gehienez ere):

- Proposamenaren eragin arloan edo arloetan esperientzia bermatzen den (2 puntu, gehienez ere).
- Proposamenaren parte diren entitateek alde aurreko baterako lanean esperientzia dutela bermatzen den (2 puntu gehigarri, gehienez ere).

156

PROPOSAMENA (70 puntu)

Zer?: proposamenaren helburua, inpaktua eta egokitasuna
(25 puntu, gehienez ere)

5. Irizpidea: Proposamenaren helburua (15 puntu, gehienez ere):

- Proposamenaren helburuak (4 puntu, gehienez ere; irizpide baztertua):
 - Helburuak argiak eta zehatzak diren (2 puntu).
 - Helburuak deialdiaren lehentasun estrategikoekin bat datozen (2 puntu).

- Helburuak, ikuspegi intersektionalistik (5 puntu, gehienez ere):
 - Helburuek modu esplizitu eta estrategikoan planteatzen duten azpiratze sistemak gainditzea (3 puntu).
 - Helburuek modu esplizitu eta estrategikoan planteatzen duten emakumeen eta gizonen arteko asimetriak gainditzea (2 puntu gehigarri).
- Helburuak, ikuspegi internazionalistik (3 puntu, gehienez ere):
 - Agenda eta ekimenen nazioarteko artikulaziorako ekimenak planteatzen diren (1 puntu).
 - Helburuek modu esplizitu eta estrategikoan planteatzen duten agenda eta ekimenen nazioarteko artikulazioa (2 puntu gehigarri).
- Helburuak, hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegitik (3 puntu, gehienez ere):
 - Gizarte kritikoaren, parte hartzean oinarrituriko gizartearen eta gizartearen jabekuntzaren aldeko ekimenak planteatzen diren (1 puntu).
 - Helburuek modu esplizitu eta estrategikoan planteatzen duten gizarte kritikoan, parte hartzean oinarrituriko gizartearen eta gizartearen jabekuntzan sakontzea (2 puntu gehigarri, gehienez ere).

6. Irizpidea: helburuen betetzea neurtzea (10 puntu, gehienez ere):

- Helburuen betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren (3 puntu, gehienez ere; irizpide baztergarria).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, gizonen eta emakumeen arteko asimetriak gainditzeari buruz edo emakumeen jabekuntzari buruz (1 puntu gehigarri).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, kultura eta arrazen arteko asimetriak gainditzeari buruz (1 puntu gehigarri).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, klase sozialen arteko asimetriak gainditzeari buruz (1 puntu gehigarri).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, produktibismoa gainditzeari buruz (1 puntu gehigarri).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, agenda eta ekimenen nazioarteko artikulazioari buruz (2 puntu gehigarri).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, gizarte kritikoan, parte hartzean oinarrituriko gizartearen eta gizartearen jabekuntzan sakontzeari buruz (1 puntu gehigarri, gehienez ere).

Nondik?: diagnostikoa (15 puntu, gehienez ere)

7. Irizpidea: Diagnostikoa (15 puntu, gehienez ere):

- Informazio nahikoa ematen den (osoa izan gabe ere) helburuen betetzea neurtzeko analisi kategoriei buruz (3 puntu, gehienez ere; irizpide baztertzaila).
- Diagnostikoak argi azaltzen duen proposamenaren subjektuari eta hartan elkarreaginean diharduten eragileei buruz (3 puntu gehigarri, gehienez ere).
- Diagnostikoak aztertzen duen proposamenean parte hartzen duten talde edo/ eta eragileen egoera, ikuspegi intersektzionaletik (2 puntu). Analisi kritiko feminista egiten duen (2 puntu gehigarri).
- Diagnostikoak azterketa lokal-globala egiten duen proposamena kokatutako lurraldea eta nazioarteko logikak uztartzeko (3 puntu gehigarri, gehienez ere).
- Diagnostikoa lantzeko metodologia partaidetzan oinarritu den bermatzen den (2 puntu, gehienez ere).

Nola?: osagaiak metodologia, ebaluazio jarraituko sistema (30 puntu)

8. Irizpidea: Lan ildoak edo osagaiak (8 puntu, gehienez ere):

- Lan ildoak edo osagaiak bat datozen finkatutako helburuekin (2 puntu, gehienez ere; irizpide baztertzaila).
- Lan ildoak edo osagaiak egokiak diren, balizko beste aukera batzuekin alderatuta, eta bat datozen deialdiaren lehentasun estrategikoekin (2 puntu gehigarri, gehienez ere).
- Lan ildoak edo osagaiak bat datozen asimetriak gainditzeari buruz ezarritako helburuekin (2 puntu, gehienez ere).
- Lan ildoak edo osagaiak bat datozen agenda eta ekimenen nazioarteko artikulazioari buruz ezarritako helburuekin (1 puntu gehigarri, gehienez ere).
- Lan ildoak edo osagaiak bat datozen gizarte kritikoan, parte hartzean oinarrituriko gizartean eta gizartearen jabekuntzan sakontzeari buruz ezarritako helburuekin (1 puntu gehigarri, gehienez ere).

9. Irizpidea: Metodologia (16 puntu, gehienez ere):

- Planifikatutako metodologiak partaidetzan oinarrituriko ikuspegiari jarraitzen dion (3 puntu, gehienez ere).
- Planifikatutako metodologiak dimentsio interseksionala kontuan hartzen duen (3 puntu, gehienez ere).
- Planifikatutako metodologiak proposamenaren nazioarteko artikulazioa bermatzen duen (3 puntu, gehienez ere).
- Proposamena kulturalki eta metodologikoki egokia den (4 puntu, gehienez ere).
- Lortu nahi diren helburuetan eragiteko aliantzak ezartzen diren esplizituki (3 puntu gehienez ere).

10. Irizpidea: Ebaluazio jarraitua (6 puntu, gehienez ere):

- Prozesuaren berrikuspina, jarraipena eta ebaluazioa egiteko une espezifikokoak zehazten dira (2 puntu, gehienez ere).
- Berrikuspina, jarraipena eta ebaluazioa egiteko une horietarako jardura metodologiak zehazten dira (2 puntu, gehienez ere).
- Prozesuan zehar botere erlazio eta dinamikak ulertzeko tresnak ezartzen dira (2 puntu, gehienez ere).

II. Eranskina

Subjektuen ikuspegiaren baremazio taularen eredia

Subjektuen ikuspegiari lehenetsuna ematen dion lankidetzeta deszentralizaturako proposatutako eredia da; hala, EIAA agendaren bi indar-ideiak bilduta daude baremazio irizpideen definizioan.

Subjektuen ikuspegiak honako premisa hauek ditu oinarri:

1. Lehenetsunezko subjektuak aukeratu dira.
2. Subjektuen artikulazio espazioak finkatu ditu subjektu bakoitzerako epe jakin baterako lehenetsun estrategikoak.

Lehenetsunezko eragileen ahalmenak (38 puntu, gehienez ere)

1. Irizpidea: Lehenetsitako eragilearen edo eragileen ahalmenen azterketa (20 puntu, gehienez ere):

- Ahalmen estrategikoak (6 puntu, gehienez ere):
 - i. Lehenetsunak ongi definituta
 - ii. Lehenetsunak, interseksionalitatearen ikuspegitik
 - iii. Lehenetsunak, internazionalismoaren ikuspegitik
- Antolaketa ahalmenak (6 puntu, gehienez ere):
 - iv. Partaidetza aktibo eta kalitatezkoa
 - v. Ebaluazio iraunkorra
 - vi. Botere eta asimetriei hautematea
- Ahalmen politikoak (8 puntu, gehienez ere):
 - vii. Proposamenak sortzea (eraketa, egoeraren azterketa, lanketa ahalmena)
 - viii. Ekimen emantzipatzaileak inplementatzea
 - ix. Herri komunikazioa
 - x. Bestelako gizarte-eragile batzueganako eragina
 - xi. Erakundeenganako eragina
 - xii. Herri mobilizazioa
 - xiii. Artikulazioa (lokala, nazioartekoa, askotarikoa)
 - xiv. Erresilientzia

2. Irizpidea: Lehenetsitako eragileak edo eragileek lehentasunez diharduten testuinguruaren edo testuinguruen azterketa (6 puntu, gehienez ere):

- Diagnostikoak testuinguru horiei buruzko informazio nahikoa ematen duen (3 puntu).
- Diagnostikoak argibiderik ematen duen lehentasunezko eragilearekin edo eragileekin elkarrekintzan diharduten eragileen multzoari buruz (3 puntu gehigarri, gehienez ere).

3. Irizpidea: Ahalmenen eta testuinguruaren analisiaren ezaugarri orokorrak (8 puntu, gehienez ere):

- Diagnostikoak logika interseksionaletik egiten duen egoeraren azterketa (2 puntu).
- Analisi kritiko feminista egiten den (1 puntu gehigarri).
- Diagnostikoak lurraldeak dinamika globalekin uztartzeko analisi lokal-globala egiten duen (3 puntu gehigarri).
- Diagnostikoa lantzeko metodologia partaidetzan oinarritu dela bermatzen den (2 puntu).

4. Irizpidea: Subjektua sendotzeko lehentasunezko eragilearen egokitasuna (4 puntu, gehienez ere; irizpide baztertzaila):

- Lehentasunezko eragileen ahalmen emantzipatzailea beste eragile batzuen bano handiagoa dela bermatzen den (4 puntu, gehienez ere).

Lehentasunezko eragilearen zer ahalmen sendotu
(25 puntu, gehienez ere)

5. Irizpidea: Helburuak: sendotu beharreko ahalmenak (15 puntu, gehienez ere)

- Proposamenaren helburuak (3 puntu, gehienez ere; irizpide baztertzaila):
 - Ahalmenak sendotzeko helburua edo helburuak argiak eta zehatzak diren (2 puntu).
- Helburuak, ikuspegi interseksionaletik (4 puntu, gehienez ere; irizpide baztertzaila):

- Ahalmenen helburuek modu esplizitu eta estrategikoan planteatzen duten azpiratze sistemak gainditzea (2 puntu).
- Ahalmenak sendotzeko helburuek modu esplizitu eta estrategikoan planteatzen duten emakumeen eta gizonen arteko asimetriak gainditzea (2 puntu gehigarri).
- Helburuak, ikuspegi internazionalistatik (4 puntu, gehienez ere; irizpide baztertzaila):
 - Ahalmenak sendotzeko helburuek modu esplizitu eta estrategikoan planteatzen duten agenda eta ekimenen nazioarteko artikulazioa (4 puntu gehienez ere).
- Helburua, hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegitik (4 puntu, gehienez ere):
 - Helburuek modu esplizitu eta estrategikoan plantatzen duten gizarte kritikoan, parte hartzean oinarrituriko gizartean eta gizartearen jabekuntzan sakontzea (4 puntu, gehienez ere).

6. Irizpideahalmenak sendotzeko helburuen betetzea (10 puntu, gehienez ere):

- Helburuen betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren (2 puntu, gehienez ere; irizpide baztergarria).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, gizonen eta emakumeen arteko asimetriak gainditzeari buruz edo emakumeen jabekuntzari buruz (1 puntu gehigarri).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, kultura eta arazen arteko asimetriak gainditzeari buruz (1 puntu gehigarri).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, klase sozialen arteko asimetriak gainditzeari buruz (1 puntu gehigarri).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, produktibismoa gainditzeari buruz (1 puntu gehigarri).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, agenda eta ekimenen nazioarteko artikulazioari buruz (3 puntu gehigarri).
- Betetzea/inpaktua neurtzeko analisi kategoriak definitzen diren, gizarte kritikoan, parte hartzean oinarrituriko gizartean eta gizartearen jabekuntzan sakontzeari buruz (1 puntu gehigarri, gehienez ere).

Norekin (14 puntu, gehienez ere)

7. Irizpidea: Ahalmenak sendotzeko prozesua garatzeari begirako aliantzak (10 puntu, gehienez ere):

- Antzeko izaerako zenbait entitateen arteko partzuergoa proposatzen den (2 puntu).
- Askotariko izaerako entitateen arteko partzuergoa proposatzen den –GGKEak, gizarte-mugimenduak, unibertsitatea, bestelako gizarte-erakunde batzuk, etab.– (4 puntu gehigarri).
- Entitate bakoitzak proposamenari balio erantsia dakarkiola bermatzen den, parteen batura hutsetik harago, izaera estrategikoa eta aliantza izaera duen partzuergo proposamen bati jarraituz (4 puntu gehigarri).

8. Irizpidea: Entitateen arteko erlazioa eta esperientzia (4 puntu, gehienez ere):

- Proposamenaren eragin arloan edo arloetan esperientzia bermatzen den (2 puntu, gehienez ere).
- Proposamenaren parte diren entitateek alde aurreko baterako lanean esperientzia dutela bermatzen den (2 puntu gehigarri, gehienez ere).

Nola sendotu ahalmenak (23 puntu, gehienez ere)

9. Irizpidea: Lehentasunezko osagaiak, planteatutako helburuei dagokienez (8 puntu, gehienez ere):

- Osagaiak ahalmenak sendotzeko dagokionez finkatutako helburuekin bat datozen (2 puntu, gehienez ere; irizpide baztertzaila).
- Osagaiak egokiak diren, balizko beste aukera batzuekin alderatuta, eta bat datozen definitutako lehentasunekin (1 puntu gehigarri, gehienez ere; irizpide baztertzaila).
- Osagaiak bat datozen asimetriak gaintzeko buruz ezarritako helburuekin (2 puntu, gehienez ere; irizpide baztertzaila).
- Osagaiak bat datozen agenda eta ekimenen nazioarteko artikulazioari buruz ezarritako helburuekin (2 puntu gehigarri, gehienez ere; irizpide baztertzaila).
- Osagaiak bat datozen gizarte kritikoan, parte hartzean oinarrituriko gizartean eta gizartearen jabetasun sakontzeko buruz ezarritako helburuekin (1 puntu gehigarri, gehienez ere; irizpide baztertzaila).

10. Irizpidea: Ahalmenak sendotzeko metodologia (8 puntu, gehienez ere):

- Planifikatutako metodologiak partaidetzan oinarrituriko ikuspegiari jarraitzen dion (2 puntu, gehienez ere).
- Planifikatutako metodologiak dimentsio interseksionala kontuan hartzen duen (2 puntu, gehienez ere).
- Planifikatutako metodologiak proposamenaren nazioarteko artikulazioa bermatzen duen (2 puntu, gehienez ere).
- Proposamena kulturalki eta metodologikoki egokia den (2 puntu, gehienez ere).

11. Irizpidea: Ahalmenak sendotzeari lorturiko ebaluazio jarraitua (7 puntu gehienez ere):

- Prozesuaren berrikuspena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko une espezifikoak zehazten dira (2 puntu, gehienez ere).
- Berrikuspena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko une horietarako jarduera metodologiak zehazten dira (2 puntu, gehienez ere).
- Prozesuan zehar botere erlazio eta dinamikak ulertzeko tresnak ezartzen dira (3 puntu, gehienez ere).

Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate: Hegoa Institutuaren *Lankidetza kritikoa eta gizarte-mugimendu emantzipatzaileak* ikerketa taldeko kidea. Zortzi urtez lan egin du (2001-2009) Eusko Jaurlaritzaren Lankidetza Zuzendaritzan, Hego Amerikako eremuaren arduradun, lehenik, eta administrazio horretako Plangintza, Estrategia, Programa eta Hitzarmenen arduradun, gero. 2009tik 2014ra, Hegoa Institutuko koordinatzaile orokorra egin du lan. Harreman estua du nazioarteko gizarte-mugimenduekin, eta hainbat dokumentu argitaratu ditu horiek lankidetzarekin duten erlazioei buruz. Artikuluak idatzi ditu, baita taldean egindako zenbait liburutarako kapituluak ere.

Hegoaren Lankidetza Kritikoa eta Gizarte-mugimendu emantzipatzaileak: Gema Celorio, Javier González, Yolanda Jubeto, Javier García, Xarles Iturbe, Unai Vázquez, Juan Hernández, Itziar Hernández, Luis Miguel Uharte, Gloria Guzmán, Mijal Haramati, Berta Malvárez, Davide Angelilli, Efren Arreskurrinaga, Beatriz Casado, Silvia Piris, Zesar Martínez, Jokin Alberdi, Amaia del Río eta Gonzalo Fernández.

Gizarte-mugimenduak eta Lankidetza plataforma: Bakea eta Duintasuna-OMAL, Bizilur, Mugarik Gabe, Mundubat, VSF-Justicia Alimentaria Global, Entrepobles eta Hegoa.

Emantzipaziorako tresnak taldea: Monika Sojo, Irantzu Varela, Ainhoa López, Federico Abreu, Fernando Altamira, Silvia Piris, Javier González, Pilar Mayordomo, Ana González, Laura Castresana, Amaia del Río eta Gonzalo Fernández.